



**Bizikidetzarako gune irekien  
udal kudeaketa akustikorako  
jardunbide egokien gida  
teknikoa**

© Bizkaiko Foru Aldundia

Bizikidetzarako gune irekien udal kudeaketa akustikorako jardunbide egokien gida teknikoa

Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia

Egileak: Tecnalia Research & Innovatio Fundazioa eta Ekoiure Plus S.L.L.

Koordinazioa eta aholkularitza fakultatiboa: Ingurumen Kalitatea zaintzeko Zerbitzua

Diseinua eta inprimatzea: Composiciones Rali. S.A

Lege Gordailua: BI-2142-2021



# **Bizikidetzarako gune irekien udal kudeaketa akustikorako jardunbide egokien gida teknikoa**

2021ko abendua



## AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	5
1. SARRERA .....	7
2. HELBURUA.....	11
3. APLIKATUTAKO METODOLOGIAREN DESKRIBAPENA .....	15
4. GAI BAKOITZAREN AZTERKETA .....	21
4.1. Jarduera iraunkorrak .....	22
4.1.1. Ostalaritzako jardueren kanpoko terrazak.....	22
4.1.1.1. Diagnostikoa egiteko prozedura .....	23
4.1.1.2. Teknikoki aztertzea.....	24
4.1.1.3. Jarraipena eta kontrola.....	26
4.1.1.4. Araudia eta kudeaketa.....	27
4.1.2. Gazteen lokalak eta <i>txokoak</i> .....	29
4.1.2.1. Diagnostikoa egiteko prozedura .....	30
4.1.2.2. Teknikoki aztertzea.....	31
4.1.2.3. Jarraipena eta kontrola.....	32
4.1.2.4. Araudia eta kudeaketa.....	32
4.1.3. Bide publikoan sortzen den zarata, egunez edo gauez.....	33
4.1.4. Udalaren obrak eta zerbitzuak.....	35
4.2. Unean uneko jarduerak .....	38
4.2.1. Bide publikoko ekitaldiak eta megafonia.....	40
4.2.1.1. Diagnostikoa egiteko prozedura .....	42
4.2.1.2. Teknikoki aztertzea.....	43
4.2.1.3. Jarraipena eta kontrola.....	44
4.2.1.4. Araudia eta kudeaketa.....	44
4.2.2. Jaietako jarduerak: soinu helburua duten ekitaldiak, txosnak eta barrakak.....	45
4.2.2.1. Diagnostikoa egiteko prozedura .....	45
4.2.2.2. Teknikoki aztertzea.....	46
4.2.2.3. Jarraipena eta kontrola.....	47
4.2.2.4. Araudia eta kudeaketa.....	48
5. GOMENDATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK.....	53
5.1. Ostalaritzako jardueren kanpoko terrazak .....	54
5.2. Gazteen lokalak eta <i>txokoak</i> .....	55

5.3. Bide publikoan sortzen den zarata, egunez edo gauez .....	56
5.4. Udalaren obrak eta zerbitzuak .....	56
5.5. Bide publikoko ekitaldiak eta megafonia.....	57
5.6. Jaietako jarduerak: soinu helburua duten ekitaldiak, txosnak eta barrakak .....	58
<b>6. LAGUNTZEKO BALIABIDEAK (LB) .....</b>	<b>61</b>
1. ERANSKINA: LB1 KEXAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN PROPOSAMENA.....	64
2. ERANSKINA: LB2 IKUSKAPENEN PROZEDURA .....	69
3. ERANSKINA: LB3 KUDEAKETARAKO DIAGNOSTIKO AKUSTIKOKO PROIEKTUAK .....	71
4. ERANSKINA: LB4 ARAU PROPOSAMENA.....	75
5. ERANSKINA: LB5 BAIMENA EMATEKO PROPOSAMENA .....	87
6. ERANSKINA: LB6 BITARTEKARITZA .....	90
7. ERANSKINA: SOINU MAILA HANDIKO EREMUAK .....	91



## **AURKEZPENA**

Errepideko eta aireko zirkulazioa, obrak, jendearen joan-etorriak, eguneko eta gaueko aisialdiko jarduerak.... Asko dira gure udalerrri eta hirietako hiriguneetan aurki ditzakegun hots-kutsaduraren iturriak. Zaratarekin –65 dezibelek gorako edozein soinuarekin– bizi gara egunero. Eta zarata hori kaltegarri bihurtzen da 75 dezibelek gorakoa bada, eta mingarria 120 dezibelek gorakoa bada.

Hots-kutsadura osasun-arazo gehien eragiten dituen ingurumen-faktoreetako bat da. Entzumen-sisteman izan dezakeen eraginaz gain, nahasmendu psikopatologikoak eta psikologikoak sor ditzake, loaren eta jokatibidearen nahasmenduak, memoria- eta arreta-arazoak.... Hala, Europako Ingurumen Agentziaren (EIA) arabera, urtero 16.600 heriotza eta 72.000 ospitaleratze baino gehiago eragiten ditu Europan.

Etsai ikusezin horren aurka –ingurumen-inpaktu handia eta basafaunan ondorio kaltegarriak ere badituen horren aurka– borrokatzea, beraz, gure lehentasunetako bat da. Hiritarrek hots-kutsadura murrizteak duen garrantziaz jabetu behar dute, eta oso garrantzitsua da, halaber, administraziook beharrezko neurriak hartzea zarataren ingurumen-kudeaketa egokia egiteko.

Hori da bizikidetzaren espazio irekien udal-kudeaketa akustikorako jardunbide egokien gida tekniko honen helburua. Gida hau gomendio- eta kontsulta-dokumentu bat da, gure herrialdeko udalekin batera gauzatu dugun partaidetza-prozesuaren emaitza dena; berarekin, modu apalean baina arduratsuan, lagundu egin nahi dugu zaratarekin lotutako udal-kudeaketaren egunerokotasunean sortzen diren arazoei irtenbideak bilatzen.

Argitalpen honen bidez, gure hiri-inguruneetako soinu-kalitatea hobetu nahi dugu, eta, hedaturaz, Bizkaiko herrien kudeaketa jasangarria bultzatu, hartara, gure lurraldea, hemendik aurrera ere, leku ona izan dadin bizi-tzeko eta erabat gozatzeko.

**Amaia Antxustegi Ziarda**

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEZKO FORU-DIPUTATUA



**SARRERA**



Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak ibilbide luzea du udalerriei kutsadura akustikoaren arloan aholkularitza ematen. Nolanahi ere, 2013-2017 epealdian, *"Bizkaiko soinuaren kalitatea hobetzeko estrategia"* abian jartzeko mugarrria izan da. Estrategia horrek jasotzen ditu 5 urte horietan Bizkaiko Foru Aldundiko hainbat sailek zarataren arloan egindako jarduketak.

Epealdi horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak gida tekniko batzuk egin edo eguneratu ditu, honako helburu honekin: Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren esparruan, Bizkaiko udalei beren eskumenak erabiltzen laguntzea:

- Egiturazko plangintzan zarataren kudeaketa integratzeko gida teknikoa: zonakatzeko akustikoa.
- Etorkizuneko garapenetan EAEko kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretua aplikatzeko gida teknikoa.
- Toki administrazioetan ingurumen zarata kudeatzeko gida teknikoa, EAEko kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuan oinarrituta.
- Lokal mugakideei inpaktu akustikoa eragin eta soinua igor diezaieketen bizitegi-lurzoru hiritarreko jarduerak kontrolatzeko gida teknikoa. 213/2012 Dekretua aplikatzeko laguntza.

Gida horiek 213/2012 Dekretuarekin lotura zuzena duten gaiei buruz Bizkaiko udalei jarduteko moduak ematen dizkiete, eta zerikusi handia dute zarata plangintzan sartzearekin, ingurumen zarataren kudeaketarekin eta zarata igortzeko aukera duten jardueren kontrolarekin.

Zarataren legeria autonomikoa udal mailan aplikatzearen osagarri, strategiaren garapenean zehar udalen beste kezka batzuk identifikatu ziren, espazio publikoko bizikidetzari eragiten dioten gai akustikoei lotuta daudenak eta udalaz gaindiko arau esparrurik ez duten berezko eskumen eremuak direnak. Ildo horretan, zenbait udalek gai horietan kudeaketa akustiko eraginkorra egiten badute ere (ordenantzak eta prozedura egokiak dituzte), gida honen garapena aplikagarritzat jotzen da, udal mailetako esperientzien balioa nabarmentzeko, haiek biltzeko eta beste udalerrri batzuetan aplikatzeko aukera errazteko.

Kontu horiek guztiak soinuaren ikuspegi positibo batean sartu nahi ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak. Hala, zarataren ondorio negatiboak ez ezik, soinuaren balio positiboa ere aztertuko da soinu ingurune atsegineko espazio publikoak egon daitezten: alde batetik, jendea elkartzeko duten eginkizuna errazteko, eta bestetik, espazio horiek baliatzen dituzten pertsonen ongizatea eta osasuna hobetzeko leheneratzeko gaitasuna errazteko. Gainera, haien garapena bereziki aplikagarria da, espazio itxiak baino irekiak gehiago erabiltzeko joera handiagoa dagoela ikusi baita, eta espazio publikoaren kalitateak garrantzi handia hartu du; aisialdiko eta bizikidetzako jardueretarako erabiltzen eta okupatzen dira, herritarrentzat hiriguneak elkartzeko eta gozatzeko tokiak baitira.

Gai hori agerian utzi du COVID-19ak eragindako pandemiak, espazio publikoaren beste erabilera eta kontzientzia bat sortu baitu. Distantzia fisikoa gordetzeak eta mugikortasun eta ostalaritzako guneen murrizketek eskatzen dute gertuko espazio publiko irekiak kalitatezkoak izatea, pandemia horren ondorioz, gehiago erabiltzen baitira. Soinu mailan horrek ekarri du, alde batetik, ostalaritzako establezimenduetako edukiera murriztea eta pertsonen arteko distantzia fisikoa handiagoa izatea; hori dela-eta, aire zabaleko espazio publikoak gehiago erabiltzen dira, eta horrek kalitate akustikoa kudeatzeko zailtasun handiagoak sortzen ditu.

Amaitzeko, gida hau eta jadanik aipatukoez gain, azpimarratu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko udalen eskura jarri dituen beste baliabide batzuk dituela, Aldundiaren webgunean topa daitezkeenak. Bizkaiko informazio akustikoaren sistema nabarmendu behar da, eta sistema horrek lurralde horretan dagoen informazio akustikoa biltzen du, honako hauei lotuta: ordenantzak, zarataren aurkako planak, zarata-mapa, zonakatzeak... eta ingurumen hezkuntzako materialak.



**HELBURUA**



Hasitako lanaren azken helburua gida bat egitea da. Gida horrek, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak jadanik egindakoen antzera, udalek beren eskumenak erabiltzeko ga-koak identifikatzeko aukera emango du. Nabarmendu behar da, gida honetan aztertutako alderdiei buruzko mugaz gaindiko araudirik ez dagoenez, azaldutako edukiak ez direla lotesleak, baizik eta udal arduradunei iradokizunak edota gomendioak egiten dizkietela.

ildo horretan, gida honek Bizkaiko udalen interesari erantzuten dioten indar-ideiak aurkezten ditu, eta haietako batzuek dagoeneko ezarri dituzten esperientziak biltzen ditu. Honako hauek dira ideia garrantzitsuenetako batzuk:

- Askotariko eragileak ukitzen eta inplikatzeko dituen arazo horri buruz kontzientziatu behar da: herritarrak, ostalaritzako sektorea edo toki administrazioak, esate baterako.
- Gatazka horiek konpontzea ez da erraza; beraz, denok lagundu behar dugu eta besteekiko enpatia izan.
- Pixkanaka eta etengabe lan egin behar da, etengabe hobetu behar da, ez dago atzera egi-terik.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak 2018 urteaz geroztik egindako lanaren emaitzak aurkezten dira dokumentu honetan, eta, horretarako, Tecnaliak eta Ekoiurek osatutako talde tekniko adituaren aholkularitza jaso da.

Lan hori egiteko, funtsezkoa izan zen Bizkaiko udaletako teknikarien erantzun ona eta ekarpenak arazoak hautemateko eta lanaren edukia eta proposamenak berrikusteko eta alderatzeko faseetan. Ekarpen horiei esker, arazo horiei irtenbide errealistak eman ahal izan zaizkie.

Testu honen helburua da jorratutako gai bakoitzerako indar-ideiak ematea; hala, udalek gai horien kudeaketa akustikorako jarraibideak edo ideiak identifikatu ahalko dituzte, baldin eta beren autonomiaren eta eskumenen baitan, aplikagarriak direla uste badute.





**APLIKATUTAKO  
METODOLOGIAREN  
DESKRIBAPENA**



Aurrez aipatu denez, lehenik eta behin, udal eskumeneko eta arau esparruko gabeziak dituzten jardueren aldagai akustikoaren kudeaketan egon zitezkeen kezka identifikatu ziren. Jarduera horien arautze akustikoa eta operatiboa ordenantza akustikoen edota espazio publikoaren tes-tuinguruan egin ohi da.

Hona hemen identifikatutako gaiak:

- **Espazio publikoaren erabilera eta kutsadura akustikoa:** Bizkaiko udalerrien espazio pu-blikoak estres akustiko handia jasaten du zenbait jarduera mota batzen direlako:
  1. Ostalaritzako jarduerak bide publikoan jarritako terrazak.
  2. Gazteen lonjen eta txokoen kanpoaldeko zarata.
  3. Bide publikoan sortzen den gaueko zarata: kale zurruta, gaueko aisialdiko lokalen kan-poaldeko zarata.
  4. Bide publikoan sortutako eguneko zarata: kaleko musikariak, kirolguneak edo atseden-lekuetako musika ekipoak.
  5. Espazio publikoetan antolatutako ekitaldiak eta megafoniaren erabilera.
  6. Jaiak bide publikoan ospatzearen ondorioz sortutako zarata, bereziki, txosnek eta barra-kek sortutakoa.

Halaber, gai horiekin batera, alderdi hauek sartzea ere interesgarria da:

- **Udal zerbitzuen inpaktu akustikoa:** udalaren garbiketako, hondakin bilketako eta lorezain-tzako zerbitzuek kexa eragin ohi dute herritarren artean.
- **Obrek eragindako kutsadura akustikoa kontrolatzea:** bide publikoko obrak egin beha-reko aldi baterako jarduerak dira, eta inpaktu akustiko handia sortzen dute.

Gai horiek jorratzeko eta arazo horiei aplikatu ahal zaizkien irizpideen definizioan egiteko moduak eta erronkak identifikatzeko, lan hauek egin dira:

1. Gai horiek jorratzen dituzten Bizkaiko ordenantzen azterketa konparatua egitea. Oro har, jorratzen diren gaiak ez daude udalaz gaindiko legerian araututa. Bizkaiko udalerriek gai horiek nola jorratzen dituzten aztertu zen, ondorioak eta gomendioak ateratzeko. Lan horren emaitza dokumentuan aurkeztu da: **“Bizkaiko ordenantzen azterketa konparatua kutsadura akustikoaren ikuspegitik. Gaiak: espazio publikoa, udal zerbitzuak eta obrak”** (2019ko apirila).
2. Udal teknikariek lantergi bat egitea. Lantergia 2019ko apirilaren 10ean egin zen, xede hauekin:
  - c. Gai bakoitzaren gainean diagnostiko partekatua egitea. Haien artean lehentasunak finkatuko dira Bizkaiko Foru Aldundiaren gidaritzapean era koordinatuan jorratu daitezen.
  - d. Arazo horien kudeaketa akustikoan udalek jorratu behar dituzten erronkak identifi-katzea.
  - e. Erronka hauei erantzuteko funtsezkoak diren elementuak aztertzea: esperientziak par-tekatzea eta egiteko modu komunak identifikatzea.

Lantergian egindako lanaren ondorioz, dokumentu bat garatu zen; horren bidez, udalek lehenta-sunezkoztat jotako gaiak identifikatu ahal izan ziren, bizikidetzak jardueretan espazio publikoa erabiltzeari buruzkoak, eta, bidenabar, kanpoan egindako gai guztiak.

Aurrez egindako lanen emaitzekin egin da gida hau; hari esker, gai bakoitza aztertu daiteke arazoa, jorratzeko ikuspegiak eta mahai gainean jarritako erronkak identifikatuz. Gai bakoitzerako proposamenak zehaztasun handiagoz edo txikiagoz egiten dira, haiek zabaltzeko egon daitezkeen kudeaketarako aukeren arabera.

Oro har, aipatutako kudeaketaren egitura hau da:

- Diagnostikoaren prozedura: egoeraren diagnosirako zenbait aukera proposatzen ditu. Abiapuntuak datuak batu behar dira beren garrantzi erlatiboa ebaluatzeko eta erronkak identifikatzeko, inaktuaren errealitatea banakatuta.
- Araudia eta kudeaketa: azterketaren eduki praktikoa eratzeko aukera ematen du, aplikatu daitezkeen tresnak zabaltzen uzten duen arau-testuingurua emanez.
- Aztertze teknika: gai bakoitzean kontuan hartu beharreko funtsezko gaiak zehazten ditu, gaia osorik aztertzeko eta proposatutako kudeaketa mekanismoaren arrakastarako aukerak maximizatzeko.
- Jarraipena eta kontrola egiteko prozedura: mekanismo horiek hedatzea prozesuaren azken pieza da, eta atzeraelikatzen duten datuak ematen ditu, diagnostikoaren, araudi-kudeaketaren eta azterketaren behar berriak identifikatuz; guztia ere jarduera herritarren bizikidetzarekin bateragarri egiteko.

Azkenik, gida honen 6. atalean, zeharkako laguntza baliabideak zehazten dira, gai bakoitzean egindako proposamenekin batera. Hauek dira:

- LB1: KEXAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN PROPOSAMENA: Zaratari lotutako herritarren kexei eta eskariei erantzuteko prozedura zehaztea du xede. Udalaren eta herritarren artean konpromiso hautemangarriak ezartzeko baliozko elementua da.
- LB2: IKUSKAPENEN PROZEDURA: Hainbat motatako ikuskapen akustikoak egiteko metodologia akustikoa deskribatzen du, gai zehatz bakoitzerako eta udalaren baliabideen eskuragarritasunerako pertsonalizagarriak diren metodologiekin neurketak egitea eska dezaketenenak.
- LB3: KUDEAKETARAKO DIAGNOSTIKO AKUSTIKOKO PROIEKTUAK: Aztertutako kasuistakak diagnostikatzeko proiektu akustikoak egitean bete beharreko jarraibide metodologikoak deskribatzen ditu. Lan horiek kanpoko azpikontratazioaren bidez egin daitezkeela onartzen da; izan ere, ez da ohikoa udalek edo mankomunitateek baliabide tekniko espezializatuak izatea.
- LB4: ARAU PROPOSAMENA: Atalak azaltzea, zaratari buruzko berariazko ordenantza idazteko edo osatu beharreko lehendik dagoen ordenantza batean sartzeko.
- LB5: BAIMENA EMATEKO PROPOSAMENA: Zarata foku horietako edozeini lotutako baimen bat izapidetzeko sartu beharreko eduki-proposamena.
- LB6: BITARTEKARITZARAKO JARRAIBIDEAK: Planteamendu horretan, arau proposamena egon edo ez, bizilagunekin eta erabiltzaileekin lankidetzan aritzeko erabakia hartzen da, inaktuak minimizatzeko eta jarduera gauzatzeko.
- LB7: SOINU MAILA HANDIKO EREMUAK: Bizikidetzako guneetan sortutako zarata kudeatzeko udalerrri batzuetan erabiltzen den figura bat da, araudi baten beharra duena.

Gidaren edukiak aurkezteko, haiek bi tipologiaren arabera sailkatzen dira:

- Jarduera iraunkorrak: arduradun egonkorra dutenak dira. Hauek dira: ostalaritzako jardueren kanpoko terrazak, gazteen lokalak eta *txokoak*, bide publikoan sortzen den eguneko edo gaueko zarata, udalaren obrak eta zerbitzuak.



- Unean uneko jarduerak: urtean zehar unean-unean egiten diren jarduerak dira, espazio publikoa behin eta berriz okupatzen ez dutenak edo denboran zehar irauten duen jarduera bati lotuta daudenak. Honako hauek dira: txosnak eta barrakak, bide publikoko ekitaldiak eta megafonia.







# **GAI BAKOITZAREN AZTERKETA**



Jarraian, aipatutako gai bakoitzaren azterketa eranstean da, edozein ingurumen aldagaitan aplikatu daitezkeen kudeaketa eskemari erantzuten dion egitura berarekin. Aldagai bakoitzerako hainbat aukera aurkeztea da helburua; hala, udalak udalerraren xedeari zehatzago egokituko zaiona hautatu ahal du.

Udalaren kudeaketarako aukera gehien dituzten gaietarako, identifikatutako aukerak aipatzen dira. Udal batzuek dagoeneko garatutako gaiekin bat datozen. Beste gai batzuetarako, udalak hainbesteko biderik egin gabe, lanerako proposamen zehatz bat proposatzen da, eta onartzen da, gaiaren egungo egoera kontuan hartuta, aplikazio handienekoa izan daitekeela.

## 4.1. Jarduera iraunkorrak

Jarduera horien ezaugarri komuna da, denborari dagokionez, sustatzaileak urtebete baino gehiago irautea duela egonkor. Ildo horretan, jarduerak berez iraupen laburra izan badezake ere, jarduerak hori jarraibide akustiko batzuen arabera gauzatzearen arduraduna ez da aldatzen.

Egoera horrek eragina du ezarri beharreko konponbideei heldzean; izan ere, baldintzak definitzea, lekualdatzea, ikuskapenak egitea eta kontrol eta zehapeneko jarduerak gauzatzea errazten du, denboran zehar jarraitutako trazabilitatearekin.

### 4.1.1. Ostalaritzako jardueren kanpoko terrazak

Ostalaritzako jardueretako kanpoko terrazaren gaiari heldzean, ostalaritzako jarduerari lotutako aire zabaleko aisialdiko espazioak eta herritarren atsedena bateragarri egiteko beharretik abiatzen da. Terrazek jarduera ekonomiko gisa eta turismoa sustatzeko jarduera gisa duten interesa alde batera utzita, garrantzitsua da nabarmentzea gure kulturaren testuinguruan aisialdirako eta jendea elkartzeko duen eginkizunari zer-nolako ekarpena egiten dion. Gai hori kudeatzeko beste elementu bat hirigunearen erabilera pribatua eta publikoaren arteko oreka izan ohi da, irizpide akustikoak kontuan hartu barik.

Alde akustikoari erreparatuz, hori lotutako arazoa da jarduera hori kanpoko espazioan kokatzen dela, eta ez direla eraginkorrak ostalaritzako lokaletarako tradizionalki ezarritako neurri zuzentzaileak (isolamendu eskakizunetan oinarritutakoak); beste era bateko neurriak eta ostalaritza jardueraren titularraren eta espazio hori erabiltzen duten herritarren beharrezko erantzukizuna eskatzen ditu, eta bizilagunak tartean sar daitezke.

Kontu horrek berez akustikarekin zerikusirik ez badu ere, terrazaren soinuaren kudeaketa baldintzatu dezake terraza mugatzeko instalazio finkoak erabiltzeko orduan. Aukera horrek kontuan hartu beharreko zenbait gai edo baldintza jasotzen ditu. Honako hauek dira:

- Sustatzaileak inbertsio garrantzitsua egin behar du, eta, horren ondorioz, baliteke baimenak urtebetetik gorako maiztasunarekin izapidetu behar izatea amortizatzen.
- Terrazarako espazioa mugatzen dute. Horrenbestez, errazagoa da mahai eta aulkien kopurua betetzen dela kontrolatzea, eta irisgarritasuna zein pasabidea bermatuko dira.
- Espaloiak mantentzeko eta hiria garbitzeko prozesua zailtzen dute, eta beharrezkoa da terrazaren sustatzailearen koordinazioa eta erantzunkidetasuna.
- Kasu jakin batzuetan, espazio publikoan oinezkoak behar bezala mugitzeko aukerarik ez izatea eragin dezakete.

## 4.1.1.1. Diagnostikoa egiteko prozedura

Planteamendua	Emaitzak	Baliabideak	Aldekoak	Kontrakoak
<b>Inbentarioa: kokapena eta kale motaren tipologiak, aulki eta instalazio kopurua</b>	Kokapenen irudikapen grafikoa, elementu mota eta kopurua. Hainbat tipologiatako terraza gehien dituzten eremuen azterketa	Langileak: ikuskatzaileak eta informatikariak. Kostua: ertaina Tresnak: GIS	Terrazei buruzko hainbat azterketarako oinarri dira (ez soilik akustikoa).	Inpaktuaren aurreikuspena zehazteko ekintzak egin behar dira, informazioa bizilagunen kopuruarekin, kale motarekin eta eraikinen urtearekin gurutzatuz (fatxaden isolamendua kalkulatzeko).
<b>Ikuskapenak</b>	Terrazak funtzionatzeko baldintzak jatorrizko lekuan aldizka berrikustea. Ikusizko jarduketak neurketa akustikoekin nahastu daitezke.	Langileak: ikuskatzaileak Kostua: txikia Tresnak: ikusizko bisitak eta berrikuspenak akta betez.	Jardueraren benetako egoera batean terrazen egoera egiaztatzeak aukera ematen dute	Aldizkakotasun bat behar da lortutako informazioak terrazen errealitatea behar bezala adierazi dezan.
<b>Neurketa akustikoen kanpaina: unean- unekoak edo erregistro jarraituak</b>	Terrazen jarduerak sortutako zarata maila, eremuen arabera	Langileak: akustikako ezagutzak dituzten ikuskatzaileak Kostua: handia Tresnak: sonometroak	Terrazen inpaktu akustikoaren informazio zuzena ematen du. Azterketa zehatz bat eginez, terraza bakoitzak zenbaterainoko zarata ateratzen duen jakin ahalko zen	Adierazgarritasun maila neurketa kanpainen iraupenaren, neurketa puntuen kokapenaren eta bestelakoen arabera da.
<b>Herritarrentzako galderak</b>	Gai horri buruz biztanleek emandako erantzuna, eremuka. Inpaktuaren balorazio zuzena da, eragozpen mailari lotuta.	Langileak: hautemate azterlanetako adituak Kostua: handia Tresnak: galdetegiak	Gaiari lotutako beste kontu batzuei buruz galdetzeko aukera. Funtsezkoak diren pertsonen behar bezala egituratuta egindako elkarrizketekin nahastu daiteke.	Garrantzitsua da laginari erreparatzea, galdetegiak emaitzen adierazgarritasun maila ziurtatzeko.
<b>Kexen azterketa</b>	Gatazka sozial handieneko eremuak eta terrazak identifikatzea	Langileak: teknikariak Kostua: txikia Tresnak: gai honi lotuta, zerbitzu estandarrek jasotako kexak berrikustea	Herritarren erantzun zuzenak zehazten ditu lehentasunak	Baliteke joera bat egotea erantzun motan, eremuak eta lehentasunezko jarduketak identifikatzeari dagokionez. Horretan oinarritutako erantzunak kexak beste eremu batzuetara zabaldu dezakete.



#### 4.1.1.2. Teknikoki aztertzea

Jarraian, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan ezarritako ordutegiak jasotzen ditugu. Dekretu horren bidez, ostalaritzako jardueretan aplikatzekoa den jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen da, udal araudi murriztaileagorik edo zehatzagorik ez dagoenean.

	OROKORRA (32.2 ART.)	Joko	ORDUTEGIAK AREAGOTZEA (32.8 ART.)
ORDUTEGIAK (32. ART.)	Ikuskizunak eta jolas jarduerak I. multzoa: 23:00etan. II. multzoa: 1:00ean. III. multzoa: 2:30ean. IV. multzoa: 4:30ean.	establezimenduak II. multzoa: 1:00ean. III. multzoa: 3:30ean. IV. multzoa: 4:30ean.	Orduak metatuta A) Ordu eta erdi ostiral, larunbat eta jai bezperetan. B) Ordu erdi ekainaren 1etik irailaren 30era C) Bi ordu, gehienez, udalaren baimen bakoitzeko, dekretu honen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.
HASIERA (34. ART.)	06:00etan, sektoreko araudiak edo administrazio baimenak salbu Lokaletarako edo III. eta IV. multzoetan sartutako jardueretarako ezarritako ixteko edo amaitzeko ordutegiaren (benetan egin ahal ez) eta irekitzeko edo hasteko ordutegiaren artean gutxienez hiru ordu igaro behar dira.		
KANPOKO KONTSUMOA (35. ART.)	1. Debekatuta dago lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea 23:00etatik aurrera, ordutegia luzatu ezean. Nolanahi ere, udal bakoitzak mugak jar ditzake dagokion ordenantza baliatuz. 2. Terrazetan edo antzekoetan, gaitzen duten tituluak ezarritakoa.		
ORDUTEGIA LUZATZEA (37. ART.)	Udal agintariak aurreikusitako ixteko ordutegia bi orduz luzatu ahalko dute, gehienez ere, honako ekitaldi hauetarako: – Jaietako ekitaldiak edo turismo interesekoak – Herriko jaiak – Aste Santuan, ostegunetik astelehenera; inauterietan, ostegunetik asteartera; Eguberrietan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra. Udalek, gainera, ordutegi orokorra gehienez bi orduz luzatu ahalko dute, muga honekin: urte natural bakoitzeko, gehienez hamabost egun.		
ORDUTEGIA MURRIZTEA (38. ART.)	1. Udalek ordutegi espezifiko murriztua ezarri ahal izango dute establezimendu jakin batzuei oro har aplikatzen zaienaren aldean, funtzionamenduaren ezaugarriak edo ospitaleekiko edo haurrentzako edo adinekoentzako egoitza-ekipamenduekiko distantziak hala justifikatzen dutenean. 2. Ordutegia murrizteko beharra establezimendua abian jarri izanaren ondorioz sortzen bada, udalak ebazpena eman beharko du behar bezala arrazoituta, kontraesaneko espedientea izapidetu ostean. 3. Hori guztia udalak ordutegiari lotuta jar ditzakeen beste murrizketa batzuk alde batera utzi gabe, ingurumen kutsaduran eta akustikoan dagoen araudia betez.		

Planteamendua	Aplikazioa	Adibideak
<b>Ordutegiak</b>	<p>Erabilgarritasun handiko kontrol aldagaia.</p> <p>Terrazaren funtzionamendu ordutegia jardueraren araberakoa izango da (gehienez).</p> <p>Urteko garaian, lanegunen, jai bezperen, jaiegunen eta ekitaldi aipagarrienen arabera malgututako ordutegien kudeaketarekin.</p> <p>Terraza jartzeko eta kentzeko ordutegi espezifikoak.</p>	<p>Taula honetan, udal ordenantzetan bereziki jasotako ordutegiak biltzen ditugu; nolana ere, ikuskizun publikoei buruzko araudian kontuan hartu behar dira (aurreko taulan jasoa).</p> <p>Irekiera: 08:30 eta 09:00k artean. Zamalanen ostean egingo da beti, baldin eta terraza ezaugarri horiek dituen eremu batean badago.</p> <p>Itxiera: inoiz ez lokalaren ordutegitik kanpo.</p> <p>Neguan, lanegunetan: 22:00etan</p> <p>Neguan, ostiral, larunbat edo jai bezperan: 23:00etan.</p> <p>Udan, lanegunetan: 23:00etan.</p> <p>Udan, ostiral, larunbat edo jai bezperan: 24:00etan.</p> <p>Herriko jaietan eta garrantzi berezikoetan: udako ordutegia bezala + 1h</p> <p>Ordutegi horretatik kanpo, baldintza bereziak baimendu daitezke.</p> <p>Instalazioa kentzeko 20/30 minutu daude.</p>
<b>Instalazioen egokitzapena eta jardueraren baldintzak ezartzea</b>	<p>Edukiera eta azalera mugatzea.</p> <p>Terrazako elementuak eta instalazioak egokitzea inpaktu akustikoa murrizte aldera.</p> <p>Jarduera egiteko orduan, terrazako jabeek jardunbide egokiak dituztela zaintzea.</p> <p>Terrazako erabiltzaileek egiten duten jardueran jabeak bertan parte hartzea.</p>	<p>Terrazaren funtzionamenduari eta erabilerari buruzko zaraten ordenantzan xedatutakoa betetzea.</p> <p>Terrazako mahaiek, aulkiek eta beste elementu osagarriek zarata eragozteko babes elementuak izango dituzte jarduera egiten denean sortutako eragozpenak murrizteko. Altzari guztiek gomazko elementuak izango dituzte, euskarri guztiak bilduko dituztenak, kanpoaldean hartzen dituzten kolpeengatik eta arrastaka eramateagatik zaratarik atera ez dezaten.</p> <p>Jardueraren titularra da inguruko bizilagunei zaratarik eta eragozpenik ez eragitearen erantzule, eta okupatutako eremua egoki erabiliko du.</p> <p>Terrazako elementuak jartzeko eta kentzeko lanak ahalik eta inpaktu akustiko txikiena eraginez egingo dira.</p> <p>Lokalaren jabeak zainduko du erabiltzaileen jarduera eta inguruko bizikidetzaren bateragarriak izan daitezen.</p> <p>Ildo horretan, terrazek, jarduera gisa, Kalitate Akustikoko Helburuak betetzen direla zaindu beharko dute, ingurumen arloko beste zarata foku batzuekin batera.</p> <p>Horrez gain, 213/2012 Dekretuaren zioen azalpenean zehazten denez, Kalitate Akustikoaren Helburuak pixkanaka bete ahal izango dira, eta horiek idatzi dituen pertsonak edo erakundeak definitu eta lehenetsitako ekintza planak ezartzeari lotu ahal izango zaizkio.</p>



Planteamendua	Aplikazioa	Adibideak
<b>Jardueraren zarata mailak mugatzea</b>	Zarata maila mugatzea lan konplexua da. Lokalak ez du ikus-entzunezko elementuen erreprodukzioarako elementurik jarri behar kanpoan edo kanpoaldera begira (terrazatik ikusteko/entzuteko moduan). Terrazaren ordutegian lokalaren baldintza akustikoak betetzen direla bermatu behar da, ate bikoitza automatikoki itxita, haize-babeserako atari bat sortuz, terrazaren funtzionamendua barruan musikarik ez dagoen uneetara mugatzea, edo musika ekipoak barne hartzen dituen lizentziarik ez duten lokalei baimena ematea	Terrazan, debekatuta dago irudiak edota musika erreproduzitzeko aparatuak jartzea, hala nola musika ekipoak, bozgorailuak, telebistak edo beste edozein motakoak (ekipamendu informatikoak, karaokeak...). Musika ekipoa izateko eta mahai hankabakarrak jartzeko baimena duten establezimenduek kanpoalderako soinu-immisioko baldintzak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute, edo ezingo dute ekipoa erabili mahai hankabakarrak eta aulkiak instalatuta dauden bitartean.
<b>Bitartekaritza</b>	Bizilagunak ukitzen dituzten tipologia guztiak aztertu nahi dira, esaterako: garbitasuna, etxebizitzarako sarbideak... Jardueraren arduradunekin lankidetzan aritzea, erabiltzaileak kontzientziatzeko eta jardunbide egokiak aplikatzeko kanpainak egiteko.	Bitartekaritzaren bidez, jardueraren arduradunengana hurbildu behar da, inpaktu akustikoa sortzeko arloan autorregulaziorako konpromisoen akordioa finkatzeko. Jarduerak eragindako edo gogaitutako herritarren aldeko jokabidea edo baimena ere behar da. Zenbaitetan, haien autoebaluaziorako eta kontrolerako tresnak ematen dira. Baimenen bidezko erregulazioa barne hartzen du, bai eta hainbat aldagaiekiko jarduera baldintzatzen utziko duen araudia ere.

#### 4.1.1.3. Jarraipena eta kontrola

Planteamendua	Aplikazioa	Egoera honekin bat dator
<b>Ikuskapenak</b>	Baliagarria da jarduera gauzatzeko baldintzak lizentziarekin eta baimenekin bat datozen zehazteko.	Edozein diagnostiko motarekin bat dator (batez ere inbentarioarekin), eta erabilgarria da disuasio-ikuspegitik ere, terrazetako jarduera garatzen duenarekin zerikusia duen horretan.
<b>Neurketa akustikoen kanpaina: unean-uneakoak edo erregistro jarraituak</b>	Baliagarria da kanpoaldeko terrazan jardueraren jokabide akustikoa zein den jakiteko. Ez da baliagarria, baina, terraza bakoitzaren ekarpena zehazteko eta beste zarata foku batzuetatik bereizteko.	Neurketetan oinarritutako diagnostikoaren prozedurarekin bat eginda. Kontzientzia elementu gisa ere baliagarria izan daiteke, eta berariazko jarduketan eraginkortasun praktikoa egiaztatzeke (zarata mailari lotuta). Horrez gain, ordutegiak egiaztatzeke aukera ematen du, bai eta jokabide akustiko gogaikarriak identifikatzeko ere, terrazak itxi ondoren.
<b>Herritarrentzako galderak</b>	Baliagarria da eragozpenaren bilakaera nolakoa den jakiteko eta eragozpen hori murrizteko funtsezko faktoreak zehazteko.	Herritarrentzako galdetegietan oinarritutako diagnostikoaren prozedurarekin bat eginda. Herritarrentzat gogaikarrienak diren alderdiak azpimarratzen uzten du, bai eta zarataren alderdi osagarriak identifikatzen ere, gai hori modu integral batean jorratzeko.
<b>Rexen azterketa</b>	Baliagarria da hori adierazten duten herritarren eragozpenaren ebaluazioa aztertzeke.	Rexen azterketan oinarritutako diagnostikoaren prozedurarekin bat eginda.

#### 4.1.1.4. Araudia eta kudeaketa

Alor hau arautu duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri gehienak ordutegia, altzariak arautu dituzte, eta kasu batzuetan, debekatu egin dute kanpora begira dauden soinu aparatu erreproduzitaileak jartzea.

Terrazek, instalazio finkoak dituztenak barne, ez dute paramentu isolatzaileerik; beraz, haiek okupatzen dituzten pertsonen maila bera igortzen dute kanpora.

Nolanahi ere, terraza horien eragozpen maila asko aldatzen da hari lotutako inguruabarren arabera. Honako hauek izan daitezke:

1. Kokapena: bizitegi zonan edo ez, eremu zabaletan edo kale estuetan.
2. Terrazaren ahalmena: mahaien kopuruari eta erabiltzaileek espazio publikoa okupatzeko duten aukerari dagokienez.
3. Terrazak pilatzea: terrazak bi espaloietan edo oinezkoentzako eremu guztian.
4. Ordutegia <sup>(1)</sup>

(<sup>1</sup>) Terrazen ordutegiari dagokionez, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak ezarritako mugak kontuan hartu behar dira, gainera. Haren bidez, ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren legea garatzen duen erregelamendua onartzen da.

*“35. artikulua: Lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea.*

1. *Debekatuta dago lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea 23: 00etatik aurrera, 32.8 artikuluan aurreikusitako ordutegi orokorraren luzapenei kalterik egin gabe. Hala ere, udal bakoitzak muga handiagoak ezar ditzake ordenantzen bidez.*
2. *Terrazen edo antzekoetan, ixteko ordutegia gaikuntza-tituluan jasotakoa izango da, tokiko ordenantzek xedatzen dutenaren arabera. Berariaz horrela ezartzen ez bada, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.*
3. *Establezimenduetako titularrek eragotzi egingo dute, aipatutako arauetatik ondorioztatzen den ordutik aurrera, erabiltzaileek edariak lokaletik kanpo ateratzea, erabiltzaile horiek hori egiteko izan dezaketen erantzukizuna edozein izanda ere.*

*32.8 artikulua: Establezimenduak ixteko eta beste ikuskizun edo jarduera batzuk amaitzeko ordutegi orokorra **metatu** egingo da honako kasu hauetan:*

- a) *Ordu eta erdi ostiral, larunbat eta jai bezperetan.*
- b) *Ordu erdi ekainaren 1etik irailaren 30era.*
- c) *Bi ordu, gehienez, udalaren baimen bakoitzeko, dekretu honen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*37. artikulua- Ordutegia luzatzea.*

1. *Udal agintariek aurreikusitako ixteko ordutegia bi orduz luzatu ahal dute, gehienez ere, honako ekitaldi hauetarako:*
  - a) *Udalak berak edo autonomia erkidegoko organo eskudunak jaiegun edo turismo interes gisa kalifikatutako ekitaldiak, hala nola ospakizun publikoak, auzoetako jaiak, gizarte edo azoka izaerako gertaerak, lehiaketak, erakusketak edo antzekoak, gehienez ere hamabost egun urte natural bakoitzeko.*
  - b) *Herriko jaiak. Udal bakoitzak bere udal mugartean ofizialki ezarritako jaiak izango dira.*
  - c) *Aste Santuan, ostegunetik astelehenera; inauterietan, ostegunetik asteartera; Eguberrietan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra.*
2. *Aurreko paragrafoan ezarritako alde batera utzi gabe, **udalek, halaber, ordutegi orokorra luzatu ahal izango dute, gehienez ere bi orduz, urte natural bakoitzeko hamabost eguneko gehieneko mugarekin**, artikulua honen 1. paragrafoko a) letran jasotakoan antzeko ekitaldiei buruzko salbuespenezko eta ezohiko inguruabarren arabera.*
3. *Auzoetako jaien edo udal mugartean zehaztutako lurralde eremu bati mugatutako bestelako ospakizunetan, udalak erabaki ahal izango du ordutegi berezia udalerraren lurralde eremu jakin horri dagokiola.*
4. *Ordutegiak luzatzeko prozedura ofizioz hasi ahal izango da, edo establezimenduen titularrek edo haien interesak biltzen dituzten enpresa elkarteek eskatu ahal izango dute.*  
*Artikulu honen 1. paragrafoko kasuetan ordutegiak luzatzeko prozedura alderdi batek eskatuta hasten denean, ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hilabete izango da.*



5. Altzariak: ostalaritzako altzariak bilakaera bat izan dute: aire zabaleko barrak eta upelak ezarri dira, espazio publikoaz gozatzen den bitartean edariak uzteko, baina terraza baimenen barruan sartzen ez direnak; lokalak atzera eman dira, eremu pribatuetan terrazak jartzeko, lokalaren isolamendu akustikoak minimizatu gabeko igorpen akustikoko fokuko berriak baitira. Ostalaritzako altzari berri horiek ez dira sartzen terrazaren baimenean, eta irisgarritasun arazoak sortu ditzake; hala ere, ostalaritza establezimenduko kontsumitzaileen antolaketa errazten du.

Hortaz, administrazio ikuspegi batetik jorratu behar izatea inguruabar horien mende egon daiteke.

Kasuan kasuko udalerraren arabera, beharrezkoa izan daiteke terrazaren jarduerarako araudi ezberdinak dituzten eremuak ezartzea. Hau da, agian komeni da terrazak gehiago pilotzeko eremuak ezartzea (alde zaharrak, turismoko eremuak eta abar), beste neurri batzuk behar dituztenak; pilotze horren ondorioz, hain zuzen, beste erregulazio bat behar dute.

Terrazaren jarduera hiriei bizitza emateko, bizilagunen aisialdirako eta turismoa sustatzeko (EAEko barne produktu gordinen gero eta garrantzi handiagoa duen sektorea) ezinbestekoa dela uste dugu. Hori dela eta, herritarren atsedena eta espazio publikoaren erabilera aipatutako jarduerarekin bateragarri egiteko neurriak ezarri behar ditugu.

Azaldu dugun moduan, terrazari lotutako arazo akustikoari hainbat tresnarekin aurre egin daiteke: arautzaile hutsetatik hasi eta norbanakoaren nahiz kolektiboaren baimena lortzeko administrazio egintzari lotutakoak baliatuz.

Nolanahi ere, neurri hauek kontuan hartu beharko dituzte:

- Kokapena: udalerrira zonakatzea, terrazak jartzeko eta pilotzeko aukera dagoen eremuak ezartzeko, eta baita terrazak jartzea komeni ez den eremuak ezartzeko ere.

---

*Artikulu honen 2. paragrafoan aipatutako kasuetan, luzapena eskatzen den eguna baino gutxienez hamar egun lehenago aurkeztu behar da eskabidea, eta luzatzeko eskaeraren berriazko ebazpena indarrean jartzeko eskatutako eguna baino 72 ordu lehenago eman eta jakinarazi behar da. Ebazpena jakinarazi gabe igarotzen bada epea, interesdunak eskaera baietsizat jo ahal izango du.*

5. *Ordutegiak luzatzeko udalaren ebazpenak lokalei neurri zuzentzaile bereziak ezartzea eska dezake, hala nola gehiegizko zarata edo bibrazio maila kontrolatzeko, arintzeko edo ezabatze gailuak instalatzeko betebeharra. Baimena ematen duen ebazpena herritarrei jakinaraziko zaie, eta ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari helaraziko zaio.*
  6. *Udalak baimendutako lokalen kanpoko terrazaren edo antzekoen ordutegia udalak instalazio horietarako ezarritakoa izango da, betiere dekretu honetan ezarritako mugen barruan.*
  7. *Herriko edo auzoko jaietan, udalek gehieneko soinu maila onargarriak ezarri ahal izango dituzte txosna herrikoien eta establezimenduen kanpoko megafonian, kasuan kasuko orduaren eta eremuaren arabera. Halaber, udalek aukera izango dute jarduerekin jarraitzeko soinurik edo megafoniarik gabe.*
38. artikulua: *Ordutegia murriztea.*
1. *Udalek ordutegi espezifiko murriztua ezarri ahal izango dute establezimendu jakin batzuei oro har aplikatzen zaientzaren aldean, funtzionamenduaren ezaugarriak edo ospitaleekiko edo haurrentzako edo adinekoentzako egoitza ekipamenduekiko distantziak hala justifikatzen dutenean.*
  2. *Ordutegia murrizteko beharra establezimendua abian jarri izanaren ondorioz sortzen bada, udalak ebazpena eman beharko du behar bezala arrazoituta, kontraesaneko espedientea izapidetu ostean.*
  3. *Hori guztia udalak ordutegiari lotuta jar ditzakeen beste murrizketa batzuk alde batera utzi gabe, ingurumen kutsadura eta akustikoan dagoen araudia betez..”*

- Ordu-tegiak: neguan eta udan ordu-tegi desberdinak ezarriko dira, eta gauza bera lanegunetan edo jai bezperetan eta jaiegunetan.
- Edukiera eta azalera mugatzea: testuinguru honetan, hainbat irizpide aplikatu daiteke, esate baterako:
  - Terrazaren tamainak jarduera nagusiarekiko proportzioa gorde behar du.
  - Jende asko biltzen den eta ostalaritzako lokal ugari dauden eremuetan terrazak ez dira pilatu behar.
  - Altzariak azalera okupatua kontrolatzeko erabiliko dira haiek finkatuz edo mugatzeko erabiliz (itxiturak).
- Altzariak: inpaktu akustikoa minimizatzen duena eta erretiratzeko denbora jardueraren aurreko edo ondorengo minutuetara mugatzen duena sustatzea. Terrazaren baimenetan jasotzea espazio publikoa modu erdi iraunkorrean erabiliko dituzten altzari berriak, apal edo upel motak.
- Jarraipena eta kontrola egiteko prozedura: terraza edo mahai hankabakarretik gertuen dagoen etxebizitza-erakinaren fatxadatik 1,5 metrora jarri behar dira, eta, nolana ere, salaketak jar ditzaketen eraikinetan, terrazaren mugetatik 1,5 metrora jarri beharrean.

Kasu horietan, egoera horiek sortu ditzaketen eragozpenak/kexak arintzen lagundu dezaketen zenbait tresna proposatzen ditugu (Ikus 6. atala)

#### 4.1.2. Gazteen lokalak eta txokoak

Aisialdia eboluzionatzen ari da eta, harekin batera, kutsadura akustikoari lotutako arazoak. Atal honetan, aldatu egin diren bi egoera jorratzen ditugu: alde batetik, merkataritza jarduerarik ez dagoen bizitegi eraikinetako etxabeetan gazteen lonjak agertzea, eta, bestetik, bazkide pribatuek soilik erabiltzen dituzten txokoen edo elkarte gastronomikoen bilakaera, familia edo gizarte mailako ekitaldiak egiteko alokatzen diren lokaletan. Nolanahi ere, txokoak ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuaren (bizitegitarako hiri-lurzoruan ezarri beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzeko arau tekniko orokorrak) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren aplikazio-eremuaren barruan daude, jarduera sailkatuak arautzeari dagokionez.

Bestalde, gazteen lokalei dagokienez, udalerrien arautegietan hainbat kasuistika aurki ditzakegu, eta egokia da jarduera sailkatu gisa sailkatzea. Nolanahi ere, gida honek kanpoko ingurunean sortzen den zaratan du bere esparrua, eta, beraz, arazo horrekin lotutako lokal horien alderdian baino ez dugu arreta jarriko.



#### 4.1.2.1. Diagnostikoa egiteko prozedura

Planteamendua	Emaitzak	Baliabideak	Aldekoak	Kontrakoak
<b>Inbentarioa: tipologiak eta kokapenak</b>	Lonjek eta txokoek duten kokapenen irudikapen grafikoa	Langileak: ikuskatzaileak eta informatikariak. Kostua: ertaina. Tresnak: GIS.	Informazio osagarria eta espaziala ematen du, kasuistikak eremuka izan duen bilakaera errazago aztertzeko.	Haren garapenaren ahalegina baloratu beharko da, etengabeko mantentze-lana eskatzen baitu; izan ere, inbentarioaren indarraldia oso mugatua izango da, mota horretako establezimenduen aldakortasunagatik.
<b>Ikuskapenak</b>	Funtzionatzeko baldintzak jatorrizko lekuan berrikustea: ikus-entzunezko ekipoen baldintzak.	Langileak: ikuskatzaileak. Kostua: txikia. Tresnak: ikusizko bititak eta berrikuspenak akta betez.	Jardueraren benetako egoera bat egiaztatzeak aukera ematen dute, eta, gainera, beste gai batzuen egoera egiaztatzen laguntzen dute, hala nola segurtasuna edo higiene baldintzak betetzea.	Aldizkakotasun bat behar da lortutako informazioak bere funtzionamenduaren errealitatea behar bezala adierazi dezan.
<b>Neurketa akustikoen kanpaina kanpoaldean</b>	Helburu bikoitza izan dezakete: lokalaren egokitzapena zehaztea horrelako jarduerak hartzeko, eta lokalaren erabiltzaileek egindako jardueraren ondorioz lokaletik kanpo sortutako zarata mailak aztertzea.	Langileak: akustikan adituak Kostua: handia ( dena den, lokalaren baldintza akustikoak betetzea jardueraren sustatzaileak bere gain hartu beharko zuela onartzen da) Tresnak: sonometroak	Informazio garrantzitsua ematen du, jarduera egiteko aukera ematea egokia den zehazteko, eta jakiteko barne jokabideak bide publikora zabaltzen den, eta gai horri lotutako neurri zuzentzaileak edo zehapenak ezartzeko.	Kanpoaldean neurketak egiteak kostu bat du, hori, agian, lortutako etekinak ez du justifikatzen, eta kontrolatzeko beste bide batzuk aztertu daitezke; izan ere, espazio publikoko erabiltzaileak, kasu honetan, lokalaren erabilerari lotuta daude zuzen-zuzenean.
<b>Kexen azterketa</b>	Gatazka soziala eragiten duten lokalen identifikazio erreaktiboa (lonjak edo txokoak)	Langileak: ikuskatzaileak. Kostua: txikia. Tresnak: gai honi lotuta, zerbitzu estandarrek jasotako kexak berrikustea.	Herritarren erantzun zuzenak zehazten ditu lehentasunak.	Baliteke joera bat egotea erantzun motan, eremuak eta lehentasunezko jarduketak identifikatzeari dagokionez. Horretan oinarritutako erantzunak kexak beste eremu batzuetara zabaldu dezakete.

## 4.1.2.2. Teknikoki aztertzea

Planteamendua	Aplikazioa	Adibideak
<b>Ordutegia</b>		Funtzionamenduaren ordutegia 22: 00etatik 24: 00etara da, eta ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan 30 minutu eta ordu bat artean luzatzeko aukera dago. Zenbait kasutan, jai garaietan ordutegi zabalagoak baimentzen dira.
<b>Kokapena</b>	Lokalak hain sentikorrek ez diren hiri inguruneetara aldatzea.	Erabilera espezifiko horretarako lokalen zuzkidura sustatzea bizitegi erabileraz besteko lurzoruetan edo eraikin sentikorretatik urrun dauden eraikuntza zehatzetan.
<b>Instalazioen egokitzapena eta jardueraren baldintzak ezartzea</b>	Gomendio orokorrak: zarata igorleak kokatzea, abestiek, txistuek, oihuek eta abarrek sortutako zaratak saihestea; kanpoan jende pilaketarik ez izatea; kontuz ibiltzea jendea sartu eta ateratzearen ondoriozko zaratekin.	Soinurik ateratzen ez duen –argi seinalea baizik– txirrin edo mailuko bat jarriko da.
<b>Jardueraren zarata mailak mugatzea</b>	Lokala jarduerari eskatzen zaien baldintzetara egokitu behar da, lokalaren egokitzapenari eta araudia betetzeari dagokionez (isolamendua, ateak, igorpena mugatzea).	Arauekin eta baimenekin lan egiteko modu proaktiboaren osagarria. Eraikinen barruan zarata mailak bete beharra ere sartzen da, lonja eta txokoak ostalaritzako jarduerekin parekatuz. Era berean, lokala egokitzea ere eskatzen zaie; hala, igorpen maila jakin bat bere gain hartuko dute edo audio erreproduzitzailari mugagailu bat jartzeko betebeharra ere.
<b>Kexak</b>	Kexa eta salaketak.	Kexa zehatz bakoitzari erantzutea kexak kudeatzeko jarraibideak aplikatuz
<b>Bitartekaritza</b>	Bitartekaritza, lokaletako erabiltzaileak kontzientziatzeko kanpainak	Bitartekaritzaren bidez, erabiltzaileengana gerturatu behar da, inpaktu akustikoa sortzeko arloan autorregulaziorako konpromisoen akordioa finkatzeko. Zenbaitetan, haien autoebaluaziorako eta kontrolerako tresnak ematen dira. Baimenen bidezko erregulazioa barne hartzen du, bai eta hainbat aldagaiekiko jarduera baldintzatzen utziko duen araudia ere.



### 4.1.2.3. Jarraipena eta kontrola

Planteamendua	Aplikazioa	Egoera honekin bat dator
<b>Ikuskapenak</b>	Baliagarria da jarduera gauzatzeko baldintzak lizentziarekin eta baimenekin bat datozen zehazteko.	Osagai proaktiboari lotuta, erabat. Horrez gain, jardueren jarraipena egiteko aukera ematen du, eta jasotzen duenari jakinarazten dio kontrol mekanismo batzuk badirela, baldintzak betetzearen ardura hartzeko.
<b>Neurketa akustikoen kanpaina lokalen barnealdean, aplikagarria bada</b>	Baliagarria da jardueraren jokabide akustikoa zein den jakiteko. Jardueraren barnealdean ekipoak jar daitezke; ekipo horiek mailak erregistratzeaz gain, jarduera modu arduratsuan egiteko kontzientzia zabaltzea izango dute xede.	Edozein diagnostikorekin bat dator, baina bereziki interesgarria da lokalaren egokitzapen akustikoko baldintzei lotzen bazaie. Aztertze proaktiboago baten zati da, bitartekaritza izaera duena.
<b>Kexen azterketa</b>	Baliagarria da hori adierazten duten herritarren eragozpenaren ebaluzioa aztertzeko	Tradizionalki planteamendu erreaktibo bati lotutakoa, gatazka-maila handiena sortzen duten jardueretara mugatutako jarduera bat errazten du.

### 4.1.2.4. Araudia eta kudeaketa

Udal gutxik arautu dituzte gazteen lonjak eta helduen *txokoak*. Jarduketa gehienak egin dira gomendioen edo jardunbide egokien berri emateko. Nolanahi ere, gai horretan arauak jarri dituzten udalek murrizketa hauen aldekoak dira:

#### Gazteen lokaletarako eta *txoko*etarako ordutegiak:

Funtzionamenduaren ordutegia 22:00etatik 24:00etara da, eta ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan 30 minutu eta ordu bat artean luzatzeko aukera dago. Zenbait kasutan, jai garaietan ordutegi zabalagoak baimentzen dira.

#### Gazteen lokaletarako eta *txoko*etarako zarata baldintzak:

Ordenantza batzuetan, jarduera edo zentro kulturalen lokalekin parekatzen dira, eta, beraz, horrek 35 eta 25 dBA etxebizitzetako logeletara egunez eta gauez, hurrenez hurren, transmititutako zarataren muga-balioak eskatzen dizkie. Gainera, barruan, gehienez ere, 75 eta 60 dBA arteko immisio maila arautzen da normalean, eta hori kontrolatzeko mugagailu bat jar daiteke. Zenbaitetan, lokalaren barnean maila hori gainditzeko aukera ematen da, baldin eta isolamendu akustikoa badu.

Bestalde, ordenantza horiek zenbait gomendio orokor jasotzen dituzte ere:

- Telebistak, musika aparatuak, bozgorailuak eta antzekoak ate eta leihoetatik urrun egotea.
- Abestiek, txistuek, oihuek eta bestelakoek eragindako zaratak saihestea.
- Lokaleko jarduerak barnean egin beharko dira, inoiz ez kanpoan edo inguruan. Hala, kanpoan edo lokalaren inguruan jende pilaketarik ez da egongo. Atsedean hartzeko eskubidea bermatu behar da. 22:00etatik aurrera, lokalaren sarreran gazteak pilatzea debekatu egingo da.
- Lokalaren sarreran motordun ibilgailuek soinu gehiegi atera ez dezaten ahaleginduko da.
- Pertsonak sartzean eta irtetean sortutako zaratarekin kontu handia izan beharko da.
- Ateak, leihoak edo pertsianak behar dena baino gehiago ez dira zabalduko, eta beharrezkoak ez diren zarata mota guztiak ekidingo dira.
- Soinurik ateratzen ez duen –argi seinalea baizik– txirrin edo mailuko bat jarriko da.

Nolanahi ere, aztertutako ordenantza gehienek jasotzen dute kasu batzuetan zarata eta eragozpena ez sortzeko debekua, eta zenbait baldintza eskatuko zaizkie, hala nola isolamendua, musika aparatuetarako mugagailuak, ordutegi mugak...

Gazteen lokal horien erabiltzaileak adingabeak edo gazteak direla aintzat hartuta, ordenantza gehienetan jasotzen da gatazkak konpontzeko bitartekaritza prozesu bat, udaleko langileek edo bizilagunek beraiek osatutakoa; horrez gain, zigorrak beste modu batean betetzea ere jasotzen du, komunitatearen mesedetan lanak eginez, hain zuzen.

Zigortzea baino, hezkuntza helburu handiagoa duten puntuen sistemak eta beste metodo batzuk ezartzen dira. Horren adibide da Derioko udallerria.

Kontuan hartu behar dugu, gainera, *txokoei* buruzko arazoa aldatu egin dela. Ildo horretan, tradizioz *txokoak* bazkide finkoek osatutako elkarteak ziren, eta lokala ospakizun gastronomikoetarako erabiltzen zituzten sarri askotan, baina jabeen erkidegoarekin harreman iraunkorra izaten zuten; horren ondorioz, gehienetan, errespetuzko eta tolerantziatzko harremana nagusitzen zen. Hala ere, gaur egun *txoko* asko urtebetetzeak, jaunartzeak edo beste ospakizun batzuetarako alokatzen dira. Jende asko biltzen da haietan, baina jatetxe bat baino merkeagoa da. Horren ondorioz, lokalaren erabilera aldatu egin da, jabeen erkidegoarekin ez dago harreman iraunkorrik eta, zenbaitean, igorpen akustikoaren kontrola handiegia ez izatea eragin du, gehiegi erabiltzea.

Kasu horietan, egoera horiek sortu ditzaketen eragozpenak arintzen lagundu dezaketen zenbait tresna proposatzen ditugu (ikus 6.atala).

#### **Beste tresna batzuk:**

Udal batzuek gazte taldeen eskura jarri dituzte udalaren jabetzako lokalak, akustikoki oso sentikorrek ez diren eremuetan daudenak, hala nola hirigunetik hurbil dauden industrialdeetan edo behar bezala intsonorizatutako lonjetan. Beraz, eragozpenik ez dute sortzen eta udalerriko gazteek aisialdiaz gozatu dezakete. Tresna horiek ezin dira orokortu; izan ere, betiere, udalak duen ondarearen eta udalerraren lurralde konfigurazioaren mende daude, udalerritik gertu ez dauden lokalak gazteen eskura jartzeak ez zuelako arazoa konponduko.

#### **4.1.3. Bide publikoan sortzen den zarata, egunez edo gauez**

Arazo horrek eragozpen akustikoa sor dezakeen bide publikoko edozein jarduera biltzen du, nolabaiteko izaera iraunkorra duena, eta arduradun egonkor bat dute denboran zehar; haien artean daude, besteak beste:

- Kirol pistak: pilotalekuak eta kantxak, bertan egindako kirol jarduera ohikoaren ondorioz inpaktu akustikoa eragiten dutenak.
- Musika ekipoak barbakoa edo atsedenlekuetako eremuetan.
- Zarata gaueko aisialdiko lokalen kanpoaldean: erabiltzaileak sarrera-irteeran pilatuz, ateen parean, ilaretan talde txikiak elkartuz.

Egoera horiek nekez gomendatzen dira baldintza edo muga akustikoak ezarriz, eragozpenaren benetako arrazoiari erantzuten ez dion zerbait dela irizten baita. Kudeaketarako legezko tresna gisa, Soinu Maila Handiko Eremuaren figura aplikatu behar da, eta LB7 laguntza baliabide modura sartzen da gida honen 6. atalean.



Horrenbestez, gai honi buruzko proposamena aurretiko bi abiapuntuk baldintzatzen dute: ertz asko dituen arazoa da, oso izaera heterogeneoa du hura eragiten duen alderdian, eta ez du araudi espezifikorik, herritarren bizikidetzarako aukera ematen duten mailen barruan jarraitzeko beharri buruzko aipamen orokorra kontuan hartu gabe.

Bi abiapuntu horiek kontuan hartuta, proposamena modu errektiboan jorratzean oinarritzen da, kexa arrazoitu zain, eta kexak kudeatzeko jarraibideak betez, gai horri nola erantzungo zaion zehazteko. Haiek kudeatzeko prozedura argi bat definitzeak kexak tratatzeko aukera ematen du (kudeaketa errektiboaren prozesuari hasiera ematen dion funtsezko elementua), eta horri heltzeko modua zein izango den adierazten duenarekin hartutako konpromisoa da.

Nabarmendu behar da era honetako egoerak errepikatzen badira eta haiek izan dezaketen garrantzia kontuan hartuta, planteamendu errektibo batetik proaktiboagoa den beste batera pasa daitekeela, eta bertan, arau esparrua eta kudeaketakoa funtsezkoak dira. Jarraian, adibide batzuk zehazten dira. Haietan ikusten denez, ez da gomendagarritzat jotzen immisio mailen mugaketa edo baldintza akustikoa kontrol aldagai gisa sartzea, eta aplikagarriagoak dira beste ekimen mota batzuk:

- Aukera bat da horrelako igorpenak jorratzen dituen artikulua bat sartzea, Udaltzaingoari edo ikuskatzaileei soinu igorpen handiegia duen jarduera jakin bat debekatu edo zehatzeko aukera ematen diena, baina aurreko puntuetan aipatu ditugun erregulazio espezifikorik ez duena.  
Horretarako, saihestu daitezkeen zarata horiei buruzko artikulua bat sartzea proposatzen dugu, jokabide zibiko egoki bat kontuan hartuz, hau da: *“Udaleko ikuskapen zerbitzuen iritziz zarata funsgabea edo erraz saihestu daitekeena bada, zarata bertan behera uzteko edo murrizteko beharrezkoak diren neurriak berehala hartzeko agindu ahal izango dute, soinu mugak betetzen direla ere. Nolanahi ere, erraz saihets daitezkeen zaratat hartuko da zarata, baldin eta zarata hori kentzeak soinu-iturriaren bolumena funtzionatzen duen ingurunearen aukeretara egokitzea baino ez badu eskatzen.”*
- Jarduerak hala eskatzen badu, gatazketan bitartekaritza lana egiteko tresnak aplikatu ahalko dira.

Aukera orokor hori alde batera utzita, kasuistika bakoitzerako zenbait jarraibide aipatu daitezke:

- Kirol pistak: pilotalekuak eta kantzak, bertan egindako kirol jarduera ohikoaren ondorioz inpaktu akustikoa eragiten dutenak.  
Ingurunean akustikoki sentikorrek diren eremuak badaude (etxebizitzak edo osasun zentroak), lizentziaren emakidaren edo hiri lurzoruaren erabileraren definizioaren barruan sar liteke balizko inpaktu akustikoaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eskakizuna, egin beharreko jarduera motak sortutako zarata mailen arabera; hala, baldintza akustiko bihur daitezke instalatu beharreko hiri ekipamendua edo ukituta egon daitezkeen inguruneari babes akustikoa emango dioten elementuak sartzea.
- Musika ekipoak barbakoa edo atsedenekuetako eremuetan.  
Aurreko kasuan bezala, ingurunean akustikoki eremu sentikorrek badaude (etxebizitzak edo osasun zentroak), izan daitezkeen inpaktu akustikoaren aurretiazko ebaluazioa egin ahalko zen, eta horrek eremuaren erabilera mugatzea ekar dezake.  
Eremu horietan audioa erreproduzitzeko debekuaren esperientzia positiboak daude, eta, horretarako, berariazko seinaleak jartzen dira bertan. Neurri hori araudiren batek babestu beharko zuen.

- Zarata gaueko aisialdiko lokalen kanpoaldean.  
Kasuistika hori kudeatzeko, bitartekaritza prozesuetan akordioak lortu behar dira, lokalaren jabea erantzunkide egiteko. Interes komuna da lokaleko bezeroak kontsumitzeko kanpora ez irtetea. Beste arazo batzuk dakartza, hala nola segurtasuna eta garbitasuna. Sarrerako atean egoten diren segurtasuneko arduradunak baliabide egokiak izan daitezke neurriak abian jartzeko. Lehentasunezko arazo bat dagoenean, soinu maila handiko eremu izendatzea interesgarria gerta daiteke esku-hartzeari esparru juridiko bat emateko.

Kasu horietan, lagundu dezaketen zenbait tresna proposatzen ditugu (Ikus 6. atala).

#### 4.1.4. Udalaren obrak eta zerbitzuak

Foku horien ezaugarriak bi aldagai dira, eta aldagai horiek baldintzatzen dute haien tratamendua. Lehenik eta behin, ezinbestekoak direlako egin behar dira jarduera horiek. Bigarrenik, zaila da funtzionamendu iraunkorreko beste zarata foku batzuetarako urteko batez besteko zarata mailen eskakizuna aplikatzea, haien denbora jardueraren izaera dela eta.

Arrazoi hori dela eta, kudeatzeko tresna gisa proposatzen da udalek 213/2012 Dekretuak 35.Bis artikuluan zehaztutako Kalitate Akustikoko Helburuak behin-behinean eteteko aukera baliatzea aplikatzeko tresna berezi gisa, baldin eta iraupen eta soinu igorpen handiko obrek Kalitate Akustikoko Helburuak ez betetzea eragiten badute <sup>(2)</sup> (urteko batez bestekoei lotzen zaizkie). Hala ere, 4 hilabete baino gehiagoz leku berean egongo diren obra guztiek potentziala dutela Kalitate Akustikoko Helburuak ez betetzea eragiteko uste da, eraisteko edo zultzeko jarduerak egin behar direnean bereziki.

Horretarako, beharrezkoa izango da etete hori onartzea, arrazoi justifikatu baten bidez, eta neurri aringarriak deskribatzea, obran inpaktu handia duten jarduerak gainjartzea saihesteko, jarduera gogaikarriagoetarako ordutegiak kontrolatzeko eta beste neurri zuzentzaile edo aringarri batzuk zehazteko (jardunbide egokietatik hasi eta aldi baterako pantailak instalatzeraino).

Udal zerbitzuetan, kalitate akustikoko helburuak behin-behinean eteteko aukera aplikatu ahalko zen ere, baina horretarako, honako hau baliatzea gomendatzen da: LB3: KUDEAKETARAKO DIAGNOSTIKO AKUSTIKOKO PROIEKTUAK; horri esker, inpaktu edo eragozpen handiena izan dezaketen eremuak identifikatu ahalko dira, izan daitezkeen neurri zuzentzaileak zehazteko, eta aire zabaleko zarata igortzeko Europako zuzentzauek ezarritako zarata mailak betetzen direla egiaztatu ahalko dira <sup>(3)</sup>.

<sup>(2)</sup> 35 bis artikulua: Ohiz kanpoko baimenak.

1. Administrazio publikoek aldi baterako baimenak eman ditzakete kapitulu honetan aurreikusitakoa behin-behinean ez betetzeko, gizarte-, politika-, kultura-, kirol- eta erlijio-gaiekin edo antzekoekin lotutako gertakizunak antolatzea edo horietarako lanak egitea argudiatzen badute. Hala eta guztiz ere, eragin akustikoa balioetsi ondoren, baimena ematen duen administrazioak neurriak aurreikusi beharko ditu herritarrei eragin diezazkieketen kalteak ahal bezain beste murrizteko; era berean, ez ohiko egoera horren sorburuaren nahiz iraupenaren berri eman beharko die herritar horiei.

2. Hala, 6 hilabete baino gehiagoko iraupena izango dutela aurreikusten den lanetan, eragin akustikoari buruzko ikerketa bat egin beharko da, egoki diren neurri zuzentzaileak zehazteko.

3. Eragin akustikoari buruzko ikerketa horretan aztertu beharko dira neurri zuzentzaile horietatik itxaroten diren onura akustikoak, zarata jasaten duten eremu akustiko edota etxebizitzetan zarata-maila murrizteari dagozkionak; gainera, ikerketaren berri eman beharko zaio erasandako udalerriri.

<sup>(3)</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko abenduaren 14ko 2005/88/EE Zuzentaraua. Horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko maiatzaren 8ko 2000/14/EE Zuzentaraua, aire zabalean erabiltzen diren makinek ingurunean egiten dituzten soinu igorpenei buruzko estatu kideen legeriak hurbiltzeari buruzkoa, aldatzen da.



lido horretan, azterketa proaktiboa izan behar dela onartzen bada ere, interesgarria da haren garapenaren benetako aukerei egokitutakoa izatea. Horretarako, proaktibitate hori gauzatzeko uneak hauek dira:

- **Baldintza pleguen mailan:** jarraian, udalaren obra eta zerbitzuetan aplikagarria den proposamena aurkeztuko da.

#### Udal zerbitzuen pleguko baldintzak (hiri hondakin solidoak garbitzea eta biltzea, eta lorezaintza)

#### Obretarako baldintza teknikoen pleguko baldintzak

##### Hiri hondakin solidoak biltzeko eta garbiketarako lizitazioa:

- a) Soinu gutxi ateratzen duten makinak erabiltzeari buruz:  
Hondakinak biltzeko eta garbitzeko makinek legeria akustiko aplikagarria bete behar dute (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretua, aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuek ingurunean sortzen dituzten soinuak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretua aldatzen duena), eta beharrezkoa da zerbitzua kontratatzeko eskaintzan honako hau zehaztea: makinek nolako potentzia akustikoa duten eta zenbat soinu ateratzen duten bilketa eta garbiketako lanak egiten dituenean. Gainera, proposamenak soinu eraginkortasuneko irizpideei erantzuten diela justifikatuko da; horretarako, merkatuan dauden beste makina batzuen aldean zer-nolako soinu maila duten aztertuko da. Makinek soinu gutxi ateratzea baloratuko da.
- b) Zerbitzuan jardunbide egokiak gauzatzeari buruz:  
Aplikagarria izango da, kontratazio prozesuaren esparruan, langileek hondakinak manipulatzeko, makinak erabiltzeko eta joan-etorriak egitean aplikatuko dituzten jardunbide egokien prozesuak zein izango diren zehaztea.
- c) Biltzeko ibilbideei buruz: Aplikagarria izango da, kontratazio prozesuaren esparruan, zehaztea zein diren bilketa eta garbiketako ibilbideak eta ordutegiak definitzeko kontuan hartu diren irizpide akustikoak, soinu gutxien ateratzen duten aukerak hautatzeko asmoz. Puntu honetan, funtsezkoa da udalaren eskumenekoak ez diren beste hondakin kudeatzaile batzuekin koordinatzeko ekimenak eta proposamenak egitea, garbiketako ibilbideak arrazionalizatzeko asmoz sortu dezaketen inpaktu akustikoa minimizatze aldera.

##### Lorezaintzaren lizitazioa

- a) Soinu gutxi ateratzen duten makinak erabiltzeari buruz:  
Lorezaintza zerbitzua betetzeko erabiltzen diren makinek eta ibilgailuak legeria akustikoa bete behar dute, eta makina elektrikoak erabiltzea lehenetsiko da, betiere zerbitzua betetzeko behar den denbora handitzen ez bada. Gainera, proposamenak soinu eraginkortasuneko irizpideei erantzuten diela justifikatuko da; horretarako, merkatuan dauden beste makina batzuen aldean zer-nolako soinu maila duten aztertuko da. Oro har, makinek soinu gutxi ateratzea baloratuko da.
- b) Zerbitzuan jardunbide egokiak gauzatzeari buruz:  
Aplikagarria izango da, kontratazio prozesuaren esparruan, zehaztea zein diren zerbitzua betetzen duten langileen jardunbide egokien prozesuak, makinak erabiltzeko orduan nahiz joan-etorriak egitean.

Obrek ezingo dute 80 dBA baino potentzia gehiago sortu 30 minutuz, gertuko eraikin sentikorren fatxadan sortutako soinu gisa neurtuta. Maila horiek ez gainditzeko, soinu gutxi ateratzen duten makinak erabiliko dira, inpaktu akustiko handiko jarduerak aldi baterako gainjartzea saihestuko da (eraistea edo zulatzea) eta aldi baterako pantaila akustikoak erabiliko dira, igorpen fokutik hartzaile sentikorrei zarata gutxiago eragiteko. Maila hori betetzen dela kontrolatzeko eta egiaztatzeko, aldizkako neurketak egingo dira, eta emaitzak udalean aurkeztuko dira; hala, proposatutako neurri zuzentzaileak zehaztuko dira haiek betetzeko aplikagarriak badira.

**Udal zerbitzuen pleguko baldintzak (hiri hondakin solidoak garbitzea eta biltzea, eta lorezaintza)****Obretarako baldintza teknikoaren pleguko baldintzak**

- c) Laneko ibilbideei buruz: Aplikagarria izango da, kontratazio prozesuaren esparruan, zehaztea zein diren jardueraren ibilbideak eta ordutegiak definitzean kontuan hartu diren irizpide akustikoak, soinu gutxien ateratzen duten aukerak hautatzeko asmoz. Adibidez, aplikagarria da, honako hau proposatzea: akustikoki sentikorrenak diren orduetan (bereziki, 08:00etatik 09:00ak arte) lan egiteko eremuak zein izango ziren proposatzea.

**Penalizazioak:**

Proposatu daitekeen beste aukera bat da goian araututako gai horiek kontratazioak gauzatzeko irizpideetan jasotzea, haiei lotuta penalizazio batzuk izango dituztenak. Horretarako, aurrez zehaztu beharko dira eta administrazio klausula partikularretan sartu.

- Teknikoki aztertzeari dagokionez: udal obretan nahiz zerbitzuetan, inpaktuaren kudeaketa egin daiteke kalitate akustikoaren xede diren balioak behin-behinekoz eteteko figura baliatuz, 213/2012 Dekretuak, EAEko kutsadura akustikoari buruzkoak, 35.bis artikuluan jasotzen duen moduan, eta bi azterketa egin daitezke obrak edo zerbitzuak sor dezaketen inpaktu aurreikuspenaren arabera:  
Obretan, ondorengo matrizeari esker, obra-mota kalkulaturako inpaktu akustikoko arriskuaren arabera sailkatzen da:

Obra mota, haren funtzionamendu fasea	Inpaktu arriskua	
	> 6 hilabete	> 2 hilabete
Espaloiak eta bideak urbanizatzeko obrak	< 50 m	< 100 m
Parkeak urbanizatzeko obrak	< 50 m	< 100 m
Eraikin berriak urbanizatzeko obrak	< 50 m	< 100 m
Saneamendu eta argiteria sareak	< 50 m	< 100 m

Gero eta inpaktu arrisku handiagoa, orduan eta ikuskapenetan oinarritutako zeregin proaktiborako behar handiagoa.

Bestalde, obren jarduerari zarata mugatzeko maila bat ezartzea baloratu daiteke, erabilera sentikorreko eraikinen fatxadetan bete beharrekoa. Egin beharreko balorazioan sartu behar dira, neurri hori hartzeko beharra nahiz hura betetzen dela egiaztatzeko gaitasuna.

- Neurri hori hartzeko beharrari dagokionez
  - Leku bereko obrek 6 hilabete baino gehiago irautesan badaude eta erabilera sentikorretatik 50 metro baino gutxiagora badaude, eta jende asko dagoen lekuetan egunero ematen diren udal zerbitzuei lotuta (hiri hondakin solidoak biltzea, esate baterako), aplikagarria da sortutako (edo sortuko den) egoerari buruzko diagnostiko akustikoa egitea; horretarako, LB3 KUDEAKETARAKO DIAGNOSTIKO AKUSTIKOKO PROIEKTUAK laguntza baliabidea aplikatuko da (zerbitzuetarako aurrez aipatu den moduan), gida honen 6. atalean adierazi dena. Diagnostiko honekin (inpaktua minimizatzeko neurri aringarriak edo zu-



zentaileak definitzea barne hartzen du), Kalitate Akustikoaren Helburuen balioak behin-behinekoz eteteko figuraren osagarri, akustikoki legezkatzen da, askotan eta bere izaeragatik, Kalitate Akustikoaren Helburuak ez betetzea eskatzen duen jarduera.

- Bide publikoko gainerako obrei eta udal zerbitzuei dagokienez, Kalitate Akustikoaren Helburuen balioak behin-behinekoz eteteko figuraren osagarri, jardunbide egoki batzuk lehenetsi behar dira, obraren edo zerbitzuaren kutsadura akustikoa murriztu ahal izateko, eta, horrela, jarduera egiten dutenek egoki direnak aplikatu ahal izango dituzte, jardueraren garapenarekin bateragarri eginez:
  - Obrei dagokienez: soinu gutxi ateratzen duten makinak sustatzea eta inpaktu akustiko handiko jarduerak aldi baterako gainjartzea saihestuko da (eraistea edo zultzea). Inpaktua eragiten duten jarduerak leku berean errepikakorrak izango badira, aldi baterako pantaila akustikoak erabili behar dira, zarata igorpen fokutik hartzailerentzako gutxiago zabaltzeko. Azkenik, langileek jarduerak egingo dituzte inpaktua minimizatzeko egiteko moduak eta jardunbideak aplikatuz. Adibidez, ahal denean, jarduera mugigarriak (adibidez, baldosak edo beste elementu garraiagarri batzuk moztea) erabilera sentikorretatik gertu dauden eremuetatik aldentzeko dira, aldi baterako itxiturak edo etxolak jarriko dira obran jarduera jakin batzuk egiteko, eta ahal den neurrian minimizatuko dira kolpeak, oihuak eta bestelako soinu seinaleak.
  - Udal zerbitzuei dagokienez: jarduerak egiteko ahal denean, soinu gutxiago ateratzen duen aukera hautatuko da (makina elektrikoak edo eskuzko baliabideak), eta ahal bada, inpaktu akustiko handieneko jarduerak edo erabilera sentikorretatik gertu daudenak egiteko hain sentikorrek ez diren ordutegiak hautatuko dira. Amaitzeko, langileek jarduerak egingo dituzte inpaktua murrizteko egiteko moduak eta jardunbideak aplikatuz, eta kolpeak, oihuak eta bestelako soinu seinaleak minimizatuko dira.
- Jarduera jarraitzeari eta egiaztatzeari dagokionez:
  - Zerbitzuetan, kontrol errektiboa egitea proposatzen da, kexen jarraipena eginez. Horrenbestez, zarataren eragina hautematen denean, ikuskapeneko jarduerak egingo ziren eta neurriak hartuko. Beraz, inpaktua arintzeko aukerak aztertu daitezke ordutegiak kudeatuz, mikro mailako jarduketak aztertu daitezke jarduera gauzatzeko moduei dagokienez, edo ibilbideak aztertu biltzeko puntuek eta ibilbideek bat egiten duten guneak identifikatzeko; hala, zerbitzu horiek bizitegi eremuetan sortutako inpaktu akustikoa murriztu ahal da.
  - Zerbitzuetako nahiz obretako zeregin proaktiboan ikuskapen bisualak daude, ordutegiak edota baldintzak eta erabilitako makina motak betetzen direla egiaztatzeko; eta, hala badagokio, ezarritako zarataren mugak egiaztatzeko neurketak.

Kasu horietan, lagundu dezaketen zenbait tresna proposatzen ditugu (Ikus 6. atala).

## 4.2. Unean uneko jarduerak

Txosnei eta barrakei lotutako jarduerak direla gogora ekarri behar dugu, bai eta bide publikoko ekitaldiei eta megafoniari lotutakoak ere.

Kasuistika horiek zer izaera duen kontuan hartuta (aldi baterako da eta denboran arduradun egonkorrik izan barik), beren kudeatzeko jarraibideak baldintzatu ditzakeen ezaugarriak dituzte.

Alde batetik, aldi baterako direnez, sortu dezaketen eragozpenarekin jendea esku zabalagoa izan daiteke, jaietako jarduera orokorrak direnean bereziki. Puntu honetan nabarmendu behar da funtsezkoa dela jasotako zarata maila behar bezala kudeatzea (mailak eta iraupena); izan ere, askotan jotzen da hautatuko eremura era horretako jarduerak egiteko, eta horrek eragin dezake aldi baterako dena iraunkor bihurtzea.

Bestalde, kudeatzeko jarraibideek argiak bezain malguak izan behar dute (erraz aplikatzekoak). Behar bikoitz honek erronka bat dakar, eta, beraz, puntu honetan udalek duten esperientzia funtsezkoa da. Irizpide hauek identifikatu dira:

- Gaiari modu inkrementalean heltzea aplikagarria da, bai baldintzen definizioan, bai jarraipen eta egiaztapeneko jarraibideetan. Horrek esan nahi du baldintzak jardueren sustatzaileei helaraztea, eta haiek berritzaileak badira, denbora bat behar dezakete esperimendatzeko eta udalerriko benetako premiei egokitzeko. Horrenbestez, jarduera eta eragozpena pixkanaka murriztea bateragarri egiteko aukera errazten da.
- Zenbait baliabide erabiliz (soinu mugagailuak eta display-ak, adibidez) zarata maila erregistratzea funtsezkoa da, ikuskapen dinamikoa egiten uzten baitute eta kontrola errazten. Puntu honetan, hainbat aukera daude: ekipoak erosi edo alokatu daitezke, kontrol zerbitzua barne.

Soinu mugagailuak edo akustikoak, zarata mailak erregistratzeaz gain, soinuaren kate erreproduzitzaile osoan jarduteko eginda daude, eta ekipoak audio maila osoan sortutako presioa kontrolatzeko aukera ematen du, jardueraren baldintzetan ezarritako mailak ez gainditzeko helburuarekin. Ekipo horietako batzuk, gainera, prest daude erregistratutako zarata mailak edo mailak gainditzeko txostenak telematikoki eta denbora errealean sistema zentralizatu batera bidaltzeko.

Bestalde, display-ak zarata mailak erregistratzen dituzten ekipamenduak dira, eta hainbat formatutan ikusgarri egiten dituzte. Ez dute soinu igorpenean zuzenean jarduten; aitzitik, zarata sortzen duen jarduera zeharka baldintzatu nahi dute, edo bestela, erabiltzaileek egiaztatzea muga osasungarriak gainditzen ez dituen gune batean daudela; adibidez, jardueraren baldintzetan ezarritako mailak gainditu direla jakinaraziz.

Soinu mugagailuek kanpoko display bat konektatzeko aukera ere eman dezakete.

Ondorengo taulan, mugagailu eta display-etarako gomendatzen diren erabilerak aurkezten dira:

	Mugagailua	Display-a	Erregistratzailea
<i>Eginkizun nagusia</i>	Soinu igorpena etetea, atalase maila jakin bat lortzen denean. Sistema batzuek soinu igorpena murrizten dute adierazitako mugaraino; nolana ere, igorritako soinu seinalea baldintzatzen dute.	Soinu igorpena berrikustea, soinu hori ekipoak ematen duen informazio bisualaren bidez sortzen bada.	Une jakin batean sortzen den informazio akustikoa gordetzea. Display-aren eta mugagailuen osagarria.
<i>Aplikazio gomendatua</i>	Txosnak, barrakak eta soinu-asmorik gabeko ekitaldietan laguntzeko megafonia.	Soinu helburua duten ekitaldi aipagarriak	Sortutako zarata mailak berrikusi behar dituen edozein soinu egoerarako.



	Mugagailua	Display-a	Erregistratzailea
<i>Baldintzak</i>	Aplikagarria da emisioa mozteak edo baldintzatzeak jarduera modu larrian baldintzatzen ez duenean.	Erabilgarria da soinu-teknikariek emisioa kontrola dezaketenean eta, gainera, mugatzearen erabilerak jarduera baldintzatzen duenean.	Aplikagarria izan daiteke datuak denbora errealean telematikoki bidaltzea, ikuskapen bat denbora errealean egiteko, baina ez da beharrezkoa.
<i>Aldekoak</i>	Inpaktua zuzendu dezake hura gertatzen den unean bertan.	Ekitaldiko sustatzailearen autokontrola egiteko aukera ematen du, bai eta monitorizazioa denbora errealean egitea ere, teknikariek eta ikuskatzaileek jatorrizko lekuan ikusteko moduan.	Jarraipena eta kontrola egiten uzten du, eta funtsezko elementua da zehapenik badago.
<i>Kontrakoak</i>	Erreprodukzioko ekipoez edo erabiltzaileek ateratako zarata ez du bereizten (muga hori zati batean teknikoki zuzenduta dago, baina ez erabat).	Ez du uzten inpaktua hura gertatzen den unean eragozten, eta haren kontrola sustatzailearen esku uzten du.	Datuak berrikusteko baliabideak behar ditu (batez ere, kontrola denbora errealean egin nahi bada).

- Jarraipeneko eta egiaztatzeko mekanismoek informazioa eta esperientzia eman ahalko dute, etorkizuneko ekitaldien edo jai egoeren kudeaketan ikasitakoa aplikatu ahal izateko.

#### 4.2.1. Bide publikoko ekitaldiak eta megafonia

Atal honek jardunbide egokiak aurkezten ditu urtean zehar udalerrirako interes orokorreko jaiegunetatik kanpo izaten diren ekitaldiak eta megafoniaren erabilera baldintzatzeko (batez ere, herriko jaiei lotuta dago). Ildo horretan, era honetako ekitaldietarako ezarri beharreko baldintza akustikoak murriztaileagoak izan daitezkeela onartzen da; izan ere, garrantzi berezirik gabeko urteko uneei lotzen zaie, eta ez diote interes orokor bati erantzuten.

Hainbatetan, txikiagoak diren udalerrietan bereziki, bide publikoan antolatzen diren ekitaldiek eta megafoniaren erabilerak arazo bat dute udal eremu jakin bat gehiegi erabiltzeari lotuta; hau da, ekitaldi guztiek gune berean egitea eskatzen dute eta, horren ondorioz, eremu horrek gainezka egiten du eta inguru horretako bizilagunak kaltetzen dira udalerriko beste gune batzuekin alderatuz.

Kasu horietan, udaleko teknikariaren irizpideak erabaki ahalko zuen gainezka egin duen gune horretan ekitaldi horiek antolatzea; horrekin batera, alkatetzaren dekretuaren bidez, gune jakin batean ekitaldiak mugatu ahalko ziren, edo udal ordenantzan zenbakizko irizpide mugatzaile bat ezartzea ere.

Bestalde, uste da ekitaldi horietako gehienak asteburuetan edo jaiegunetan antolatzen direla, eta horrek zaildu egiten du udal ikuskatzaileek edo udaltzainek ekitaldi horiek kontrolatzea; izan ere, udalerrri askok ez dituzte langile horiek asteburuetan, eta, beraz, gai horri heltzeko, ezinbestekoa da alde zuzenetik kontrolatzea, eta baimenean neurri zuzentzaile akustikoak ezartzea ekitaldi zehatza egiteko.

Azpimarratu behar da, ekitaldiak tipifikatzeari dagokionez, funtsezkoa dela haiek soinuez gozatzea helburu duten ala ez jakitea, horren arabera baita ezarri beharreko maila akustikoei buruz jar daitekeen baldintza, ekitaldia herritarren atsedinarekin bateragarri egiteko:

- Soinu helburua duten ekitaldiak: soinuak edo musika behar dutenak dira. edozein eratarako kontzertuak, adibidez.
- Soinuaren beharra duten ekitaldiak: ekitaldi hauetan, musika ez da ardatz, baina bai euskarrri. Kultura eta jai giroko ekitaldiak izan daitezke: inauterietako desfileak, dantza erakustaldiak, etab.
- Soinu beharrik gabeko ekitaldiak: soinuak edo musika ekitaldiaren osagarri dira, baina hura garatzeko funtsezkoak ez dira. Adibidez, kirol ekitaldiak edo azokak izan daitezke. Ekitaldiei dagokienez, kontuan hartu beharreko zenbait berezitasun daude, eta sarrerako zati honetan, alde batetik, adingabeentzako ekitaldiak nabarmendu behar dira: adingabeek entzumen gehiago babestu behar dute; horregatik, biztanleria maila horrentzako ekitaldietarako, garrantzitsua da zaurgarritasun handiago hori kontuan hartzea; horregatik, iradokitzen da ekitaldi horietarako erreferentziazko mailak 5 dBA gutxienez murriztea atal honetan proposatutakoekin alderatuz. Bestalde, jaiegunetan antolatutako ekitaldiak daude edo garrantzi berezia dutenak: hala koetan, ohikoa izaten da udal batzuek baldintza ez hain murriztaileak ezartzea, garatzen den uneen interes orokorrari edo garrantzi bereziari edo ekitaldiaren izaerari berari erreparatuta. Puntu honetan, ezarri beharreko exigentzia maila ekitaldien kokapenaren eta inpaktua sortzeko aukeraren arabera da. Honako hauek kontuan hartu behar dira: mailak, ordutegiak eta hautatutako ekitaldien lekuak zenbat aldiz errepikatzen diren, eta kokaleku horretan bertan urteko gainerako garaian gertatzen denarekin aztertu. Gai hori zehatzago jorratzen da gidaren hurrengo atalean, txosnekin eta barrakekin batera, jai lotutako jarduerak guztiak lan esparru bakar batean biltzeko.

Ekitaldiek bete beharreko kalitate-irizpideak definitzeko hainbat aukera daude:

- Hartzaile sentikorretan immisio mailak mugatzeko kalitate akustikoko irizpidea definitzea. Horrenbestez, ekitaldiaren eta hartzaileen artean distantzia handiena duten eremu irekienek eragin akustiko handiko ekitaldiak hartzeko gaitasun handiagoa izango zuten.
- Kultur ekitaldi eta jarduerak hartzeko dauden guneak ebaluatzea haiek hartzeko duten ahalmenaren arabera: erabil daitezkeen eremuetan jarduerak orekatu egin behar dira jasotako inpaktu akustikoaren arabera, eta sortutako zarata hailetako bakoitzean egindako ekitaldien errepikapenarekin konbinatu behar dira, horri lotuta izan daitekeen eragozpena murrizte aldera. Gerturatze hori interesgarria izan daiteke ekitaldiak antolatzeko gune gutxi dituzten udaletan. Muga hori udal teknikariaren nahierara utz daiteke, alkatetzaren dekretuz gune jakin batean egin beharreko ekitaldien muga ezar daiteke edo muga hori udal ordenantzan zerbait positibo modura sartu.
- Eragin akustiko handiko ekitaldietarako, proiektu akustiko bat aurkezteko eskatu diezaiokegu sustatzaileari, eta, bertan, ekitaldian sortutako zarata mailak zehaztuko dira. Ekitaldiaren ezaugarrien arabera, horrek ez dio zertan zama gehiago eragin behar sustatzaileari; izan ere, ekitaldiaren prestaketa akustikoaren prozesuaren barnean jorratu daiteke, eta prozesu horretan zehazten da, esaterako, bozgorailuetako soinua zein aldetara aterako den.



#### 4.2.1.1. Diagnostikoa egiteko prozedura

Planteamendua	Emaizak	Baliabideak	Aldekoak	Kontrakoak
<b>Ebaluazioa baimenak emateko edo jarduera planifikatzeko fasean</b>	Ekitaldien igorpen akustikoko proiektua egitea udalerrian egon daitezkeen agertokietan, eta soinua erreproduzitzeko ekipoak funtzionatzeko baldintzak definitzea (ordutegia).	Langileak: lana enpresa aditu bati kontratatzea Kostua: handia Tresnak: modelizazio akustikoa, GIS, neurketa akustikoak.	Jarduera horiei aplikatu beharreko baldintza akustikoak zehatz-mehatz definitzeko aukera ematen du, haien erabiltzaileak eta gertuko hartzaile sentikorren kokalekua kontuan hartuz, eta jarduera egitearen eta herritarren bizikidetzaren artean irtenbide bat topatzeko konpromisoa hartzen da.	Ahalegin horren bitartez, eskaerak kasuari zehaztasun handiz egokitzeko aukera ematen badu ere, modelizazio akustikoak eguneratu beharko dira baldintzetan egiten den edozein aldaketa adierazteko (kokapena, soinua erreproduzitzeko ekipoen mota edo kopurua).
<b>Ikuskapenak</b>	Funtzionatzeko baldintzak jatorrizko lekuan berrikustea	Langileak: ikuskatzaileak Kostua: txikia (neurketekin osatzen ez badira) Tresnak: barneko baliabideak edo zerbitzu bat azpikontratatzeko. Bisitak, haiei lotutako aktarekin.	Jardueraren benetako egoera baten baldintzak egiaztatzen uzten dute. Ausazkoak izatean eta kexari lotu gabeak, informazioa izaten lagundu dezakete eta ekitaldien datu base bat sortu.	Sistematika jarraitu bat aplikatzea eskatzen du eta, geldituz gero, jarduera egiten dutenek kontrol mekanismorik ez dutela ikus daiteke.
<b>Neurketa akustikoen kanpaina</b>	Ikuskapenetan oinarritutako diagnostikoari lotuta egon daitezke, edo egoeraren ebaluazioari lotuta, igorpen akustikoko proiektu batekin, baimenak eman aurretik.	Langileak: akustikan adituak Kostua: handia/ertaina, udaleko langileek edo azpikontratatuak egingo duten kontuan hartuta. Tresnak: sonometroak	Jatorrizko lekuan jokabidea ebaluatzeko aukera ematen du, laginketaren arabera, funtzionamendu baldintza adierazgarrietan izango duen inpaktua zehazteko (kexei lotuta ez badago).	Neurketek kostu handia dute, eta haren justifikazioa kudeaketarako baliozkoak diren ala ez, horren mende dago: erabakiak hartzea edo zigorrak jartzea.
<b>Kexen azterketa</b>	Kexak modu erreaktiboan identifikatzea jarduera egiten den egunetan	Langileak: ikuskatzaileak Kostua: txikia (neurketekin osatzen ez badira) Tresnak: gai honi lotuta, zerbitzu estandarrek jasotako kexak berrikustea	Herritarren erantzun zuzenak zehazten ditu lehenetsunak. Informazioa biltzeko aukera ematen du, kexak lotu behar zaizkien ekitaldi-tipologien moduei buruzko datu-basea sortzeko	Erantzun erreaktibo da beti, eta neurri zuzentzaileak edo zigorrak definitzea zaildu dezakete

## 4.2.1.2. Teknikoki aztertzea

Planteamendua	Aplikazioa	Adibideak
<b>Ordutegiak</b>	Erabilera handiko kontrol aldagaia; horri esker, ordutegia ekitaldiaren ezaugarrietara egokitu daiteke eta hari lotutako beste jarduera batzuk kontrolatu, soinu probak, esaterako. Soinu helbururik gabeko ekitaldietan laguntzeko megafonia erabiltzen denean (kirol ekitaldietan, adibidez), erakargarri gisa erabiltzeko muga kontuan hartu beharreko aldagaia da.	Ekitaldiek gehienez 3 ordu iraungo dute Soinu helburua duten ekitaldietan, soinu probak soilik egin ahalko dira ekitaldia hasi baino ordubete lehenago. Soinu beharrik gabe ekitaldietarako megafoniaren laguntza behar denean (kirol ekitaldiak), soilik erabili ahalko da ekitaldia egiten den bitartean eta hasi baino ordu erdi lehenago.
<b>Jardueraren zarata mailak mugatzea, haren ezaugarriak kontuan hartuta</b>	Soinu helburuari dagokionez, ezaugarri desberdineko ekitaldietarako, igorpen ahalmen, instrumentu mota eta ordutegi desberdinak ezarriko ziren. Zenbaitetan, dBA mugatzeaz gain, dBC ere mugatzen da, egoera hauei aurre egiteko: eragozpena frekuentzia txikiko igorpenari lotuta badago. Display bat jartzea kontrol mekanismo interesgarria da, soinu helburua duten ekitaldietarako batez ere; hari esker, jardueraren jokabide akustikoa egiaztatu daiteke hura egiten den bitartean (ez-betetzeak identifikatzen uzten du, baina ez beti jarduketa bat unean bertan).	Soinu helburua duten ekitaldiak: 95-90 dBA-ko igorpena jendea dagoen lekuan. Soinuaren beharra duten ekitaldiak: 90-80 dBA ekipotik hiru metrora. Soinu beharrik gabeko ekitaldiak: 80-75 dBA ekipotik hiru metrora. Edozein egoeratarako, baina, bereziki, soinu helburua duten ekitaldietarako, aplikagarria da display/erregistratzaile bat jartzea, eta ez du jarduera eragozten, ez baitu igorpena eteten. Ekitaldiaren ostean, erregistratutako mailak aztertu daitezke eta, atalasea zenbat aldiz gainditu den eta zenbat denboran kontuan hartuta, ekitaldi motari jarri beharreko baldintzak eguneratu daitezke.
<b>Kokapenen kudeaketa (udalerrian egon daitezkeen kokapenen inbentarioa) eta zarata maila</b>	Aztertu beharreko gaietako bat kokaleku zehatz batean ekitaldi tipologia jakin baten antolaketaren egokitasunaren azterketa kritikoari lotuta dago. Udalerrian egon daitezkeen kokalekuak kudeatu behar dira, inpaktua haiek hartzeko duten ahalmenari egokitzeko. Azkenik, era honetako ekitaldien zarata maila kudeatu daiteke egon daitezkeen kokalekuetan edo agertokietan.	Aztertze hori aldez aurreko onarpen batetik abiatzen da, hau da, udalerriko eremu guztietarako kalitate helburu homogeen bat finkatzea, eraikin sentikorretako fatxadek ekitaldi batetik jaso dezaketen gehieneko zarata mailari dagokionez. Zenbait udalek 80 dBA jartzen dute erreferentzia estandar gisa, arrazoibide honetan oinarrituz. Kalitatezko gai edo irizpide hori aintzat hartuta, udalerriko eremu bakoitzak ekitaldi bat izan dezake edo ez, erabilera sentikorren gertutasunaren arabera: <i>"Ekitaldietarako baldintza akustiko berrien proposamenak gehien kaltetutako fatxadan gehieneko soinu presioaren maila 80 dBA ezartzea proposatzen du, eta bizitegi etxebizitzetan isolamendu akustikoa onartuta (EKT DB-HR zarataren aurkako babesak nahitaez bete behar duena, 2.1 taula, aireko zaratarekiko isolamenduaren balioak <math>D_{2m,NT,Atr}</math> dBA), gutxieneko isolamendua duen fatxada baten barnealdeko maila (kanpoko <math>L_d</math>-ri dagokiona <math>L_d \leq 60</math>. <math>D_{2m,NT,Atr}=30</math> dBA), 50 dBA izango zen jarduera egiten den unean.</i>



Planteamendua	Aplikazioa	Adibideak
		<i>Maila hori 213/2012 Dekretuan Aipatutako Kalitate Akustikoaren Helburuarekin alderatu ahal izateko, beharrezkoa da jardueraren boraren batezbestekoa (2,5 ordu kalkulatzen da, jarduera jarraituan) gaueko epealdi osoarekiko (23:00etatik 07:00etara). Alde horretatik, barnealdean espero daitekeen gaueko LAeq (23:00etatik 07:00etara) 45,7 dBA izango zen. Aipatutako legedian ezarritako gaueko kalitatearen helburua: gaueko 35 dBA egonaldietan eta 30 dBA logeletan. Kalitatearen helburu hori urteko batezbestekoari dagokio, eta gauen % 3an helburu hori 3 dBAtik gora gainditu daiteke (213/2012 Dekretuak 35. artikuluan zehazten duenez). Horren arabera, kokaleku berean urtean 11 gauean antolatuko ziren ekitaldiak. Hori hala izanik, etxebizitza baten barruan espero daitekeen gaueko batez besteko LAeq 30 dBA izango zen, legeriak ezarritako gutxieneko isolamenduarekin, urtean 11 ekitaldi (fatxadan 80 dBA irizpidea betetzen dutenak) egiten diren leku batean”.</i>

#### 4.2.1.3. Jarraipena eta kontrola

Planteamendua	Aplikazioa	Egoera honekin bat dator
<b>Neurketa akustikoen kanpaina: unean-uneakoak edo erregistro jarraituak</b>	Ekitaldien jokabide akustikoa nolakoa den jakiteko baliagarria, hark eragindako inpaktua zehazteko aukera ematen baitu. Urteko zarata maila jakiteko aukera ematen du, eta horrek epe ertain eta luzeko kudeaketa hobetzen laguntzen du.	Neurketetan oinarritutako diagnostiko batekin bat eginik eta ekitaldiari ezarritako baldintzak betetzen direla kontrolatzeko, bai eta fatxadako muga betetzen dela egiaztatzeko ere, baldin eta azkenean kalitatezko irizpide hori onartzen bada. Zehapen prozesu bat abiarazteko balio dezake eta, sistematikoa izatean, etorkizunean aldagai hori kudeatzea erraztuko duen egiteko modu bat definitzeko aukera ematen du.
<b>Kexen azterketa</b>	Baliagarria da hori adierazten duten herritarren eragozpenaren ebaluazioa aztertzeko, baina oso puntuala.	Kexen azterketan oinarritutako diagnostikoaren prozedurarekin bat eginda. Baliagarria da, hari lotuta, kudeaketa arloan zehapen prozesu edo ondorio bat badago.
<b>Aurretiatzko esperientzien historikoa eguneratzea</b>	Ikuskapen eta kexen emaitzak jasotzen dituen ekitaldien datu base bat eguneratuta izatea, hauei lotuta: ekitaldiaren baldintzak eta kasu bakoitzean aplikatutako kudeaketa tresnak.	

#### 4.2.1.4. Araudia eta kudeaketa

Esan dugun moduan, gai honi aldez aurretik heltzea da irtenbiderik onena, eta, kontuan hartuta unean uneko ekitaldiak direla, konfigurazio eta eskakizun desberdinak dituztela eta bilakaera oso bizkorra dutela, baimena ematen duen teknika gomendatzen dugu; hari esker, proposatzen den ekitaldi bakoitzerako araudi egokia ezar daiteke.

Nolanahi ere, ordenantzetan jarduera mota horren araudia ezartzeko moduari buruzko adibide bat jartzen dugu. Ikus 4. eranskina (LB4).

## 4.2.2. Jaietako jarduerak: soinu helburua duten ekitaldiak, txosnak eta barrakak

Jaietako jarduerak (soinu helburua duten ekitaldiak, txosnak eta barrakak) jende asko biltzen dute, eta horrek zaildu egiten du haien kudeaketa akustikoa. Bide publikoa okupatzen da aire zabalean antolatutako ostalaritzako jarduerekin eta soinuak erreproduzitzeko ekipoekin, azken horiek soinu handia ateratzen dute eta, zenbaitetan, megafonia bat baino gehiago nahastu daitezke; egoera horrek ondorio negatiboa ekar dezake, soinu maila areagotu daitekeelako. Egoera horri, ospatzen diren datengatik, gehitzen bazaio ikuskatzaile eta polizia gutxiago dagoela kontrol lanak egiteko, nekezagoa da jaietako jarduera horiek eta herritarrek atsedean hartzeko duten eskubidea bateragarri egitea.

### 4.2.2.1. Diagnostikoa egiteko prozedura

Planteamendua	Emaizak	Baliabideak	Aldekoak	Kontrakoak
<b>Ebaluazioa baimenak emateko edo jarduera planifikatzeko fasean</b>	Instalazioen igorpen akustikoko proiektua egitea; horrek esan nahi du haien inbentarioa egitea eta soinua erreproduzitzeko ekipoak funtzionatzeko baldintzak definitzea (ordutegia).	Langileak: lana enpresa aditu bati kontratatzea Kostua: handia Tresnak: modelizazio akustikoa, GIS, neurketa akustikoa.	Jarduera horiei aplikatu beharreko baldintza akustikoa zehatz-mehatz definitzeko aukera ematen du, haien erabiltzaileak eta gertuko hartzaile sentikorren kokalekua kontuan hartuz, eta jarduera egitearen eta herritarren bizikidetzaren artean irtenbide bat topatzeko konpromisoa hartzen da.	Ahalegin horren bitartez, eskaerak kasuari zehaztasun handiz egokitzeko aukera ematen badu ere, igorpen akustikoko proiektua eguneratu beharko da baldintzetan aldaketaren bat egiten bada ere (kokapena, soinua erreproduzitzeko ekipoen mota edo kopurua).
<b>Ikuskapenak</b>	Funtzionatzeko baldintzak jatorrizko lekuan berrikustea.	Langileak: ikuskatzaileak Kostua: txikia (neurketekin osatzen ez badira). Tresnak: barneko baliabideak edo zerbitzu bat azpikontratatzeko. Bisitak, haiei lotutako aktarekin.	Jardueraren benetako egoera baten baldintzak egiaztatzen uzten dute. Ausazkoak izatean eta kexari lotu gabeak, informazioa izaten lagundu dezakete eta funtzionatzeko moduari buruzko datu basea sortu, edozein eratako baldintzak sartuz.	Sistematika jarraitu bat aplikatzea eskatzen du eta, geldituz gero, jarduera egiten dutenek kontrol mekanismorik ez dutela ikus daiteke.



Planteamendua	Emaizak	Baliabideak	Aldekoak	Kontrakoak
<b>Neurketa akustikoen kanpaina</b>	Ikuskapenetan oinarritutako diagnostikoari lotuta egon daitezke, edo egoeraren ebaluazioari lotuta, modelizazio akustikoaren bidez, baimenak eman aurretik.	Langileak: akustikan adituak. Kostua: handia/ertaina, udaleko langileek edo azpikontratatuak egiten duten kontuan hartuta. Tresnak: sonometroak.	Jatorrizko lekuan jokabidea ebaluatzeko aukera ematen du, laginketaren arabera, funtzionamendu baldintza adierazgarrietan izango duen inpaktua zehazteko (kexei lotuta ez badaude beti).	Neurketek kostu handia dute, eta haren justifikazioa kudeaketarako baliozkoak diren ala ez, horren mende dago: erabakiak hartzea edo zigorrak jartzea.
<b>Kexen azterketa</b>	Kexak modu erreaktiboan identifikatzea jarduera egiten den egunetan.	Langileak: ikuskatzaileak Kostua: txikia (neurketekin osatzen ez badira). Tresnak: gai honi lotuta, zerbitzu estandarrek jasotako kexak berrikustea.	Herritarren erantzun zuzenak zehazten ditu lehentasunak. Kexei lotutako funtzionatzeko moduei buruzko datu base bat biltzeko aukera ematen du	Erantzun erreaktiboa da beti, eta neurri zuzentzaileak edo zigorrak definitzea zaildu dezakete.

#### 4.2.2.2. Teknikoki aztertzea

Planteamendua	Aplikazioa	Adibideak
<b>Ordutegiak</b>	Erabilgarritasun handiko kontrol aldagaia. Ordutegiekin jarduerarekin bateragarriak izan behar dute, baina baita atsedeen maila bat izateko aukerarekin ere. Kudeaketako tresna interesgarriak dira hauek: ordutegi desberdinak aplikatzea lanegunetan edo jaiegunetan, eta itxi aurretiko minutuetan soinurik atera ez dezaten eskatzea.	Auzoko eta herriko jaien arteko aldea, jaiegun eta asteburuko egunen eta lanegunen arteko aldea. Itxi aurreko orduan musika jartzea galarazten da, bai eta edariak saltzea ere.
<b>Instalazioen egokitzapena zein jardueraren baldintzak ezartzea, eta jardueraren zarata mailak mugatzea</b>	Igorpena kontrolatzeko aukera ematen du eta hura egokitzea, jarduera egitearen eta herritarren atsedeen artean irtenbide bat topatzeko konpromisoa bilatzeko orduan. Baldintzei lotuta, elementu hauek izan daitezke: – kontrola egiteko lana errazten duen mugagailua jartzea, baina aztertu behar da zer kasutan aplikatu daitekeen (hura erabiltzen bada, jardueran bertan soinu igorpena eten behar da)	Txosna talde batek eskatutako megafonia bakarra interes handiko aldagaia da, nahiz eta batzuetan ezinezkoa den. Nolanahi ere, honako hau da funtsezkoa: ekipo bakoitzaren igorpen akustikoa eremuaren erabilerarekin bateragarria izango den mailalara mugatzea, eta, hala, gertuko egoiliarrei sortutako inpaktua minimizatuko da. Potentzia eskaerak egokitu daitezke ordu tarteen edo asteko egunen arabera (haien garrantzia edo jaiegunak diren edo ez kontuan hartuta). Soinu igorpenaren muga kontrolatzeko, ohikoa da hurrengo erabilera:

Planteamendua	Aplikazioa	Adibideak
	<p>– Display bat erabiltzen da, jardueraren jokabide akustikoa egiaztatu ahal izateko (ez-betetzeak identifikatzeko aukera ematen du, baina ez beti unean uneko jarduketa bat). Ekitaldietarako, zenbaitetan, dBA mugatzeaz gain, dBC ere mugatzen da maiztasun txikiko igorpenengatiko eragozpenak nagusitzen diren egoerei erantzuteko.</p>	<p>Mugagailuak: txosnetarako: jarritako erreprodukzio ekipo bakoitzeko bat izan behar da. Ez-betetze egoeretan soinu igorpena etetea dakar, harik eta igorpenaren gehieneko maila berrezartzen den arte (ekipoa zigitatu zaion bolumena)</p> <p>Display/ erregistratzailea: kontzertuetarako: jarduera errazten dute, ez baitute igorpena eteten. Hura egin ostean, erregistratutako mailak aztertzen dira, eta atalasea zenbat aldiz gainditu den eta zenbat denboran kontuan hartuta, neurri zuzentzaileak ezartzen dira.</p>

#### 4.2.2.3. Jarraipena eta kontrola

Planteamendua	Aplikazioa	Egoera honekin bat dator
<b>Neurketa akustikoen kanpaina</b>	<p>Baliagarria da helburu eta planteamendu desberdinak dituzten bi ekinbidetarako:</p> <p>– Jardueraren plangintza fasean ebaluatzea, baimen baldintzatuak emateko: espero diren ondorioak izateko eta ondorio horiek egokitze ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen den prestakuntzaren parte izan daitezke. Ohikoa da soinu probak edo ekipoak instalatzeko unea izatea ezarritako baldintzak egiaztatzen direnean.</p> <p>– Ikuskapenak (kexei lotuta edo ez): jarduerak ezarritako baldintzak betetzen dituztela ikustea da helburua. Kexei lotuta egon daitezke, edo ez.</p>	<p>Edozein diagnostikorekin bat dator jarduera egiten den unean garatzen direnean.</p> <p>Baliagarriak dira jardueraren (aldian behin eta modu proaktiboan egiten badira) edo inpaktu ahalmen handieneko egoeren (kexaren une bati lotuta daudenean) batez besteko jokabidearen berri izateko.</p> <p>Baldintza akustikoak baliozkoak izan daitezke jardueraren plangintza fasean, baldin eta kanpainak soinua erreproduzitzeko ekipoetarako mugagailu akustikoa baldintzatzerantz bideratuta badaude, haien jarduerari egokitze.</p>
<b>Rexen azterketa</b>	<p>Baliagarria da hori adierazten duten herritarren eragozpenaren ebaluazioa aztertze.</p>	<p>Erantzuteko moduak disuasio-funtzioa izan dezake, baldin eta zehapenekin, zigitatzearekin edo jarduera etetearekin lotuta badaude.</p>
<b>Ikuskapenak</b>	<p>Baliagarria da jarduera gauzatzeko baldintzak baimenekin bat datozen zehazteko. Jarduera egiten denean edo ondoren eraman daitezke erregistratzaile bat dagoen egoeretako (mugagailuarekin edo display-arekin konbinatuta).</p>	<p>Osagai proaktibo bati nabarmen lotuta, gainera, jardueren jarraipena egiteko aukera ematen du, eta jasotzen duenari jakinarazten dio kontrol mekanismo batzuk badirela, baldintzak betetzearen ardura hartzeko.</p>
<b>Aurretiazko esperientzien historikoa eguneratzea</b>	<p>Ikuskapen eta kexen emaitzak jasotzen dituen jaietako jardueren datu base bat eguneratuta izatea, hauei lotuta: ekitaldiaren baldintzak eta kasu bakoitzean aplikatutako kudeaketa tresnak.</p>	<p>Informazio horri esker, gai horri eskakizun inkrementalekin heldu diezaiokegu kudeatzeko era eta kalitate akustikoko mailak emeki-emeki hobetzeko. Gainera, aurretiko egoeretan behin eta berriz eragozpenak sortu dituzten egoerei buruzko trazabilitatea izateko aukera ematen du, eta etorkizunerako kudeaketako jarraibideak errazten ditu.</p>



#### 4.2.2.4. Araudia eta kudeaketa

Jarraian, gai honetan aztertutako ordenantza gehienek partekatzen dituzten puntuak laburtuko ditugu:

##### ***Soinu helburua duten ekitaldiak***

###### **Herriko jaietan soinu helburua duten ekitaldien ordutegia**

*Soinu probak*: ordubetez baino ezingo dira egin, eta kontzertua eman behar den egunean egingo dira, arratsaldez (inoiz ez 17:00ak baino lehen eta 21:00ak baino geroago).

*Ekitaldiaren gehieneko iraupena*: udalak beste aukeraren bat ematen ez badu, ekitaldiak 3 ordu iraungo du.

*Amaitzeko ordutegirik berantiarrena*: udalak beste aukeraren bat ematen ez badu, 24:00ak aste-gunetan edo 01:30 jaiegunetan edo asteburuetan (ostiral eta larunbat gauak).

###### **Herriko jaietan soinu helburua duten ekitaldien zaratari lotuta funtzionatzeko baldintzak**

Ekitaldiei eskatutako gehieneko mailak zehaztuko dira udalaren helburuen eta haien hartzen dituen guneko baldintzen arabera (erabilera sentikorrek eta eremuko erreberberazio baldintzak gertu egotea). Proposamen bat izan daiteke jendea dagoen eremuan ebaluatutako 100 eta 90 dBA arteko igorpenen tartean balio bat finkatzea. Baldintza hori soinu probetan egiaztatuko zen.

Beste eskakizun bat izango zen audioa erreproduzitzeko ekipoak hartzaile sentikorrei musikaren norabidea minimizatzeko moduan jartzea. Horretarako, ekitaldiaren arabera, diseinu akustikorako aukera ematen duten irtenbide tekniko aurreratuak daude, soinu intentsitate handiena jendeak jaso dezan.

##### ***Txosnak***

###### **Txosnen ordutegia**

*Hasiera*: 11:00ak eta 12:00ak artean. Zamalanak hasiera ordua baino lehen egingo dira.

*Itxiera*: aldakorra eta, zenbaitetan, zehaztu gabea. Udalak, jai batzordearekin batera, finkatuko du jai ekintza zehatz bakoitzean. Oro har:

2:00etatik 03:00etara eta 5:00etatik 6:00etara (garrantzi handiko egunetan).

Auzoko jaietan, itxierarekin zorrotzagoak izan ohi dira, lanegunetan bereziki (24:00).

###### **Funtzionatzeko baldintzak, txosnen zaratari dagokionez**

Ahal den neurrian, txosnetako megafoniek bat egingo dute, eta haietako bat izango da arduradun.

Aplikagarria izango da soinua erreproduzitzen duten ekipoei mugagailua jartzea; hala, ezarritako gehieneko igorpen mailak ziurtatuko dira.

Gehieneko igorpen mailetan, jarraian, ordenantzetan gehien errepikatzen diren proposamen batzuk jasotzen dira. Nolanahi ere, udalerrri bakoitzerako azterlan bat egitea aplikagarria da; haren bidez, argitu ahalko da muga hori nolakoa izan beharko zen aldian-aldian txosnak jartzen diren ingurunea kontuan hartuz. Jarduera behin-behinekoa dela aintzat hartuta, **fatxadan gehieneko immisio** mailak onartu daitezke (soinu intzidenteak), txosnak dauden tokitik gertuen dauden etxebizitzetan neurtutakoak. Adibidez, honako maila hauek izan daitezke:

- 24:00ak arte: 70 dBA.
- 24:00etik itxiera arte: 65 dBA.

Nolanahi ere, ordenantzetan **gehieneko igorpen mailari** dagokionez gehien erabilitako erreferentziak hauek dira:

- A aukera: 24:00ak arte: 95 dBA eta 24:00etatik itxiera arte: 90/85/80 dBA.  
Aukera honetan, ebaluatzeko metodarik ez da zehazten. Funtsean, neurketa egiteko distantzia mugatu beharko zen.
- B aukera: gehieneko igorpen maila, bozgorailuetatik 3 metrora neurtuta:
  - Txosnak etxebizitzetatik 10 metrora baino gutxiagora badaude: 75/60 dBA
  - Etxebizitzetatik 10 eta 15 metro artean badaude: 80/70 dBA
  - Etxebizitzetatik 15 metro baino gehiagora badaude: 85/75 dBA

Beste aukera bat da txosnak dauden eremuak zonakatzea eta zenbait muga jartzea, izan dezaketen inpaktua (etxebizitzetatik gertu egotea) eta kokapenak jaietako jarduerarako duen garrantzia kontuan hartuta. Horrek eskatzen du instalazioen igorpen akustikoko proiektuan oinarritutako diagnostikoko prozedura aplikatzea.

Kautelazko neurriak hartzea edo txosnak epealdi mugatu baterako irekitzeko debekua ere aurreikus daiteke (egun, aste batzuk izan daiteke, edo ekitaldi osorako), edo materialak konfiskatzea.

## **Barrakak**

### **Barraken ordutegia**

*Hasiera:* finkatu gabe

*Itxiera:* 24:00ak arte jaiegunetan eta 22:00ak arte lanegunetan. Musika kenduz gero, geroago ixten uzten zaie (03:00 eta 04:00, hurrenez hurren).

### **Funtzionatzeko baldintzak, barraken zaratari dagokionez**

Megafonia bakarra eskatzen da, eta banan-banako mezuak emateko aukera emango.

Soinua igortzeko mugaren harira, txosnek duten antzeko tratamendua aplikatu ahalko da. Nolanahi ere, jarduera horietako erabiltzaileak adingabeak direnez, zaratatik gehiago babestu behar dira, eta, beraz, soinu mugak murriztaileagoak izatea gomendatzen dute. Hortaz, hizpide dugun kasuan, aurrez aipatutako B aukerako txosnetarako proposatutako soinu maila horren mugak 5 dBA-tan murriztea gomendatzen da (erabiltzailea ere babesten duena).



Bestalde, txosnetarako egin den moduan, aplikagarria da ekipoei mugagailu bat jartzea finkatutako igorpen mugak bermatze aldera.

Zenbait udalek fidantza emateko beharra ezartzen dute edo baimenak prekarioan ezartzea; beraz, ez-betetzereen bat badago, automatikoki baliogabetu egingo da kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izan barik.

Prekarioan dauden baimen horiei esker, espazio publikoaren erabilera denbora mugatu batez laga daiteke, baita doakoa ez bada ere, baina erabilera hori berreskuratzeko aukerarekin, baldin eta prekaristak baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

Kautelazko neurriak hartzea edo txosnak epealdi mugatu baterako irekitzeko debekua ere aurreikus daiteke (egun, aste batzuk izan daiteke, edo ekitaldi osorako).

Lehen aipatutako mugak urtero nahitaezko baimenean sartzeko iradokitzen dugu, honako hau kontuan hartuta: txosnen eta barraken kokalekua aldagai garrantzitsua izango da haiek funtzionatzeko baldintzak ezartzeko orduan, eta kokapen hori aldatu daiteke urte bakoitzean jar daitezkeen txosna eta barraka kopuruaren arabera. Horrenbestez, inguruabarrak urtero egokitu ahalko dira izapidetzen diren barraka nahiz txosna eskaeren tipologiaren eta kopuruaren arabera.

Kasu guztietan, aplikagarria da xede-balioak kudeaketa tresna gisa behin-behinean etetea.

Dena den, ordenantza akustikoan, jaien ordenantzan edo udalerrian dauden beste ordenantza batzuetan zehapen araubidea ezartzea iradokitzen dugu.

#### *XX. artikulua. Barrakak eta txosnak*

*Arau hauste arinak izango dira:*

- *Ordutegi baimendua ordubete baino gehiago gainditzea.*
- *Musika ekipoak ateratako soinuak festarako baimendutako muga 2 dBA-tan gainditzea.*

*Arau hauste astunak izango dira:*

- *Ordutegi baimendua ordubete eta ordu eta erdi artean gainditzea.*
- *Musika ekipoak ateratako soinuak festarako baimendutako muga 2 eta 4 dBA artean gainditzea.*
- *Jaiak udalaren baimenik barik egitea.*
- *Falta arinak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta arin baino gehiago.*

*Arau hauste oso astunak izango dira:*

- *Ordutegi baimendua ordu eta erdi baino gehiago gainditzea.*
- *Musika ekipoak ateratako soinuak festarako baimendutako muga 4 dBA baino gehiago gainditzea.*
- *Falta arinak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta arin baino gehiago.*

Udalerrri batzuetan erabili diren beste tresna arrakastatsu batzuk hauek izan dira:

1. Jai batzordearekin eta txosnekin adostea musika ekipo bakarra erabiltzeko aukera.
2. Barraketako titularrekin adostea musika ekipo komuna erabiltzeko aukera.
3. Txosnak eta barrakak hirigunetik kanpo jartzea, hau da, hiriaren inguruan. Horrek eskatzen du inguru horrek garraio publikorako sarbide ona izatea.
4. Auzoko eta herriko jaien arteko aldeak ezartzea, bai eta jaiegunen eta lanegunen artean ere.

Udalaren baimenak ekitaldi bakoitzari lotutako zarata mugak ezarriko ditu, honen arabera: ekitaldiaren ezaugarriak eta kokapena, jarraikortasuna edo aukerari lotutako beste arrazoi batzuk.

Azkenik, faseka eta modu inkrementalean jorratzea interesgarria izan daiteke ekitaldi eta jardue-  
ra horien sustatzaileek ikus dezaten egokia dela neurri horiek aplikatzea, horiek gauzatzearekin  
bateragarri egiteko. Funtsezkoa da udalak esperientzia praktikoa oinarritutako konpromisozko  
konponbide bat lortzea, beste udal batzuetan egindakoaren balioa nabarmentzeko, baina, betie-  
re, proiektuaren autoezagutzatik eta neurketatik abiatuta; izan ere, proiektu hori, sarritan, jardue-  
ra horiei lotuta jasotako kexen bolumenaren garrantzi erlatiboaren ebaluazioaren bidez aztertzen  
da. Horretarako, interesgarria da datu base batean hau jasotzea: funtzionatzeko moduei lotutako  
jarduera bakoitzaren kexen ikuskapenen edota ebaluazioaren emaitzak, diagnostikoko prozedu-  
ren proposamenetan aipatu den moduan.



**GOMENDATUTAKO  
JARDUNBIDE  
EGOKIAK**



Aurreko ataletan, kudeaketako jarraibideak zehazten dira udal bakoitzak hautatu edo ezar dezan bere benetako arazoari ondoen egokitzen zaiona. Jarraibide horiek zenbait gai kontuan hartzen ditu, esaterako: gaiak udalean duen lehentasuna (eragozpen mailak baldintzatuta), erabili daitezkeen baliabideak eta baliabide politikoak, edo egiteko moduak.

Jarraian, gai bakoitzerako gomendagarriak diren jardunbide egokien aukerak zehazten dira, udalak gaia jorratu egin behar dela uste duen egoeren lan proposamen modura. Nolanahi ere, jarduteko jarraibide orokorrak proposatzen dira, eta udal bakoitzaren ezaugarri eta baldintza zehatzetara egokitu beharko dira.

Gai bakoitzerako planteamenduaren arrazoibide labur bat aurkezten da, bai eta kudeatzeko jarraibideei lotuta gomendatzen den aukera aurkezteko eskema bat ere, esaterako: diagnostikoa, esparru tekniko-juridikoa eta egiaztapena nahiz jarraipena.

## 5.1. Ostalaritzako jardueren kanpoko terrazak

Terrazak akustikoki kudeatzeko, jarduerak sortutako soinu maileri zuzenean lotu gabeko gaiak daude, baina eragozpena sortzeko orduan funtsezkotzat jotzen direnak. Honako hauek dira: jardueraren ordutegia eta espazio publikoa okupatzea.

Terrazetako zarata kudeatzeko inbertitutako baliabideak ezin hobekak dira aldagai horiek kontuan hartuta, eta ez da nahitaez aplikatu behar zarata mailaren kontrola (bereziki, eragozpena sortzen duen foku bat hari lotzea konplexua denean). Terrazetarako aldi baterako baimenak izapidetzeko, funtzionatzeko baldintzak argi eta garbi adierazi behar dira eta, puntu horretan, ongi ikusteko modukoak izatea (karteletan ezarritako eskemen bidez, erabiltzaileek eta bizilagunek erraz ikus ditzaten) kontuan hartu beharrekoa balioa izango da. Azkenik, ostalarien eta erabiltzaileen artean kontzientziazio kanpainak abian jartzea interesgarria izan daiteke, zehatzeko eta kontrol proaktiboko eta aldizkako politika argi batekin batera.

### Diagnostikoa:

- Rexa kopurua eta zenbait aldiz errepikatzen diren.
- Terrazen inbentarioa: kaleak, kokapena, espazioaren okupazioa eta ordutegiak.
- Lehentasunezko eremuetako inpaktu akustikoaren ebaluazioa (funtzionatzeko baldintzak ikuskatuz edo lehentasunezko eremuetako soinu mailak etengabe erregistratuz).

### Esparru tekniko juridikoa:

- Honako hauek zehazteko ordenantza baten interesa aztertzea: ordutegiak, terraza izan dezaketen lokal motak eta funtzionatzeko baldintzak, era honetan: espazio publikoa okupatzea, irudia eta soinua erreproduzitzeko ekipoak eta terrazako instalazioak.
- Baimenak: emateko eta berrikusteko baldintzak (zehapen prozesuei lotuta).
- Ostalariekin lankidetzan aritzea erabiltzaileekin kontzientziazio-kanpainak egiteko eta jardunbide egokiak aplikatzeko.

### Egiaztapena eta jarraipena:

- Kexen azterketa.
- Aldizkako ikuskapen proaktiboak eta unean-uneke erreaktiboak (neurketarik gabe).
- Baimenetan ondorioak izango dituzten zehapen espedienteak izapidetzea (indarraldia edo berrikuspenaren aldizkakotasuna).

## 5.2. Gazteen lokalak eta txokoak

Kasu honetan, arazoa zenbaterainokoa den kontuan hartuta, agian ez da beharrezkoa kasuistika-ren aurretiazko diagnostikoa egitea. Bestalde, gaiaren kudeaketa akustikoari dagokionez, kontzientziario lana eta erabiltzaileen laguntza izan daitezke balio handieneko elementuak inpaktuak minimizatzeko eta bizilagunekiko harreman ona bermatzeko. Hasieratik, jarduera kanpoan ezin dela egin argi geratuko da, eta kontrolatu egingo da.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, bizitegi-lurzoru hirita-rrean ezarri beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko arau tekniko orokorrak onartzen dituenak, aipatzen duela *txokoak* zer diren: jendearentzat irekitako lokalak eta establezimenduak, musika aparatu estereofonikoak eta sukaldekoak (frijigailuak, plantxak eta erretegiak) dituztenak, edo ez; beraz, jarduera lizentziaren araubidea bete behar dute.

Gainera, 3/1998 Legeak jarduera sailkatutzat jotzen ditu (jarduera lizentziaren araubidea bete behar dute), betiere baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- 300 pertsonarentzako edo gehiagorentzako lekua izatea.
- Lau ohmeko karga estandarrerako 50 watt baino gehiagoko potentzia duen musika ekipoa izatea.
- Arrisku berezi handiarekin katalogatutako barrutiren bat izatea, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.
- Kultura balioa duten eraikinak izatea, eta haien ezaugarri arkitektonikoek aukerarik ez ematea oro har ezarritako baldintza teknikoak erabat betetzeko.
- Araubide bereziko establezimenduak izatea, ikuskizunen eta jolas jardueren araudiaren arabera.

Gainerako jarduera sailkatuek, ikuskizun publikoak edo jolas jarduerak ezartzeak, aurretiazko jakinarazpenaren araubidea bete beharko dute.

Gainera, abenduaren 23ko 10/2015 Legeak (Ikuskizun Publikoei eta Jolas Jarduerei buruzkoa) aisialdiko establezimendu gisa bereizten ditu gazteen lonjak eta *txokoak* eta elkarte gastronomikoak ostalaritzako zein jatetxeetako establezimendu gisa.

### Diagnostikoa:

- Kexa kopurua eta zenbait aldiz errepikatzen diren.
- Lokalen inbentarioa eta ikuskapenak: kokapena, funtzionatzeko baldintzak eta kanpoko espazio publikoa erabiltzeko azterketa.

### Esparru Tekniko Juridikoa:

- Lokal horiek lizentziaren edo komunikazioaren xede diren jarduera gisa berariaz integratzea.
- Erabiltzaileei eskatzea debekatuta dagoela lokalaren kanpoaldean zarata ateratzea.
- Erabiltzaileei bitartekaritza prozesu bat zabaltzeko aukera, inpaktua prebenitzeko eta jarduera horiek inguruko eremuetara eramanez ahal izateko.
- Inpaktua minimizatzeko (kanpoan eta barruan) lokaletako erabiltzaileekin kontzientziario kanpainak egitea.

### Egiatzapena eta Jarraipena:

- Kexen azterketa.
- Aldizkako ikuskapen proaktiboak eta unean-unean erreaktiboak (neurketarik gabe).
- Lokala ixtea ekarriko duten zehapen espedienteak izapidetzea.
- Inpaktua minimizatzeko (kanpoan eta barruan) lokaletako erabiltzaileekin kontzientziario kanpainak egitea.



### 5.3. Bide publikoan sortzen den zarata, egunez edo gauez

Arazo hau kudeatzea bereziki zaila da, foku igorlea aldatu egiten baita eta ez dago sustatzaile zehatz bati lotuta. Hori dela eta, modu integralean jorratu behar da, eta kudeatu daitezkeenak erreaktiboki edo kontrolean lan proaktiboa eginez berezi behar dira. Lehenengoa kexak kudeatzeko prozesu argi batean oinarrituko zen, eta prozesu horretan era honetako jarduerak sortu ditzaketen kexei emandako erantzuna zehaztuko da. Aurrez planifikatutako eremuetako jardueretan (kirol pistak eta atsedenlekuak, adibidez), erabiltzeko baldintzak finkatzeko beharra gomendatzen da, zer-nolako tipologia eta kokapena duten kontuan hartuta.

Inpaktu handia badago eta egoera jakin batzuk errepikatzen badira, bereziki gaueko aisialdiko lokalen kanpoaldean, erabiltzaileak sarrera-irteeran pilatuz, ateen parean, ilaretan talde txikiak elkartuz, hurrengo taulan adierazitako jarduketak gomendatzen dira. Gertaera horien baldintzak aldatzen direla-eta (ordutegia eta soinu mailak), egoera etengabe monitorizatzeko beharra sortu daiteke, arazoaren bilakaeran trazabilitatea izateko asmoz. Lehentasunezko arazo bat dagoenean, soinu maila handiko eremu izendatzea interesgarria gerta daiteke esku-hartzeari esparru juridiko bat emateko.

#### Diagnostikoa:

- Kexa kopurua eta zenbait aldiz errepikatzen diren.
- Eremuen inbentarioa: espazioa mugatzea, jardueraren ordutegiak eta hari lotuta izan daitezkeen lokalak, egoera sailkatzea (lokaletarako sarbidegatik, eremuen arteko joan-etorriagatik edo bide publikoan dagoen jende pilaketagatik).
- Lehentasunezko eremuetako soinu maila ebaluatzea (soinu maila erregistratzea eta ebaluazioa orduka).

#### Esparru Tekniko Juridikoa:

- Erabiltzaileei zigorrak jartzeko aukera emango duen esparru juridikoa garatzea (saihestu daitezkeen zaratagatik eta hari lotutako beste kasuistika batzuegatik, hala nola bide publikoa garbitzea).
- Soinu maila handiko eremuaren figurari erantzuteko interesa aztertzea.
- Elkarlaneko bitartekaritza prozesu baten bidez kudeatzea: lokalen jabeak inpaktuaren kudeaketan inplikatzeko, kontzientziario kanpainak abiaraztea eta eragozpenaren edo inpaktuaren bilakaera egiaztatzea egoiliarrei egindako elkarrizketen/inkestaren bidez.

#### Egiaztapena eta Jarraipena:

- Kexen azterketa.
- Inpakturako ahalmen handiena duten eremuetako soinu mailak modu jarraituan ebaluatzea.
- Soinu maila handiko eremu izendatzeko esparruan jarduketak egitea.
- Udaltzainak eremuan gehiagotan agertzea.
- Zehapenak erabiltzaileei, haien kontzientziarioa ekar dezaketanak.

### 5.4. Udalaren obrak eta zerbitzuak

Zerbitzua gauzatu beharrak eta ekipoek eta makinek sortutako mailak murrizteko dauden muga teknikoek baldintzatzen dute jarduera mota horren inpaktua murrizteko aukera. Nolanahi ere, jardunbide egokiak aplikatu beharko dira, bereziki, leku zehatz bateko iraupen luzeko obretan eta jardueratik erabilera sentikorretarako distantzia txikia den espazioetan.

**Diagnostikoa:**

- Kexa kopurua eta zenbait aldiz errepikatzen diren.
- Erabilera sentikorreko fatxadan zarata maila bat betetzea eskatzearen egokitasuna aztertzea (erraz egiazta daitekeena).

**Esparru Tekniko Juridikoa:**

- Bi eskakizun mota dituzten obra baimenak kudeatzea:
  - Inpaktu txikiko obretarako (kokapen berean denbora gutxi edo erabilera sentikorretatik urrun): makinek legea betetzea, jardunbide egokiak eta bizilagunei informazioa ematea.
  - Inpaktu handiko obretarako (kokapen berean edo erabilera sentikorreko gertuko leku batean denbora asko egotea): inpaktuaren azterketa akustikoa egiteko eskakizuna (6 hilabete baino gehiago).
- Oro har: ordutegien kontrola eta kasuistika zehaztetarako baimen bereziak izapidetzea.
- Aldagai hori baldintza pleguetan sartzea.
- Xede-balioen behin-behineko etenaldia aplikatzea.

**Egiaztapena eta Jarraipena:**

- Inpaktu txikiko obretarako: ikuskapen proaktiboak edo erreaktiboak (herritarren kexei erantzuteko), honako hauen begizko egiaztapena barne hartzen dutenak: makinak, ordutegiak eta jardunbide egokiak betetzea eta, kontrolatu behar denean, zarata-mailak betetzea.
- Inpaktu handiko obretarako: aurreikusitako neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatzeke eta zarata mailak betetzen direla egiaztatzeke ikuskapen proaktiboak.

## 5.5. Bide publikoko ekitaldiak eta megafonia

Gertaera gauzatu ahal izateko soinu erreprodukzioa izateko eskaerak (soinu helburua izan ala ez) zehazten du eskakizun maila. Bestalde, urtean zehar kokapen berean egitea behin baino gehiagotan (maiztasunaren kudeaketa) funtsezkoa da inpaktua edo eragozpena erabakitzeke. Inpaktua urrutitik ebaluatzeko aukera ematen duten teknikak erabiltzea komeni da inbertitutako baliabi-deak murrizteke. Puntu horretan, ekitaldiaren sustatzaileak igorpenaren autokontrolerako duen inplikazioa positibotzat jotzen da, halaber, denboran zehar eskatzen den ikaskuntza eta gerturatze inkrementala bultzatzeko.

**Diagnostikoa:**

- Kexa kopurua eta zenbait aldiz errepikatzen diren.
- Egon daitezkeen agertokien inbentarioa: ekitaldien kopurua eta tipologia eremuka, maiztasunaren ebaluazioa eta sortutako zarata mailen eta eragozpenen ebaluazioak alderatzea.
- Gai horri buruzko azterlan espezifiko bat egitea egokia den aztertzea, eremukako inpaktua ebaluatzeko eta agertoki bakoitzeko ekitaldiak baldintzatzeko.

**Esparru Tekniko Juridikoa:**

- Ekitaldien baimenak kudeatzea: soinu probetan egiaztatu beharreko ordutegiak eta zarata mailak betetzea (ordutegian ere mugatuta).
- Etorkizunetako jarduketetarako ikasitako guztia aplikatzea.

**Egiaztapena eta Jarraipena:**

- Kexen azterketa.
- Ekitaldiak sortutako mailen ebaluazioa, informazioa udalera bidaltzen duten display/erregistratzaileen bidez.
- Udaleko teknikariek edo langile azpikontratatuak jatorrizko lekuan unean-unean egindako ikuskapenak.
- Baldintzak ez betetzeagatik ezarritako zigorrak, zarata-mailei dagokionez, mailen eta gainditzeak irauten duen denboraren ehunekoaren arteko konbinazioa izatea.
- Ekitaldien datu basea sortzea, erabakirako funtsezko informazioa duen jarraipen-tresna gisa.



## 5.6. Jaietako jarduerak: soinu helburua duten ekitaldiak, txosnak eta barrakak

Inpaktua urrutitik kontrolatzea funtsezkoa da kudeatzeko jarraibideak ezarri ahal izateko. Jardueren kokapenak zarata sortzeko gaitasuna zehazten du, haien garapena (jaietako jardueraren errealitatera egokitutako eskakizunekin) nolabaiteko atsedenarekin bateragarri egiteko. Orduetuen kudeaketa garrantzitsua da, eta interesgarritzat jotzen da irtenbide teknikoak aplikatzea, hala nola mugagailuak, *display*ak eta erregistratzaileak, ikuskapen beharra murrizten baitute. Jardueraren sustatzaileekin lankidetzan aritzea ezinbestekoa da horrelako irtenbideen betearazpen materiala ziurtatzeko.

### Diagnostikoa:

- Kexa kopurua eta zenbait aldiz errepikatzen diren.
- Beste udal batzuetan ezarritako baldintzak aztertzea eta haiek aplikatzeko egokitasuna ebaluatzea, erabilera sentikorrekiko ekitaldien, txosnen eta barraken kokapenaren arabera.
- Gai horri buruzko azterlan espezifiko bat egitea egokia den aztertzea, eremukako inpaktua ebaluatzeko eta agertoki bakoitzeko ekitaldiak baldintzatzeko.

### Esparru Tekniko Juridikoa:

- Honako hauen baimenak kudeatzea: soinu probetan egiaztatu beharreko ordutegiak eta zarata mailak betetzea (ordutegian ere mugatuta).
- Jaietako ekitaldiak: beste ekitaldi batzuetarako zergen antzeko baldintzak urteko gainerako ekitaldietan, baina eskakizunetan laxotasun handiagoa izanik.
- Txosnak: ekipoen kopuruari, kokapenari, bai eta megafonien kopuruari jarritako baldintzak. Mugagailuak eskatzea eta ordutegiak betetzea.
- Barrakak: erabiltzailearen profilaren arabera soinu igorpena, musikari dagokionez (mugagailuak zehazteko aukera). Soinua erakartzeko sistemen baldintzak.
- Etorkizunetako jarduketetarako ikasitako guztia aplikatzea.

### Egiaztapena eta Jarraipena:

- Kexen azterketa.
- Jarduerak sortutako mailen ebaluazioa, informazioa udalera bidaltzen duten display/erregistratzaileen bidez.
- Udaleko teknikariek edo langile azpikontratatuak jatorrizko lekuan unean-unean egindako ikuskapenak.
- Baldintzak ez betetzeagatik ezarritako zigorrak, zarata-mailak mailen eta gainditzeak irauten duen denboraren ehunekoaren arteko konbinazioa denean (ekitaldietan), eta txosna eta barraketan, mugagailuak manipulatzeko eragiten duten jarduketak.
- Ekitaldien datu basea sortzea, erabakirako funtsezko informazioa duen jarraipen-tresna gisa.





# LAGUNTZERO BALIABIDEAK (LB)



Atal honetan, proposatutako laguntzeko baliabideak zehazten dira gidan kontuan hartutako gai bakoitza jorratzeko euskarri gisa.

- 1. eranskina: LB1: KEXAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN PROPOSAMENA: zaratari lotutako herritarren kexei eta eskariei erantzuteko barne protokolo bat zehaztea du xede. Baliozko elementua da, udalaren eta herritarren artean konpromiso hautemangarriak ezartzeagatik eta herritarrei erantzun koordinatua emateagatik. Gidan jorratutako gai guztiei aplikatu dakieke, jorratze hori erreaktiboa denean batez ere.
- 2. eranskina: LB2: IKUSKAPENENKO PROZEDURA: gai jakin bakoitzari egokitu beharreko hainbat izaeratako ikuskapen akustikoak egiteko izan daitezkeen metodologiak adierazten ditu. Hura garatzeak neurketa akustikoak egitea edo ez egitea ekar dezake, eta aplikagarria da udalak erregulazio edo baimen kontrola egin dien gaitan, eta soinu eragozpenaren erantzulea nor den argi dagoenean, zehatu beharreko gaitan.
- 3. eranskina: LB3: KUDEAKETARAKO DIAGNOSTIKO AKUSTIKOKO PROIEKTUAK: jorratutako kasuistikak diagnostikatzeko aukera emango duten azterlan akustikoak egiteko garaian bete beharreko jarraibide metodologikoak adierazten ditu. Lan horiek kanpoko azpikontratazio baten zati direla onartzen da, udalaren baliabide teknikoak ez baitira nahikoa izaten horiek garatzeko. Proiektu akustiko baten emaitzak erabilgarria izan behar du araudia edo baimenak baldintzatzen dituen kudeaketako tresnak zehazteko, eta udalean erabakiak hartzeko aukera eman behar du. Haren garapena interesgarria da, betiere kostu/onura harremana justifikatuta badago.
- 4. eranskina: LB4 ARAU PROPOSAMENA: atalak azaltzea, berariazko ordenantza bat idazteko edo testu hori osatu beharreko ordenantza batean sartzeko. Esku hartzeko lege esparrua ematen da, eta, hari esker, jarduerak baldintzatzeko eta kontrolatzeko beharrak errazten dira. Bereziki interesgarria da jarduera iraunkorra denean (edo hura egiteko baldintzak iraunkorrak direnean), eta egokitzapen akustikoa aplikatzeko arduraduna argi eta garbi identifikatu daitekeenean.
- 5. eranskina: LB5 BAIMENA EMATEKO PROPOSAMENA: zarata foku horietako edozeini lotutako baimen bat izapidetzeko sartu beharreko eduki-proposamena da. LB4ren antzera, udalaren jarduera gauzatzeko arau proposamena ematen du. Araudia bereziki aplikagarria izan daiteke jarduera gauzatzeko aldi baterako baimenetan. Askotarikoak izango dira baimenen izapide bakoitzarekin aplikatu beharreko eragozpena minimizatzeke baldintza akustikoak: udalerriko eremuen eta jardueren baldintzei egokituak, eta aldian behin berrikusteko edo eguneratzeko aukera izanik. Proposatzen den arau testuingurua, beraz, hainbat baldintza akustikori egokitzen zaie.
- 6. eranskina: LB6: BITARTEKARITZA: planteamendu horretan, arau edo baimen proposamena egon edo ez, bizilagunekin eta erabiltzaileekin lankidetzan aritzeko erabakia hartzen da, inpaktuak minimizatzeke eta jarduera gauzatzeko. Era horretako gerturatzeak beharrezkoak izan daitezke arau mailako testuinguruarekin edo testuingururik barik, baina interes berezikoak izan daitezke hura espezifiko ez denean edo ez denean existitzen. Denboran irauten duen eragozpenak gatazka soziala eragin dezake, eta jorratzeko ordezkoko beste mekanismo batzuk ezarri behar dira. Era horretako adibide ohikoa izaten da gaueko aisialdiari lotuta bide publikoan pilatzen den jendetza.

- 7. eranskina: LB7 SOINU MAILA HANDIKO EREMUAK: bizikidetzako guneetan sortutako zarata kudeatzeari zuzenean lotuta erabiltzen den figura bat da, araudi baten beharra duena. Bereziki aplikagarria da terrazetan eta gaueko aisialdian, espazio publikoan jendea pila-tzea eragiten lekuetan, hain zuzen ere. Horrek ahalmena emango luke ordutegiaren kudeaketarako, kontrol jarduerak indartzeak eta etorkizuneko lizentziak izapidetzeko jarraibide batzuek ekar ditzaketen eragozpenak minimizatzeko zenbait jarduera egiteko.

Hurrengo matrizean zehazten dira adierazitako laguntzeko baliabideek zer gairi eman diezaiaketen euskarria. Haietako bakoitza eranskin batean garatzen da, eta eranskin horretan zehazten da zer neurri bete behar diren aplikatu beharreko gaitan.

LAGUNTZEKO BALIABIDEAK	OSTALARITZAKO JARDUEREN KANPOKO TERRAZAK	GAZTEEN LOKALAK ETA TXOKOAK	RUIDO DIURNO OCACIONADO EN LA VÍA PÚBLICA	BIDE PUBLIKOAN ERAGINDAKO ZARATA, EGUNEZ	BIDE PUBLIKOAN ERAGINDAKO ZARATA, GAUEZ	UDALAREN OBRAK ETA ZERBITZUAK	BIDE PUBLIKOKO EKITALDIAK ETA MEGAFONIA
LB1: KEXAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN PROPOSAMENA (1. ERANSKINA)							
LB2: IKUSKAPENEKO PROZEDURA (2. ERANSKINA)							
LB3: KUDEAKETARAKO DIAGNOSTIKO AKUSTIKOKO PROIEKTUAK (3. ERANSKINA)							
LB4 ARAU PROPOSAMENA (4. ERANSKINA)							
LB5 BAIMENA EMATEKO PROPOSAMENA (5. ERANSKINA)							
LB6: BITARTEKARITZA (6. ERANSKINA)							
LB7: SOINU MAILA HANDIKO EREMUAK (7. ERANSKINA)							



## 1. ERANSKINA: LB1 KEXAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN PROPOSAMENA

Hurrengo gidan jorrotutako gaietara heltzeko izan daitezkeen jarraibideetako bat proposamen erreaktibo bati lotzen zaio; beraz, kexen kudeaketari dagokionez, udal prozedura argi bat izatea herritarrentzat egindako baliozko proposamentzat jo daiteke. Finean, udalaren kalitate akustikoari buruzko eskaera egin ondoren udalari, herritarrei egin beharreko zerbitzu eta jardueren berri eman beharko zitzaizkien.

Azpimarratu behar da hemen zehaztutakoa dimentsio akustikoari baino ez dagokiola, eta egokitu egin beharko dela beste aldagai batzuk txertatzeko, askotan lotuta daudenak, hala nola irisgarritasuna, garbitasuna edo segurtasuna. Hemen proposatutako prozedurak maximoen gerturatzeko dira, eta egokitu egin behar dira, udalaren helburuak, arazoaren zenbaterainokoa eta baliabideen eskuragarritasuna kontuan hartuta.

**Txosnei eta barrakei buruzko kexa akustikoetarako kudeaketako jarraibideen proposamena; bide publikoko ekitaldiak eta megafonia; bide publikoan sortzen den zarata, egunez edo gauez, eta obrak.**

Kasu gehienetan, bi egoera sortu daitezke; lehenengoa, unean-uneke eragozpenei buruzkoa da, eta bigarrenak, berriz, eragozpen iraunkorrak sortzen ditu, eta bi egoeretan ere kexak izan daitezke. Egoera horiek aipatuko ditugu ondoren:

### 1. Unean uneko kexak:

Berehalako konponbidea eskatzen duten unean-uneke jarduerengatik kexak Udaltzaingoari edo dagokion ingurumen arloko ikuskaritza zerbitzuari aurkeztea proposatzen da (funtsezkoa da mota horretako eskaerei erantzuneko dien saila edo langileak identifikatzea eta horien berri ematea). Nolanahi ere, udaleko beste sail edo arlo batera iristen badira, esleitutako sail edo arlora ahalik eta bizkorren bideratu beharko dute.

Herritarren jakinarazpena jasota, jatorrizko lekuan ikuskapena egingo zen ahalik eta bizkorren, salatutako maila akustikoak egiaztatze aldera.

Ekitaldi edo jarduera igorlea amaitu bada, jatorrizko lekuan egindako ikuskapenak haren erantzulea egiaztatu nahiko du ahal duen neurrian; hala, etorkizuneko ikuskapenak lehenesteko eta planifikatzeko aukera izango da.

Mailak egiaztatu ahal izan badira, eta neurketaren emaitzak hala iradokitzen badu, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak 56. artikuluan xedatutako behin-behineko neurriak aplikatu ahaliko dira, jarduera zer baldintzatan baimendu den edo egiten ari den kontuan hartuta.

Azkenik, egindako jarduketara kexa jarri duen pertsonari jakinaraztea proposatzen da.

## 2. Kexa jarraituak edo iraunkorrak <sup>(4)</sup>:

Jarduera jarraitu edo aldizkako baina denbora luzeko batek eragindako eragozpenetarako, prozedura honen arabera aztertzea proposatzen da:

Jatorrizko lekuan ikuskatzea edo maila akustikoak neurtu barik.

Jarduera igorlearen harira, udalaren artxiboetan dagoen informazioa aztertzea, administrazioaren esku-hartzeari lotutako (edo ez) jarduera den zehazte aldera.

- Administrazioaren esku-hartzeari lotutako jarduera bada, legezkotasuna berriz ezartzeko espedientea edo zehapenekoa abiaraziko zen.
- Administrazioak esku hartu behar ez duen edo arautu gabe dagoen jarduera bada, baina terraza jarduerari lotuta badago, igorpenaren erantzukizuna jarduera nagusiaren subjektu titularrarena dela iritziko da, eta espedientean ohartarazpen gisa jasoko da. Jokabide hori Ikuskizun Publikoei buruzko Legearen 53.14 artikuluan barruan sar daiteke; bertan tipifikatzen da arau hauste arin modura, *“jarduera edo ikuskizuna garatzeko jarduketei, epeei, baldintzei edo betekizunei dagokienez Administrazioaren aurka lege honetatik sortutako betebeharrak ez betetzea, arau hauste oso astun edo astun gisa tipifikatu gabeak”*, eta jokabide horren erantzukizuna honako pertsona hauei egozteko aukera ematen du:
  1. *Lege honetan ezarritako arau hauste administratiboan erantzuleak dira lege honetan tipifikatutako egite edo ez-egiteak burutzen dituztenak, ez-betetze huts gisa bada ere, eta, zehazki, honako hauek:*
    - a. *Ikuskizunetarako edo jolas jardueretarako lokal edo instalazioen titularrak, edo kasuan kasuko lizentzien edo aurretiazko jakinarazpenen titularrak.*
    - b. *Ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileak, beren ardurapeko egintza eta ez-egiteengatik.*
    - c. *Establezimendu, ikuskizun eta jolas jardueren zerbitzura lan egiten duten artistak, interpreteak eta betearazleak.*
    - d. *Ikusleak eta erabiltzaileak.*

<sup>(4)</sup> Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak, Ikuskizun publikoen eta jolas jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duenak, erantzukizun hauek ezartzen ditu  
“54. artikulua. Erantzuleak.

1. *Lege honetan ezarritako arau hauste administratiboan erantzuleak dira lege honetan tipifikatutako egite edo ez-egiteak burutzen dituztenak, ez-betetze huts gisa bada ere, eta, zehazki, honako hauek:*
  - a) *Ikuskizunetarako edo jolas jardueretarako lokal edo instalazioen titularrak, edo kasuan kasuko lizentzia edo aurretiazko jakinarazpenen titularrak.*
  - b) *Ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileak, beren ardurapeko egite eta ez-egiteengatik.*
  - c) *Establezimendu, ikuskizun eta jolas jardueren zerbitzura lan egiten duten artistak, interpreteak eta betearazleak.*
  - d) *Ikusleak eta erabiltzaileak.*
2. *Lizentzia edo baimen egokiak eskatzen ez badira edo aurretiazko jakinarazpenak aurkezten ez badira, honako hau iritziko da: titularrak edo antolatzaileak da ikuskizun publiko edo jolas jarduerak bat egiteko deialdia egiten duena edo horren berri ematen duena, edo, halakorik ezean, sarrerak lortzen dituen establezimendu publikora, instalazioa edo espazio irekira sartzeko eserlekuak saltzeagatik, edo ikuskizun publiko edo jolas jarduerak ikusteko.”*
3. *Titularrak eta antolatzaileak erantzule solidarioak dira lege honetan araututako arau hauste administratiboetan esku hartzen dutenek eta haien mende daudenek egindako arau hausteetan, arau haustea prebenitzeko betebeharrak betetzen ez dutenean.*
4. *Titularrak eta antolatzaileak erantzule solidarioak dira, egite edo ez-egiteengatik, jendeak edo erabiltzaileak arau hausteak egiten uzten dutenean”.*



2. *Lizentzia edo baimen egokiak eskatzen ez badira edo aurretiazko jakinarazpenak aurkeztu ez badira, honako hau iritziko da: titularra edo antolatzailea da ikuskizun publiko edo jolas jarduera bat egiteko deialdia egiten duena edo horren berri ematen duena, edo, halakorik ezean, sarrerak lortzen dituena establezimendu publikora, instalaziora edo espazio irekiera sartzeko eserlekuak saltzeagatik, edo ikuskizun publiko edo jolas jarduera ikusteko.*
3. *Titularrak eta antolatzaileak erantzule solidarioak dira lege honetan araututako arau hauste administratiboetan esku hartzen dutenek eta haien mende daudenek egindako arau hausteetan, arau haustea prebenitzeko betebeharra betetzen ez dutenean.*
4. *Titularrak eta antolatzaileak erantzule solidarioak dira, egite edo ez-egiteengatik, jendeak edo erabiltzaileek arau hausteak egiten uzten dutenean.*

*Oharra:* litekeena da oso, era honetako kexak telefonoz iristea eragozpena sortzen duen ekitaldia gauzatzean, edo bestela, idatziz, aztertu eta gerora. Jarraian, bi egoeretarako jarraitu beharreko prozeduraren proposamena zehazten da.

Telefonoz deituta: dei baten ondoren erantzuteko proposamena

Berehalako irtenbidea behar duten unean-uneko jarduerengatik kexak Udaltzaingoan aurkeztu behar dira. Funtsezkoa da horrelako eskaerei erantzungo dien saila edo langileak identifikatzea eta publizitatea egitea.

Kexa mota hauekin eman beharreko pausoak hauek dira:

- Jatorrizko lekuan egindako ikuskapena.
- Neurketaren emaitzak hala iradokitzen badu, kautelazko neurriak aplikatzea aztertuko da, jarduera baimendu den edo egiten ari den baldintzen arabera.
- Kexari emandako erantzuna jakinaraziko zaio interesdunari.

Idatziz: idatziz erantzuteko formularioa proposatzeko konpromisoa

XXX idazkiari erantzunez, udalak hura kudeatzeko emango dituen pausoak zehazten dira jarraian:

1. pausoa: kexaren edo eragozpenaren egoera aztertuko da, metodo hauetako baten bidez:

- Jatorrizko lekuan ikuskapena egitea neurketa sonometrikoa eginez edo egin barik.
- Egoera akustikoari lotuta dagoen informazioa aztertzea.
- Inpaktua sortzen duen eragilearekin komunikazio zuzena.

2. pausoa: kexari erantzuteko jakinarazpen formal bat idatziko da, gehienez ere ezarritako epean, kexa jasotzen denetik zenbatzen hasita, eta soinu egoera aztertuko da, 1. pausoko emaitzen arabera. Soinu egoeraren azterketa udalaren kudeaketaren eskumenekoa ez den gai bati lotzen bazaio, edo kanpoko laguntza batek egin beharreko azterketa bat eskatzen badu, eskatzaileari jakinaraziko zaio aurreikusitako denbora eta udalak erantzuteko jakinarazpena idazteko egin beharreko urratsak.

3. pausoa: 2. pausoa amaitu eta gehienez ere ezarritako epean, erantzunaren jakinarazpen formala bidaliko zaio eskatzaileari eta, bertan, hurrengo pausoak eta haiei buruzko udalaren konpromisoa zehaztuko dira, baldin eta aplikagarria bada.

## Ostalaritzako jardueren kanpoko terrazei eta udalaren zerbitzuei lotutako kexa akustikoak kudeatzeko jarraibideen proposamena

Egoera horietan, eta jarduteko modu gisa, gomendagarria da eskakizuna idatziz helaraztea kexa edo eragozpen bat egiten duenari, bai udalaren erregistroaren bidez, bai udalaren webgunean horretarako eskuragarri dauden prozeduren bidez.

Ilido horretan, idazki horri erantzuteko formularioa proposatuko zen, eta honako hau jasoko zen bertan:

XXX idazkiari erantzunez, udalak hura kudeatzeko emango dituen pausoak zehazten dira jarraian:

1. pausoa: kexaren edo eragozpenaren egoera aztertuko da, metodo hauetako baten bidez:

- Jatorrizko lekuan ikuskapena egitea neurketa sonometrikoa eginez edo egin barik.
- Egoera akustikoari lotuta dagoen informazioa aztertzea.
- Inpaktua sortzen duen eragilearekin komunikazio zuzena.

2. pausoa: kexari erantzuteko jakinarazpen formal bat idatziko da, gehienez ere ezarritako epean, kexa jasotzen denetik zenbatzen hasita, eta soinu egoera aztertuko da, 1. pausoko emaitzen arabera.

Soinu egoeraren azterketa udalaren kudeaketaren eskumenekoa ez den gai bati lotzen bazaio, edo kanpoko laguntza batek egin beharreko azterketa bat eskatzen bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio aurreikusitako denbora eta udalak erantzuteko jakinarazpena idazteko egin beharreko urratsak.

3. pausoa: 2. pausoa amaitu eta gehienez ere ezarritako epean, erantzunaren jakinarazpen formala bidaliko zaio eskatzaileari eta, bertan, hurrengo pausoak eta haiei buruzko udalaren konpromisoa zehaztuko dira, baldin eta aplikagarria bada.

## Gazteen lokalei eta txokoei lotutako kexa akustikoak kudeatzeko jarraibideen proposamena:

Aurreko kasuan gertatu den moduan, unean-uneke eragozpenak edo iraunkorrak sortu daitezke, eta horrek unean-uneke kexak edo jarraituak eragin ditzake; hala, bi egoerei erantzuteko prozedura proposatzen da:

### 1. Alokatu egiten diren gazteen lonja edo txokoetako unean-uneke kexak:

Berehalako konponbidea eskatzen duten unean-uneke jarduerengatiko kexak Udaltzaingoari edo dagokion ingurumen arloko ikuskaritza zerbitzuari aurkeztea proposatzen da (funtsezkoa da mota horretako eskaerei erantzungo dien saila edo langileak identifikatzea eta horien berri ematea). Nolanahi ere, udaleko beste sail edo arlo batera iristen badira, esleitutako sail edo arlora ahalik eta bizkorren bideratu beharko dute.

Herritarren jakinarazpena jasota, jatorrizko lekuan ikuspena egingo zen ahalik eta bizkorren, salaututako maila akustikoak egiaztatze aldera.

Ekitaldi edo jarduera igorleak jatorrizko lekuan egindako ikuskapena amaitu balu, haren ardura-duna egiaztatzen ahaleginduko da, eta horrek etorkizuneko ikuskapenak lehenesteko edo planifikatzeko aukera emango du; horri lotuta, gazteen lonjetan, errentamenduko kontratuaren titularrak edo jabea izango da, eta txokoetan, bertako titularrak edo egiaztatutako eragozpena izan zen egunean txokoaren erabilera kontratatu zuen pertsona.



Mailak egiaztatu ahal izan badira, eta neurketaren emaitzak hala iradokitzen badu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak 56. artikuluan xedatutako behin-behineko neurriak aplikatu ahaliko dira, jarduera zer baldintzatan baimendu den edo egiten ari den kontuan hartuta.

Azkenik, jardunbide egokia da eskatzailearekin izandako komunikazioa.

## **2. Gazteen lonjetako edo txokoetako kexa jarraituak edo iraunkorrak:**

Jarduera jarraitu edo aldizkako batek (denboran luzatzen dena) sortutako eragozpenak aztertuko egingo ziren prozedura proposamen honetan oinarrituz:

Jatorrizko lekuan ikuskapena egitea neurketa sonometrikoa eginez edo egin barik.

Udalaren artxiboetan jarduera igorleari buruz dagoen informazioa aztertzea, lizentzia edo aurretiko jakinarazpena behar duen jarduera bat den zehazteko; beraz, legezketasuna berriz ezartzeko espediente bat edo zehapen espediente bat hasi beharko zen ikustea proposatzen da.

## 2. ERANSKINA: LB2 IKUSKAPENENKO PROZEDURA

Ikuskapenak egitea funtsezkoa da kontrolaren testuinguruan (erreaktiboa nahiz proaktiboa). Atal honetan, prozedura mota hauetan kontuan hartu beharreko funtsezko irizpideak zein diren zehazten dira, jaietako ekitaldi eta jardueretan garrantzi handia dutenak.

Antzeko irizpideak aplikatuko ziren obretan, haien igorpen maileri muga akustiko bat lotzea egokitzat jotzen bada.

**Bildu beharreko datuak: Ikuskapen Aktak:** abiapuntu gisa, udalak aztertu behar du zer datu bildu behar diren ikuskapen aktan. Akta hori da diagnostiko, jarraipen, egiaztapen eta kontroleko prozedura zorrotzagoa edo zehapen prozedura baten hasiera ekarriko duen funtsezko elementua.

Horri erantzunez, jarraian, akta horretan jaso beharreko funtsezko datuak zehazten dira:

- Ikuskapenari berari buruzko informazioa: zenbakia, data, ordutegia eta nork egin duen, bai eta ikuskapenaren nondik norakoaren arrazoiak ere (salatuaren izena eta salaketaren egitateak).
- Jarduerari buruzko informazioa: ikuskapenean jarduera egiteko baldintzen izena, izaera eta deskribapena.
- Ebaluazioaren emaitzak: ikusizko neurketak edo ikuskapenak. Gomendagarria da egindako argazki edo neurketen erreferentziak argi eta garbi sartzea.

**Neurketa akustikoak:** Zarata foku jakin batzuen kudeaketa akustikoak begiz aztertzea baino ez badakar ere, neurketa akustikoak egitea, zenbaitetan, aplikagarria da.

Jarraian, soinu fokuari kudeaketa akustikoari lotutako ikuskapenaren zenbait alderdi zehazten dira, eta, beraz, erantzun egin behar zaiena:

- Ordutegiak betetzea.
- Espazioen mugaketa betetzea: bereziki garrantzitsua, terrazetan.
- Ekipoen eta instalazioen baldintzak betetzea, zarata murrizteko aukera ematen duten soinu igorpenen gaitasunari dagokionez (ekipo mota edo fabrikatzailearen informazioa) edo instalazioei edo ekipoei dagokienez.
- Mugagailua, display erregistratzailea egotea, eta hura ez dela manipulatu begiz egiaztatzea.

Neurketa akustikoen baldintzek erabakiko dute emaitza inpaktuaren adierazgarria izango den eta zehapenak aplikatzeko baliozkoa den.

Kasu guztietan, neurketa akustikoak egiteko erreferentzia indarrean dagoen lege esparrua da beti: 213/2012 Euskal Dekretua eta ISO-UNE arau aplikagarriak.

Udal batzuek ahalmena ematen dute akustikari soilik lotuta ez dagoen arduraldia edo kualifikazioa duten langileek egin ditzaketen beste era bateko neurketa akustikoak egiteko (Udaltzaingoa edota udalaren ikuskapenak). Halakoetan, prozedurak errazagoak dira, eta aukera ematen dute, alde batetik, zarata mailen lehenengo ebaluazioa izateko, eragozpena testuinguruan jartzen edo zenbaterainokoa den jakiten lagundu dezakeena; bestetik, egiaztapen eta kontrol zehatzagoen beste izapide batzuk abiarazteko ahalmena ematen dute, izapide horiek zehapenak ekar ditzakete, eta horiek gauzatzeko legezko berrespen nahikoa izan behar dute.



Ekitaldiei, megafoniari edo jaietako jardueri aplikatu ahal zaizkien ikuskapenak aipatzea bereziki garrantzitsua da, eta mugagailuak edo display-ak erabiltzea (erregistratzeko aukerarekin) ekar dezakete. Jarraian, haiek egiteko prozedura orokorra zehazten da:

- Soinua erreproduzitzeko ekipoei jarritako baldintza akustikoak betetzen direla egiaztatzea: ekipoak zигilatzearen antzeko zerbait da, jardueran ezarritako immisio mailak gainditzen ez direla ikusteko. Urrats honetan, udalaren inplikazio maila handiagoa edo txikiagoa izan daiteke: egiaztapena udaleko teknikariek egin dezakete, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eskatu diezaioke sustatzaileari, edo zerbitzuaren azpikontratazio zentralizatua egin dezake.
- Jarduera egitean baldintzak betetzen direla kontrolatzeko arduraduna sustatzailea bada, ikuskapena egiteko bi aukera daude:
  - Ikuskapen jarraitua, zarata mailen erregistradore bat behar duena; ondoren, udaleko teknikariek ebaluatu ditzakete, eta zehapenak ezarri, baldintzak betetzen ez badira. Haiek, maiz, zarata mailaren eta denboraren arteko nahasketa da: mota jakin batean edo kasu kopuru jakin batean indize akustiko desberdinak gainditzea.
  - Unean-uneke ikuskapena: jarduera egiten denean, udaleko ikuskatzaileak joaten dira eta jarduera egiteko baldintzak egiaztatzen dituzte jatorrizko lekuan (proaktiboa edo erreaktiboa izan daiteke). Kasu honetan, zehapena jarriko da ikuskapena egiten denean zarata maila ez dela betetzen egiaztatzen bada.

### 3. ERANSKINA: LB3 KUDEAKETARAKO DIAGNOSTIKO AKUSTIKOKO PROIEKTUAK

Eranskin honek azterketa akustikoak edo aurretiazko diagnostikoak aipatzen ditu, eta haiei esker, udalak zehaztu ditzake gida honetan jasotako jardueri aplikatzeko baldintza akustikoak. Azterketa mota hori egitea kasuistikaren garrantzi erlatiboaren eta haietatik aterako diren ondorioen aplikagarritasun praktikoaren arabera da. Kasu guztietan, gaia egokitu egin behar da, planteamendu inkrementalak izan baitaitezke, eta azterketa egitea azpikontratatu daiteke edo udalak dituen baliabideekin egin.

Jarraian, era honetako ebaluazioak egiteko funtsezko irizpide batzuk zehazten dira:

**OSTALARITZAKO JARDUEREN KANPOKO TERRAZAK:** helburu nagusia eremukako inpaktua zehaztea izan ohi da; hala, etorkizuneko baimenatarako baldintzak zehaztu ahalko dira. Alde horretatik, bildu beharreko datuak hauek izango ziren:


- Terrazak mugatzeko planoak: okupatutako espazioa, zehatz; mahai, aulki eta instalazio fin-koak edo beste era batekoak nola kokatuta dauden.
- Terrazak jartzeko baimena duten lokalei buruzko informazioa; lizentzia mota eta jarduteko moduak.
- Erabiltzaileen jokabidea: gune horretan igarotako denbora, ordutegien arteko bereizketa, bide publikoan dauden pertsonak eta terrazek gune horretako beste erabilera batzuekin duten lotura (adibidez, terrazarik gabeko beste lokal batzuk, jatetxeak edo oinezkoentzako lekuak).
- Sortutako soinu maila: unean-unean egindako laginekin neurtu daiteke, baina interesgarriagoa da iraupen luzeko erregistro jarraituak egitea, horrek mailak ebaluatzeko aukera emango baitu ordutegien eta asteko egunen arabera. Neurketa horietatik lortu daitezkeen informazioa aplikatu aurretik azterketa bat egitea gomendatzen da; izan ere, kanpoaldean sortutako zarata mailaren erantzukizuna lokaletako sustatzaileei egozte zaila izan daiteke zenbait jarduera edota terraza dauden guneetan.
- Jardueratik gertuen dauden eraikin edo erabilera sentikorren kokapena.

**TXOSNAK ETA BARRAKAK:** azterketaren helburua da muga akustikoak jardueraren eta kokapenaren arabera baldintzatzea, eragozpenaren eta jarduera egitearen arteko konpromisozko irtenbide batean oinarrituz.

Udalek bere gain hartutako irizpide estandarrak dauden edo ez kontuan hartu gabe (igorpen maila batetik ekipoko distantzia batera), interesgarria izan daiteke maila aplikagarriak zehaztea zarata fokuen kokapenaren arabera eta hark erabilera sentikorrekiko duen tartearen arabera.

Horretarako, osagarriak izan daitezkeen bi azterketa mota egin daitezke:

- Modelizazio akustikoa: txosna eta barraketarako guneen eredu tridimentsionala definitzea eskatzen du, eta erabilera sentikorren fatxadetako zarata maila betetzen dela egiaztatze aukera ematen du, egindako jardueri lotutako soinua erreproduzitzeko ekipoek igortzeko duten gehieneko ahalmena zehazte aldera. Abantaila nagusia da hainbat konfigurazio batoratzen uzten duela, ekipo kopurua eta zarata ateratzeko duten ahalmena kontuan hartuta, eta, horrez gain, harrera puntu askotan dituen ondorioak aztertzen uzten duela (fatxadak eta altuerak). Horrek errazten du sortu daitezkeen egoerentarako finkatu beharreko baldintzak zehaztea. Ordainetan, zerbitzua kanpoan azpikontratatu behar da.



Txosnen jarduerari buruzko modelizazio akustikoaren emaitzen adibideak (zarata mapa eta fatxadako gehieneko zarata mailak).

- Neurketa akustikoak: harrera puntu sentikor gertuenetan immisio maila zehaztea da helburua, neurketak egiten diren uneko jardueraren egoeran; horrenbestez, jardueraren funtzionamenduari lotutako etorkizuneko baldintzak zehaztu daitezke. Abantaila nagusia da udalaren baliabideekin egin daitekeela, eta ebaluazioa benetako egoera batean egiteko aukera ematen dutela. Desabantaila hauek ditu, ordea: Immisio neurketetan, ebaluazioaren xede den jarduerak ez ezik, zuzenean lotuta ez dauden beste batzuek ere laguntzen dute (adibidez, pertsonen joan-etorria edo beste era bateko ekitaldiak); eta ebaluazioak ekipoen konfigurazio jakin bat eta instalazioen kokapena zehazten ditu; beraz, haren baliozkotasuna konfigurazio hori gordetzen dela bermatzearen araberakoa da. Egoera aldaketa bakoitzak neurketa kanpaina berri bat beharko du.

**BIDE PUBLIKOKO EKITALDIAK ETA MEGAFONIA:** azterketen emaitzek ekitaldien baldintza akustikoa zehazteko aukera ematea da helburua.


Aztertzeke izan daitezkeen prozeduren harira, tipologia aurreko atalean adierazitakoaren antzekoa da, eta aipatutako bi aukerak daude: modelizazioa edo neurketak, eta, gainera, konbinatu egin ahalko dira; hala, neurketak modelizazioko emaitzak alderatzeko aukera emango du.

Jarraian, ordezko bi kokalekutan ekitaldi berbera modelizatzeari dagozkion emaitzen adibide bat aurkezten da, hartzaile sentikorretako zarata mailak egiaztatzeko:

Areatza, 1. banaketa



Areatza, 2. banaketa



Azterketa akustikoa eta ukitutako eraikinen erabileren ezagutza bateragarriak badira, ondorioztatzen da bigarren eremuko ekitaldia askoz gogaikarriagoa izango dela inguruneak zer ezaugarri dituen aintzat hartuta: fatxadak gertuago eta erreberberazio gunea.

**BIDE PUBLIKOKO OBRAK ETA UDAL ZERBITZUAK:** gune kritikoak identifikatzea

Azterketa honen helburua bikoitza da: alde batetik, obrako zarataren inpaktua murriztu nahi da haren faseetako soinu mailak iragarritz; bestalde, eragozpena murrizteko ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeko erantzukizuna obra sustatzaileari egozten zaio.

Abiapuntu gisa, nabarmentzekoa da mota horretako analisiak justifikatuta egongo zirela edo aplikatuko zirela obraren inpaktu aurreikusgarria handia denean, hartzaile sentikorretatik gertu egoteagatik, denbora luzez kokapen berean egoteagatik (adibidez, 6 hilabete edo gehiago) eta inpaktu handiko jardueren garapena inplikatzegatik: eraistea, zulatzea edota moztea.

Halakoetan, lizitazio fasean edo obraren sustapenean, interesgarria izango zen informazio eta azterketa hau eskatzea:

- Obraren aurreikusitako makinaren soinu igorpenari buruzko informazioa aztertzea: horretarako, fase honetan, erabili behar diren makinaren konpromisoak onartu behar dira (mota eta modelo), eta fabrikatzaileak igorritako soinu potentziari buruz emandako informazioari erreparatu.
- Obren plangintza berrikustea, inpaktu aurreikuspen handieneko faseak identifikatzeko eta fase horietan neurri zuzentzaileak zehazteko.

Behin obra adjudikatuta, beharrezkoa izango da, hasierako bileratik hasita eta haren inpaktuaren arabera aplikagarritzat jotzen den berrikusteko aldizkakotasunarekin, honako zeregin edo azterketa hauek egitea:



- Obraren jarduera zehatz bakoitzak hura egitean sortutako zarata mailak neurtzea, jarduketa jakin batzuei lotuta izan daitezkeen neurri zuzentzaileen eraginkortasuna ebaluatzeko.
- Obraren jarduera orokorrak hura egitean sortutako zarata mailak neurtzea, finkatutako inpaktuaren gehieneko atalasea betetzen duen ikusteko.
- Hurrengo epealdirako obraren plana berrikustea. Horren helburua inpaktua iragartzea da, eta faseari egokitutako neurri zuzentzaileak zehaztasun handiagoarekin proposatzea, honako hau aintzat hartuz: obraren planak etengabe egokitu behar dira aurrera egin ahala. Azterketa horiek egiteko, kontuan hartu behar da, soilik, desadostasun geometrikoa, soinua kanpoan hedatzeari eragiten dion aldagai gisa. Hala, azterketa errazagoa da inbertitutako baliabideak ebaluazioaren emaitzen aplikagarritasun praktikoari egokituz.

## 4. ERANSKINA: LB4 ARAU PROPOSAMENA

Jarraian, kontuan hartu daitezkeen zenbait proposatzen egiten ditugu udal ordenantzetan jaso ahal izateko, baldin eta, udalak, arazoa kudeatzeko interesgarria dela uste badu.

Horretarako, toki administrazio mailan Bizkaian lehendik dagoen arau testuingurua aintzat hartu da, eta proposamen gehigarriren bat egin da udal eztabaidaren zati izateko balio dezakeena.

### XX. artikulua. Terrazak

1. *Ez da baimenduko udal lizentzia duen jarduera nagusi batek babesten ez duen terrazarik.*
2. *Terrazak udal plangintzan ezarritako eremuetan jarriko dira, baina beste gune batzuetan jartzeko baimena eman ahalko da beren igorpen akustikoen ezaugarriak kontuan hartuta, betiere eremu akustiko sentikorren eremu izendatzen ez badira. (Terrazak jarri ahal izateko aurretiaz mapa bat egin behar da)*
3. *Ordutegia:*  
*Irekiera: 8:30 eta 9:00ak artean. Zamalanen ostean egingo da beti, baldin eta terraza ezaugarri horiek dituen eremu batean badago.*  
*Itxiera: inoiz ez lokalaren ordutegitik kanpo.*  
*Neguan, lanegunetan: 22:00etan*  
*Neguan, ostiral, larunbat edo jai bezperan: 23:00etan*  
*Udan, lanegunetan: 23:00etan*  
*Udan, ostiral, larunbat edo jai bezperan: 24:00etan*  
*Herriko jaietan eta garrantzi berezikoetan: udako ordutegia bezala +1h*  
*Ordutegi horretatik kanpo, baldintza bereziak baimendu daitezke.*  
*Instalazioa kentzeko 20/30 minutu daude.*
4. *Jarduera horietan jarri beharreko mahai eta aulki kopurua, gehienez, jarduera nagusiaren edukieraren % 50ari dagokiona izango da. (ideia hori interesgarria izan daiteke terrazak pilotzen diren eremuetan)*
5. *Erabiltzen diren altzariak jartzean, kentzean edo lurretik batera eta bestera eramatean ez dute zaratarik atera beharko; horren harira, ezingo da erabili zarata ez ateratzeko gailurik ez duen altzari metalikorik.*
6. *Ezingo da soinua erreproduzitzeko ekiporik jarri terrazaren eremuan eta jarduera nagusiaren leihoak edo ateak irekita utzi, elementu horiek baditu.*
7. *Terrazaren eremuan, ezingo da jolas edo jarduerarik jarri, baldin eta bertako erabilera ohi-koari lotutako igorpen akustikoak areagotzen badute.*
8. *Terrazetako bezeroek jokabide zuzena izan beharko dute; hala, ezingo dute abestu, oihu egin edo elkarrizketak ahots bolumen handiegian izan.*
9. *Terrazek eta mahai hankabakarrek igorritako soinu mailak baloratzeko, neurketa puntuak terraza edo mahai hankabakarretik gertuen dagoen etxebizitza-erakinari dagokion fatxadatik*



*1,5 m-ra kokatuko dira, eta, betiere, salaketak jaso ditzaketen eraikinetako fatxadetan eta etxebizitza salatzailearen bertikalean.*

Artikulu honetan ezarritako eskakizunak betetzen ez badira, falta astunagatik zehapen prozedura hasiko da, eta jarduera nagusiaren titularra joko da ez-betetze horien erantzuletzat. Jarduera hori kautelazko neurri gisa itxi ahal izango da, baldin eta gainditzeak edo ez-betetzeak egitea gomendatzen bada.

## **XX. artikulua. Arau hauste arinak**

- 1. Jarduera hasteko edo ixteko ordutegia ordu erdi baino gutxiagoan ez betetzea.*
- 2. Terraza jartzeko eta kentzeko lanetan zarata ateratzea.*
- 3. Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea edo baimendutakoa baino mahai edo aulki gehiago jartzea, betiere gehiegizko azalera ez bada azalera edo baimendutako elementu kopuruaren % 10 baino handiagoa.*
- 4. Ordenantza honetan edo baimena ematen duen tituluan ezarritako betebeharrak ez betetzea eta debekuak urratzea, falta astuntzat edo oso astuntzat jo ez bada berariaz.*

## **XX. artikulua. Arau hauste astunak**

- 1. Baimena indarrean dagoen bitartean edo urte natural bakoitzean, bi aldiz falta arinak errepikatzea.*
- 2. Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea edo baimendutakoa baino mahai edo aulki gehiago jartzea, betiere gehiegizko azalera ez bada azalera edo baimendutako elementu kopuruaren % 30 baino handiagoa.*
- 3. Establezimenduari atxikitako edo haren ondoko altzari eta apaindurako elementuak nabarmen hondatzea, lizentziaren edo emakidaren xede den jardueraren ondorioz gertatzen denean, baldin eta falta arinak edo oso astunak ez badira.*
- 4. Baimendutakoak ez diren beste altzariak jartzea edota erabiltzea.*
- 5. Ureztatze ahoak, ur harguneak, estolda erregistroak, garraio publikoko geltokiak, transformazio zentroak eta zerbitzu publikoak erregistratzeko kutxatilak okupatzea, zerbitzu publikoek behar bezala erabil ez ditzaten.*
- 6. Baimena emateko garaian jaso diren berariazko baldintzak ez betetzea.*
- 7. Terrazan irudi, soinu edo bibrazio akustikoen anplifikadoreak edo erreproduzitzaileak jartzea.*
- 8. Musika emanaldiak udalaren baimenik gabe egitea.*
- 9. Instalazioaren funtzionamenduaren ondorioz, bizilagunei edo oinezkoei behin eta berriz eragozpenak sortzea (egiaztatuta).*

10. *Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzuak emandako betebeharrak, jarraibideak edo ohar-razpenak ez betetzea.*
11. *Jarduera hasteko edo ixteko ordutegia ordu erdi baino gehiagoan eta ordubete baino gutxiagoan ez betetzea.*

## **XX. artikulua. Arau hauste oso astunak**

1. *Baimena indarrean dagoen bitartean edo urte natural bakoitzean, bi aldiz falta arinak errepikatzea.*
2. *Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea edo baimendutakoa baino mahai edo aulki gehiago jartzea, betiere gehiegizko azalera ez bada azalera edo baimendutako elementu kopuruaren % 30 baino handiagoa.*
3. *Terraza jartzea udalaren nahitaezko lizentzia izan barik.*
4. *Terraza baimenduaz besteko epealdian jartzea.*
5. *Instalazioak ez kentzea, lizentziaren indarraldia amaitzen denean edo udal agintaritzak hori egiteko eskatzen duenean.*
6. *Hasteko edo ixteko ordutegia ordubete baino gehiagoan ez betetzea, baldin eta horren ondorioz bizikidetzan nahasmendu nabarmena sortzen bada, eta honako hauei eragiten badie: beste pertsona batzuen lasaitasunari edo legezko eskubideei modu larrian, berehalakoan eta zuzenean; era guztietako ohiko jardueri, araudi aplikagarriarekin bat etorriz; edo osasungarritasun eta apaingarri publikoei.*

## **XX. artikulua. Zehapenen zenbatekoa**

1. *Aurreko artikuluek aipatutako arau hausteak alkateak edo zinegotzi ordezkariak zehatuko ditu atal hauetan ezartzen denarekin bat etorriz:*
  - a. *Arau hauste arinak,*
    - i. *750 euroko isuna, gehienez ere*
    - ii. *Baimendu gabeko altzariak kentzea*
  - b. *Arau hauste astunak, kasuen arabera, hauen bidez:*
    - i. *751 eta 1.500 euro arteko isuna.*
    - ii. *Baimendu gabeko altzariak kentzea.*
    - iii. *Lizentzia edo baimena aldi baterako kentzea, gehienez sei hilabeterako.*
  - c. *Arau hauste oso astunak, kasuen arabera, hauen bidez:*
    - i. *1.501 eta 3.000 euro arteko isuna.*
    - ii. *Altzariak eta soinua erreproduzitzeko aparatua kentzea.*
    - iii. *Lizentzia edo baimena aldi baterako kentzea, zazpi hilabetetik urtebetera.*
    - iv. *Lizentzia behin betiko kentzea, jarduera itxiz, falta oso astunak errepikatu izanaren ondorioz, jarraian hiru isun ezarri ostean.*
    - v. *Urtebetez terrazako baimena lortzeko aukerarik ez izatea.*



2. *Aurreko atalean aurreikusitako zehapenak metatu egingo dira.*

## **XX. artikulua. Inguruabar astungarriak eta aringarriak**

- Zigorren zenbatekoa zehazteko orduan, eta beti ordenantza honetan ezarritako mugen barnean, instruktoreak honako inguruabar hauek batera baloratuko ditu:*
  - arau haustea eragin duten egitateen ezaugarriak;*
  - ukitako ingurumen inguruneari eta pertsonen osasunari eragindako kaltearen edo arriskuaren larritasuna;*
  - interes orokorreari eragindako kaltea;*
  - dolua edo errua egotea;*
  - behin eta berriro egitea; eta*
  - kaltetutako ingurumen inguruneak oinarrizko egoera berreskuratzeko duen ahalmena edo itzulgarritasuna.*
  - eragindako arriskuak edo kalteak, lortutako onurak eta nahita egiteak zehapenak larriagotzea ekar dezake, baita gertaera berak ordenantza honetan tipifikatutako bi arau hauste edo gehiago egitea dakarrenean ere.*
- Inguruabar astungarriak kontuan hartuta, ezin izango da inola ere ezarri arau hauste larrienetarako edo kategoria arau-hausle larrienetarako aurreikusitako zehapenik.*
- Zehatutako arau hauste baten antzeko bat eginez gero, betiere arau hauste berria urtebeteko epean egiten bada, jarduera uztearekin zigortuko da, aurretik ezarritako denbora bikoitzagatik edo isun bikoitzagatik, baldin eta zehapen horrek aurreko idatz-zatian ezarritakoa urratzen ez badu. Kasu horretan, egindako arau haustea dagokion kategoria arau hauslerako aurreikusitako zigor handiena ezarriko da.*
- Ebazpen irmo baten bidez ezarritako isunen orde, jarduera eteteko zigorrak ezarriko dira ordaintzen ez direnean.*
- Administrazio erantzukizunaren inguruabar aringarria izango da jarduera jakin baten ondorioz ingurumenari eragindako ondorio kaltegarriak minimizatzen edo konpontzen dituen neurri zuzentzaileak hartzea, emandako epearen barnean.*
- Diruzko zehapenak finkatzean, kontuan hartuko da arau haustea ez dela inola ere arau hauslearentzat izango urratutako arauak betetzea baino onuragarriagoa.*

Hortaz, titularraren erantzukizunen barne daude, soinu igorpenei lotuta haren terrazan egiten daitezkeen urraketak.

Kasu larrienerako egoeretan, datozen urteetarako baimena ez berritzeko aukera ezartzen da, baldin eta arau hauste oso astunak egiten badira edo urraketa horiek errepikatzen badira.

## **XX. artikulua. Gazteen lonjak eta txokoak**

- Erabilera publikoko gazteen lokalek eta txokoek, hurrenez hurren, horien berri eman behar dute eta jarduera lizentzia izan, eta bertan egiaztatu beharko dute ordenantza honetan ezarritako*

*airetiko zarataren eta inpaktuen isolamendu akustikoa, eta gutxienerako baldintza hauek bete beharko dituzte herritarrei zaratak kalterik ez egiteko:*

- *Etxebizitzetara igorritako zaratak ezingo ditu gainditu ordenantza honetan ezarritako mugak (ordenantzak, ildo horretan, berariazko murrizketak jasoko balitu).*
- *Musikaren eta aparatuen bolumena 22:00etatik aurrera jaitxi egin beharko da, eta amata-tuta 23:00ak eta hurrengo eguneko 9:00ak artean.*
- *Ordutegia: astean zehar lokalak itxita egon beharko luke eta jarduerarik barik 23:00etatik aurrera; ostiraletan eta larunbatetan, ordutegia 24:00ak arte luzatuko zen. Jaien bezperan, ordutegia 2:00ak arte luzatu ahalko da.*

2. *Bizilagunekin sortu daitezkeen gatazkak Udalaren Bitartekaritza Zerbitzuarekin bideratuko dira, modu negoziatuan konponbide bat topatu ahal izateko, bizikidetzan eta errespetuan oinarrituz.*

Auzotasun harremanak arautzea da beste aukera bat:

### **XX. artikulua. Auzotasun harremanak**

1. *Auzotasunak gainerako bizilagunei ez die eragozpenik sortu behar alferrikako zaratekin, hala nola oihuak, musika oso ozen, jaietako ospakizunak, edo soinua erreproduzitzeko aparatuek entzungailurik gabe edo bolumen handian erabiltzea edo antzeko beste jokabide batzuk izatea. Halaber, gogaikarritzat jotzen da, gauez beste pertsona batzuekin edo taldetan biltzea bide edo espazio publikoetan, edo titulartasun pribatuko eta erabilera publikoko kanpoko espazioetan (horretarako baimenik ez dagoenean), jende pilaketaren ondorioz, bizilagunen atsedena eta lasaitasuna eragozten dituzten zaratak sortzen badira.*
2. *Bizikidetzak baketsua eta etorkizuneko auzotasun harremanak eta elkarrekiko errespetua eta tolerantzia zaintze aldera, gatazkan dauden alderdiei aukera emango zaie Udalaren Bitartekaritza Zerbitzuaren bidez bitartekaritza prozesu bati heltzeko, desadostasunak alderdi guztientzat egokiak diren akordio eta irtenbideen bidez konpon ditzaten.*

Gainera, hori eraginkorra izan dadin, arau hausteak eta zehapenak tipifikatu beharko dira:

### **XX. artikulua. Gizalegearen kontrako jokabideak**

*Arau hauste arinak izango dira:*

- *Egunez, kanpoaldean baimendu gabeko musika interpretazioak egitea.*
- *Egunez, oihu edo garrasi egitea, bizilagunen edo oinezkoen atsedena eta lasaitasuna edo lokal hartzailearen jarduerak normaltasunez egitea eragozte.*
- *Egunez, kanpoaldean entzungailurik gabe eta bolumen handian soinua erreproduzitzeko aparatuek erabiltzea.*
- *Egunez, onargarriak ez diren festak egitea, arrazoi hauek direla eta: bildutako pertsona kopurua, musikaren bolumen handia, dantzan aritzea edo zarata ateratzen duten beste jokabide batzuk izatea.*

*Arau hauste astunak izango dira:*



- *Gauetz, kanpoaldean baimendu gabeko musika interpretazioak egitea.*
- *Gauetz, oihu edo garrasi egitea, bizilagunen edo oinezkoen atsedena eta lasaitasuna edo lokal hartzailearen jarduerak normaltasunez egitea eragozte.*
- *Gauetz, kanpoaldean entzungailurik gabe eta bolumen handian soinua erreproduzitzeko aparatuak erabiltzea.*
- *Gauetz, onargarriak ez diren festak egitea, arrazoi hauek direla eta: bildutako pertsona kopurua, musikaren bolumen handia, dantzan aritzea edo zarata ateratzen duten beste jokabide batzuk izatea.*
- *Falta arinak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta arin baino gehiago.*

*Arau hauste oso astunak izango dira:*

- *Babes akustiko bereziko eremuetan (BABE), egoera akustiko bereziko eremuetan (EABE) eta soinu maila handiko eremuetan (SMHE), kanpoaldean baimendu gabeko musika interpretazioak egitea, ordutegia edozein dela ere.*
- *BABEn, EABEn edo SMHEN, oihu edo garrasi egitea, bizilagunen edo oinezkoen atsedena eta lasaitasuna edo lokal hartzailearen jarduerak normaltasunez egitea eragozte, ordutegia edozein dela ere.*
- *Babes bereziko eremuetan, BABEn, EABEn edo SMHEN, kanpoaldean entzungailurik gabe eta bolumen handian soinua erreproduzitzeko aparatuak erabiltzea, ordutegia edozein dela ere.*
- *Falta arinak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta arin baino gehiago.*

## **XX. artikulua. Ekitaldietarako baimen bereziak**

1. *Udal agintaritzak, aldi baterako baimen berezi baten bidez eta eremu jakin batzuetan, jardueretarako ezarritako immisioaren muga-balioak betetzetik salbuetsi ahal izango du.*
2. *Propagandarako soinu gailuak erabiltzeko baimenik ez da emango, alarma edo premiazko kasuetan eta interes orokorreko edo herritarrentzat garrantzi bereziko kasuetan izan ezik.*
3. *Sustatzaileak kaltetutako biztanleei salbuespena eragin zuen inguruabarraren berri emango die, bai eta haren iraupenaren berri ere. Udalak kontrakorik esan ezean, informazio hori azalpen ohar batean adieraziko da eta ukitutako ezkaratzetan ondo ikusten den lekuetan jarriko. Ekitaldiaren nondik norakoak eta iraupena jasoko dira bertan.*
4. *Ekitaldia egin aurretik, soinu probak egiaztatzeko neurketak egin ahalko dira, eta mugagailuak jartzea eskatu ahalko da.*

*Hala gertatuz gero, soinua mugatzeko ekipo bat jarriko da. Horrenbestez, etengabe bermatu ahalko da jardueraren kanpoaldera igorritako presio akustikoaren mailek (igorpena eta harre-ra) ez dutela gaindituko gai horri lotuta ordenantza honetan ezarritako mugak.*

*Udalak sistema mugatzaile batean gordetako datuak urrutitik transmititzeko sistema bat jartzea eskatu ahal izango du, kasu bakoitzean teknika erabilgarri onenak aplikatuz zehazten diren zehaztapenen eta prozeduren arabera.*

5. *Udalaren baimenak ekitaldi bakoitzari lotutako zarata mugak ezarriko ditu, ekitaldiaren ezau-garrien eta kokapenaren, jarraikortasunaren edo aukerari lotutako beste arrazoi batzuen ar-bera:*

*Ekitaldiak: 83-75 dBA hiru metrora*

Arautzeko beste aukera bat ondoren aurkezten dena izango zen. Nolanahi ere, kasu honetan es-katzen da aurrez udalerrriak soinu maila handiko eremuak ezarri izana edo zonakatze bat egin izana, ekitaldietarako araudi berezia ezartzeko:

## **XX. artikulua. Bide publikoko ekitaldiak**

1. *Ekitaldien antolatzaileek, gutxienez 10 egun baliodun lehenago, xx. eranskinean eskatzen den gutxieneko edukia aurkeztu beharko dute nahitaezko baimenaren eskaeran, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:*
  - *Aldi baterako izaera*
  - *Ordutegi muga*
  - *Baimena baliogabetzea, baldin eta alboko edo gertuko etxebizitzetan edo lokaletan baime-nean jasotako gehieneko soinu mailak gainditzen badira.*
2. *Soinu maila handiko eremuetan (edo antzeko zonakatzea), neurri zuzentzaileak edo baldintza akustiko murriztaileagoak aplikatuko zaizkie ekitaldiei, kokalekuaren kalitate akustikoa babesteko.*
3. *Sustatzaileek herritarrei ekitaldi horrek eragiten duen inpaktu akustikoaren berri emango die, ezkaratzen, ekitaldia egin baino 5 egun lehenago gutxienez, haren data eta ordua adieraziko dituen kartelak jarritz.*

## **XX. artikulua. Ekitaldietarako baimen bereziak**

1. *Udal agintaritzak, aldi baterako baimen berezi baten bidez eta eremu jakin batzuetan, jardue-retarako ezarritako immisioaren muga-balioak betetzetik salbuetsi ahal izango ditu:*
  - *ekitaldi ofizial, kultural, erlijiosoak, jaietakoak eta abar.*
  - *premia, arrisku edo interes orokorreko arrazoiak dauden egoera bereziak.*
2. *Propagandarako, distraziorako eta antzeko xedeetarako soinu gailuak erabiltzeko baimenik ez da emango, alarma edo premiazko kasuetan eta interes orokorreko edo herritarrentzat garran-tzi bereziko kasuetan izan ezik.*
3. *Bi egun baino gehiagorako baimenak gutxienez hamar egun baliodun baino lehenago eskatu beharko dira. Obra proiektuak berak aurreikusten duenean lanak gauzez egitea, baimena obra lizentziarekin batera eskatuko da.*

*Bi egun baino gutxiagorako baimenak ahalik eta bizkorren eskatuko dira, eta inoiz ez lana egin nahi den eguneko 13:00ak baino geroago neguan, eta 12:00ak baino geroago, udan. Ukatutzat joko dira horretarako ezarritako epeetatik kanpo eskatutako guztiak.*



*Denek erabiliko dute haietarako udalaren webgunean jasotako eredu normalizatua.*

*Baimen guztiek dagokien tasa sortuko dute.*

4. *Salbuespenaren baimen bereziak emateko orduan, eragin akustikoa aztertu aurretik, haien baldintzak, ordutegiak finkatuko dira, bai eta gehieneko igorpen mailak ere.*

*Nolanahi ere, bide publikoko obretarako baimen berezia 02:00ak arte emango da. Obrak egunez jarraitu beharko balu, ez da 09:00ak baino lehen hasiko. Ordutegi horiek inguruabar berezietan aldatu ahalko dira, behar bezala justifikatuta.*

*Halaber, sustatzaileak kaltetutako biztanleei salbuespena eragin zuen inguruabarraren berri eman-go die, bai eta haren iraupenaren berri ere. Udalak kontrakorik esan ezean, informazio hori azalpen ohar batean adieraziko da eta ukitutako ezkaratzetan ondo ikusten den lekuetan jarriko. Ekitaldiaren nondik norakoak eta iraupena jasoko dira bertan.*

## **XX. artikulua**

*Arau hauste arinak izango dira:*

- Ordutegi baimendua 2 orduz gainditzea.*
- Baimenaren indarraldia 7 egun baino gehiagotan gainditzea.*
- Gehien kaltetutako bizilagunei obretarako emandako baimenaren berri ez ematea.*

*Arau hauste astunak izango dira:*

- Ordutegi baimendua 2 eta 4 ordu artean gainditzea.*
- Baimenaren indarraldia 7 eta 10 egun artean gainditzea.*
- Falta arinak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta arin baino gehiago.*

*Arau hauste oso astunak izango dira:*

- Ordutegi baimendua 4 ordu baino gehiago gainditzea.*
- Baimenaren indarraldia hamar egun baino gehiagotan gainditzea.*
- Falta astunak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta astun baino gehiago.*

### **Udalaren obrak eta zerbitzuak:**

Lehenik eta behin, nahitaezkoa izan beharko zen obrak egiteko ardura duen enpresak udalari baimen berezi bat eskatzea, haiek egiten diren bitartean kalitate akustikoaren helburuak gainditu ahal izateko.

Bide publikoko obretan, ia udal guztiek gai hori araututa duten arren, jarraian, idatzi ahal izatea proposatzen dugu, bai eta baimen bereziaren eskaerek izan dezaketen edukiari lotutako eranskin bat jasotzea ere.

## XX. artikulua. Obrak

1. *Eraikuntza edo eraisteko lanek sortutako zaratak, bai eta lonjak eta etxebizitzak eraberritzekoak ere, dagokion lizentzian arautuko dira, gauzatzeko epea eta eraikuntzako makinek eta ekipoei bete beharreko baldintzak zehaztuta.*
2. *Oro har, obra horietan erabiltzen diren makina guztiek indarrean dagoen araudia bete behar dute, otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuari, Aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuek ingurunean sortzen dituzten soinu igorpenak arautzen dituenari, edo hura ordeztzen duen arauari jarraikiz; horrekin batera, dagokion baimenean zehaztutakoaren ondoriozko funtzionatzeko baldintzak bete behar dituzte, xede honekin: obrak egin bitartean sortutako inpaktu akustikoa minimizatzea.*
3. *Edozein obra klasetarako baimenaren arabera, 8:00etatik 19:00etara egingo da, lanegunetan.*
4. *Arrazoi teknikoengatik edo herritarrei eragozpenak eragiteagatik, obrak 19: 00etatik aurrera egin behar badira, gauzez, asteburuetan edo jaiegunetan, sustatzaileak egoera hori justifikatu beharko du bere eskaeran, eta ezin izango da horrelakorik egin aipatutako ordutegietan aplikatu beharreko neurri zehatzak jasotzen dituen udal baimenik izan gabe.*
5. *Obrak egiteko nahitaezko baimen eskaerak baldintza hauek bete beharko ditu:*
  - a. *Aldi baterako izaera*
  - b. *Ordutegi muga*
  - c. *Baimena baliogabetzea, baldin eta alboko edo gertuko etxebizitzetan edo lokaletan baimenean jasotako gehieneko soinu mailak gainditzen badira.*
6. *Sustatzaileek herritarrei obra horrek eragiten duen inpaktu akustikoaren berri emango die, ezkaratzetan, obra hasi baino 5 egun lehenago gutxienez, haren data eta ordua adieraziko dituen kartelak jarri.*
7. *Obrek 6 hilabete baino gehiago irauten badute, inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat egin beharko da neurri zuzentzaileak zehazteko.*
8. *Obrak hasi aurretik, enpresak baimen honen kopia eman beharko die egoiliar kaltetuenei. Horretarako, ukitutako auzokideen erkidegoetako bakoitzaren iragarki ohelean jarri beharko du, edo, bestela, postontzietan sartu.*

Azken eskakizun hori eraginkorra da bi arrazoiengatik; lehenik eta behin, udalari erreklamaziorik ez zaio egiten, eta bigarrenik, subjektiboki bada ere, eragozpenak nabarmen murrizten dira. Egunero-egunero zaratak noiz arte iraungo duen ez jakitea edo haiek epe finko baten ostean amaituko direla alde aurretik jakitea, ez da gauza bera.

Gai horri lotuta, arau hausteen eta zehapenen tipifikazioa jasotzea iradokitzen da.



## XX. artikulua

Arau hauste arinak izango dira:

- Ordu-tegi baimendua 2 orduz gainditzea.
- Baimenaren indarraldia 7 egun baino gehiagotan gainditzea.
- Gehien kaltetutako bizilagunei obretarako emandako baimenaren berri ez ematea.
- XX. artikuluan ezarritakoa betetzen ez duten makinak erabiltzea.

Arau hauste astunak izango dira:

- Ordu-tegi baimendua 2 eta 4 ordu artean gainditzea.
- Baimenaren indarraldia 7 eta 10 egun artean gainditzea.
- XX. artikuluan (Makinak) ezarritakoa betetzen ez duten makinak erabiltzea, gauez.
- Falta arinak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta arin baino gehiago.

Arau hauste oso astunak izango dira:

- Ordu-tegi baimendua 4 ordu baino gehiago gainditzea.
- Baimenaren indarraldia hamar egun baino gehiagotan gainditzea.
- BABEn, EABEn edo SMHEn, XX. artikuluan ezarritakoa betetzen ez duten makinak erabiltzea, ordutegia edozein dela ere.
- Falta astunak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta astun baino gehiago.

Jarraian, proposamen bat egiten da, eta ordenantzetan eranskin modura jaso daiteke, herritarrei informazioa emateko webgunean jar daiteke edo udalaren formulario batean jaso, paperean edo elektronikoki.

**Beste obra eta ekitaldi batzuetarako baimen berezietan eskatutako zaratari buruzko azterlan eta txosten teknikoen edukia.**

### A. Baimen bereziak

#### 1. Bide publikoko obrak:

- Baimena eskatzeko arrazoia. Obra ohiko ordutegitik kanpo egitea behar bezala justifikatu da, hala badagokio, edo interes orokorra, edo herritarrengan duen esanahi edo garrantzi berezia.
- Obra arduradunaren izena eta telefono mugikorraren zenbakia.
- Adierazi beharko da, zehatz:
  - a. Egin beharreko lanak, aurreikusitako faseak zehaztuz, hala badagokio.
  - b. Erabili beharreko makinak, eta homologazio zein etiketatze ziurtagiria dutela zehaztuko da.
- Obrek 6 hilabete baino gehiago irauten badute, dokumentazio hau ere emango da:
  - a. Obretan aurreikusitako zereginen plangintza.
  - b. Egin beharreko lanen kokapenaren eta zarata-fokuen kokapenaren planoak, honako hauek zehaztuz: gertuen dauden erabilera sentikorretarako distantzia (etxebizitzak, ikastetxeak eta osasun zentroak) eta haien soinuaren presio mailak, jardueraren ondoriozkoa,  $L_d$  eta  $L_e$  batez besteko mailetan oinarrituz. Horiek kalitate akustikoko hel-

buru gisa ezarri dira urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoan, eta ordenantza honetan.

- c. Horri lotutako gehieneko inpaktu akustikoa murrizteko neurri zuzentzaileak edo aringarriak adieraztea. Kasu guztietan, aplikatu beharreko neurriek ez dute obraren egikaritzea mugatuko.

Hiri zerbitzuetan, zehazki, eragin akustiko handiena dakarten zerbitzuak dira hondakinak biltzeko zerbitzuak, eta bi arau tresna proposatzen ditugu:

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da era honetako zerbitzuek kontratazioetan duten eragin akustikoa eta, bestalde, horri lotuta sor daitezkeen eragozpenak minimizatzeko ordutegiak eta ibilbideak arautzea. Nolanahi ere, arautzeko premia hori xehetasunez aztertu beharko da; izan ere, ordutegia murrizteak, adibidez, trafiko handia jasaten duten udalerriei kalte handia eragin diezaieke, eta, beraz, baliteke hondakinak gauzez bildu behar izatea.

### XX Artikulua. Udalaren lizitazioak

*Udalak idatzitako administrazio klausula partikularren pleguetan jasoko dira, kontratatu beharreko obra, zerbitzu edo jarduerak ingurumenean izan ditzaketen inpaktuak ahalik eta txikienak izatea eskaintzetan adierazteko betebeharra ezartzen duten klausulak.*

### XX. artikulua. Hiri zerbitzuak

1. *Hiri hondakinen bilketak eta kale garbiketako lanek teknikoki bideragarriak diren neurriak hartuko dituzte zaratak minimizatzeko, hondakinak biltzeko ibilgailuei eta hondakinak bildu eta garbitzeko makinei dagokienez nahiz eremu publikoko lanak egitean, edukiontzia manipulatzeko, hondakinak trinkotzeko, urez garbitzeko, ekorketa mekanikoan edo beste zeregin batzuetan.*
2. *Edozein motatako hondakinak biltzeko erabiltzen diren edukiontzien, teknikak horretarako aukera ematen badu, moteltze akustikorako gailuak izango dituzte, hondakinak erabiltzeagatik sortzen diren zaratak mugatzeko.*
3. *Bizitegi eremuetan jarritako bilketarako edukiontzia, beira jasotzekoak bereziki, bizilagunei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko eta haien eraginkortasuna areagotzeko lekuetan jarriko dira.*
4. *Lanegunetan bakarrik jaso ahal izango dira, 23:00etatik 08:00etara bitarteko ordutegitik kanpo.*

### XX. artikulua

Arau hauste arinak izango dira.

- *Hiri hondakinak biltzea eta kale garbiketako lanak egitea egunez, xx. artikuluan (Hiri zerbitzuak) ezarritako neurriak hartu barik.*
- *Beira biltzeko edukiontzia leku desegokietan jartzea*



- *Bilketa finkatutako egun eta orduetatik kanpo egitea.*
- *Obra hondakinen edukiontziak jartzea, kentzea eta aldatzea edo ordeztea finkatutako egun eta orduetatik kanpo.*

*Arau hauste astunak izango dira:*

- *Hiri hondakinak biltzea eta kale garbiketako lanak egitea gauez, xx. artikuluan (Hiri zerbitzuak) ezarritako neurri teknikoak hartu barik.*
- *Falta arinak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta arin baino gehiago.*

*Arau hauste oso astunak izango dira:*

- *BABEn, EABEn edo SMHEN, hiri hondakinak biltzea eta kale garbiketako lanak egitea, xx. artikuluan (Hiri zerbitzuak) ezarritako neurriak hartu barik, ordutegia edozein dela ere.*
- *Falta astunak behin eta berriro egitea, hau da, urtean bi falta astun baino gehiago.*

## 5. ERANSKINA: LB5 BAIMENA EMATEKO PROPOSAMENA

### Terrazetarako baimena:

Terrazak jartzeko, aurrez udalaren baimena behar da, nahitaez.

Baimenean behar bezala bereizi behar da terraza urte osorako den, edo urteko denboraldirako, ala soilik herriko jaietarako; dena den, lehenengoak lehenetsi behar direla uste dugu.

Terrazetarako baimenak behar bezala legeztatutako ostalaritzako establezimenduei eta antzekoei bakarrik emango zaizkie.

Ez da jarri aurretik dagoen eskubide bat, jabari publikoa besterenezina eta preskribaezina delako eta baimen horiek eskumenezkoak direlako, jabari publikoko lurzoruei edo erabilera publikoko titulartasun pribatuko espazioei buruzkoak baitira.

Baimen horiek denboraldi baterako emango dira, eta aldatu ahalko dira eskatzaileen lehentasunen arabera; hau da, urtekoak, urte sasoi bati lotutakoak edo data zehatz batzuetarako izango dira, herriko jaietarako, esate baterako.

Indarraldiari eutsiko zaio baimena eman zenean kontuan hartutako inguruabarrak aldatzen ez diren artean. Nolanahi ere, egoera berriak agertuz gero, eta inguruabar horiek ez badiote kalterik egiten erabilera komunari edo ukitutako espazio publikoaren erabilera zehatzari buruzko interes orokorrari, baliogabetu egin ahalko dira, jabari publikoa erabiltzeagatik kobratu ziren tasak proportzionalki itzultzeko aukera alde batera utzi gabe; adibidez, gune horretan obrak egin behar badira eta interes orokorreko ekitaldiren bat antolatu. Baina lehentasunezko interes publikoko arrazoiengatik terraza aldi baterako edo behin betiko eteteak ez du kalte ordainik ekarriko.

Urteko baimen mota horrek aukera ematen du, halaber, terrazetarako baldintza espezifikoak ezartzeko urtero; horrek malgutasun handia ematen dio sistemari, eta urtez urte egiten diren eskaerak egokitzeko aukera ematen dio, bai eta baldintzak plangintza-dokumentuetan ezartzeko ere, baldintza horiek ordenantza batean jaso beharrik gabe; hala, aurretiko administrazio baime-naren beharra baino ez luke arautuko.

### *Baimena arautzeko proposamena:*

Baimena izan beharko da, ez aurretiazko jakinarazpena.

Baimena eman ahal izango da, hari lotutako gaikuntza titulurik badago (jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena, jaietako instalazioaren baimena...).

Eskaeran honako hauek jaso beharko dira: eskatutako denboraldia, okupazio azalera, mahai, aulki eta beste elementu batzuen krokisa, alboan terrazak dauden eta ingurunean eraikin sentikorrik dagoen.

Lizentzien edo baimenen indarraldia haiek ematen diren denboraldiari dagokiona izango da, baina automatikoki berrituko dira hurrengo ekitaldirako eta denboraldi bererako, titularrak kontrakoa adierazten ez badu udalerrri bakoitzak ezarri beharreko epean.



Nolanahi ere, atzera egin ahalko da baimendutako terraza jartzeko epe zehatza hasi baino lehenago.

Baimen horiek aldi baterako eten ahalko dira, baldin eta udalak baimenduta edo sustatuta, jai, kultura, gizarte eta kirol jarduerak antolatzen badira. Halaber, etengo dira obra publikoak egiten direnean, edo zerbitzuak hornitzen dituzten enpresek nahiz nahitaez espazio publiko bera erabili behar duten partikularrek egindako obra pribatuak egiten direnean, baimenduta dagoen epealdirako. Nolanahi ere, horrek tasa itzultzeko eskubidea emango du, kopuru guztia edo zati bat.

Debekatuta dago ere, instalazio horiek jartzea oinezkoentzako pasabideen, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuen, larrialdiko irteeren, autobus geltokien eta hondakinentzako edukiontzien ondoan edo aurrean; gainera, zerbitzu publikoek berehala erabil ditzaten, libre utzi beharko dituzte ureztatze ahoak, hidranteak, estolderiako erregistroak zein kutxatilak eta gainerrako zerbitzu publikoak.

Ostalaritzako jarduerak ez diren beste batzuk egitea ere debekatuta dago, hau da, edari eta janarien zerbitzua soilik; hala, ekitaldi ludiko eta komertzial guztiak galarazita daude.

Galarazita dago terraza baimenduetan era guztietako iturri akustikoak jartzea (musikakoak, girotzekoak eta abar), bai eta musika zuzenean izatea eta irudi erreproduzitzailak erabiltzea ere.

### **Ekitaldietarako baimena:**

Kultura, kirol, musika edo beste era bateko ekitaldietarako baimen eskaeretan ezarri beharreko baldintza hauek proposatzen dira:

- Baimena eskatzeko arrazoiak: ekitaldiaren ezaugarriak eta interes orokorra edo herritarrentzako duen garrantzi berezia.
- Obra arduradunaren izena eta telefono mugikorraren zenbakia.
- Adierazi beharko da, zehatz:
  - a. Ekitaldia hasteko eta amaitzeko ordua, eta hura egin bitartean egon daitezkeen soinu faseak.
  - b. Erabili beharreko ekipamendua, megafonia edo makinak, eta homologazio zein etiketatzeko ziurtagiria dutela zehaztuko da.
  - c. Ordenantza honetan jasotako preskripzioak bete izanaren justifikazioa, udaleko teknikariek eskatzen duten moduan.
  - d. Beharrezkoak badira eta c) idatz-zatian xedatutakoari erantzuteko, inpaktua murrizteko neurri zuzentzaileak edo aringarriak aplikatu ahalko dira.

### ***Ekitaldietarako baimen berezietan eskatutako zaratari buruzko azterlan eta txosten teknikoaren edukia.***

#### ***A. Baimen bereziak***

1. Bide publikoko kultura, kirol, musika edo beste era bateko ekitaldiak:
  - Baimena eskatzeko arrazoiak: ekitaldiaren ezaugarriak eta interes orokorra edo herritarrentzako duen garrantzi berezia.
  - Obra arduradunaren izena eta telefono mugikorraren zenbakia.

- Adierazi beharko da, zehatz:
  - a. Ekitaldia hasteko eta amaitzeko ordua, eta hura egin bitartean egon daitezkeen soinu faseak.
  - b. Erabili beharreko ekipamendua, megafonia edo makinak, eta homologazio zein etiketatzeko ziurtagiria dutela zehaztuko da. Megafonia edo anplifikadorea erabiltzeko beharra justifikatu beharko da.
  - c. Ekitaldiaren ondorioz inguruko etxebizitzetan sortutako inpaktu akustikoa aurreikus-tea, ekipoen tipologia eta hartzaile sentikorrekiko duten kokapena kontuan hartuta. Azterketa hori aurkeztuko da egin beharreko lanen kokalekuaren eta zarata fokua sortzen diren tokiaren plano batean, honako hau zehaztuz: gertuen dauden erabilera sentikorretarako distantzia (etxebizitzak, ikastetxeak eta klinikak) eta haien soinuaren presio mailak, jardueraren ondoriozkoa,  $L_d$ ,  $L_e$  eta  $L_n$  batez besteko mailetan oinarrituz. Horiek kalitate akustikoko helburu gisa ezarri dira urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoan, eta ordenantza honetan.

Sortutako soinuaren presio maila horiek zehazteko, honako formula matematiko hau erabiliko da, ekitaldian erabili beharreko soinua erreproduzitzeko ekipoen fabrikatzaileek emandako Law potentzia akustikoaren datuetan oinarrituta:

$$L_{Aeq} = L_{AW} - 10 \cdot \log(2 \cdot 3,1416 \cdot (r^2))$$

Soinua erreproduzitzeko ekipoen eta ekitalditik gertuen dagoen erabilera sentikorraren arteko distantzia da  $r$ .

Formula hori aplikatuko da ekitaldian soinua erreproduzitzeko erabiltzen den ekipo guztietan. Azken  $L_{Aeq}$  horren emaitza ekipo bakoitzeko  $L_{Aeq}$ -en batura energetikoarekin bat etorriko da.

Azken  $L_{Aeq}$  maila hori kalitate akustikoaren helburutzat jotako mailekin alderatuko da.

- d. Gainditzen bada, inpaktua murrizteko neurri aringarriak zehaztuko dira: igorpenaren bolumena kontrolatzea, ordutegiak arautzea, soinua ez hedatzeko hesiak jartzea, kokapena aldatzea... Kasu guztietan, ekitaldiari lotutako inpaktu akustikoa ahalik eta gehien murrizteko proposatutako neurri zuzentzaileak edo aringarriak adieraziko dira.
2. Soinua erreproduzitzeko ekipoak jartzea:
    - Eskaeraren arazoia, eta ekitaldiaren datak nahiz ordutegia zehaztuko dira.
    - Ekipoak jartzeko lekua.



## 6. ERANSKINA: LB6 BITARTEKARITZA

Bitartekaritza prozesuko funtsezko alderdiak:

- Araudiak egoera argi eta garbi konpontzen ez duenean aplikatzen da. Ez da legezko blokeo-rako irtenbide bat, baizik eta denboran korapilatutako egoerei aurre egiteko, ez baitute erreferentziazko lege esparru aski garbirik. Bide publikoan, eguneko eta gaueko zarataren inpaktuaren fokua zein den argi dago, baina ez araudiaren aplikazioa, soinuaren fokua ez delako finkoa (bide publikoan dauden pertsonak). Egoera hauetan izaten da: aisialdiko lokaletatik gertu dauden guneetan, bide publikoan pilatzen diren pertsonak, lokaletatik kanpo biltzen diren gazteak edo terrazetan pilatzen diren pertsonak.
- Tartean dauden eragile guztiak identifikatzea, eta beren kezkak nahiz erakartzeko bitartekoak identifikatuko dira.
- Udalak prozesuan zer zeregin betetzen duen, egoerarekiko zenbaterainoko eragina duen, kanpotik jasotako laguntza batek egitea egokia den edo ez berrikusteko.
- Egoeraren diagnostiko partekatua egiteko beharra, eragile guztiak mahai berean esertzekoa.
- Garrantzitsua da konpromisoerantzutea, epeak eta arduradunak finkatzea eta gai horrekin errealistak izatea.
- Zarataren kudeaketan, askotan beste aldagai batzuk ere izaten dira, eta haiek ere kontuan hartu beharko ziren egoeraren ikuspegi osoa emateko, alderdi guztiak aintzat hartuta: segurtasuna eta garbitasuna funtsezkoak izaten dira.

## 7. ERANSKINA: SOINU MAILA HANDIKO EREMUAK

Soinu Maila Handiko Eremuaren figura ordenantza batzuek (Espainia mailan, funtsean) jaso duten lege baliabide bat da, eta gaueko aisialdia eta herritarren atsedena bateratzea du xede. Baliabide hori aplikatzeko, gai hauek jasotzen dituen berariazko lege esparru bat zehaztu behar da:

- Mugaketa: baldintza akustikoak egiaztatzeari erantzuten dio, zarata mailak gainditzeari eta haiek errepikatzeari dagokionez (ordutegiak eta astean zenbat aldiz gertatzen diren, adibidez). Beharrezkoa da irizpideak operatiboak izatea, gertatu izana egiaztatzeko, eta, era berean, izendapen hori benetan behar duten egoerak identifikatzea, denboran edo espazioan oso arazo zehatzak izan gabe.
  - Hau da, zehaztu behar da zer baldintza urratzeak eragin dezakeen soinu maila handiko eremu izendatzea, esate baterako:
    - Aipatutako kalitate helburuekiko 10 dBA baino gehiago (eremuka).
    - 10 dBA baino gehiago, gau lasaienetakiko  $L_n$ -ri dagokionez.
    - 20 dBA baino gehiago, gaueko ordubeteko  $L_{Aeq}$ -arekin eta eguneko 14 orduko  $L_{Aeq}$ -arekin alderatuta.
    - beste batzuk
  - Zein unetan ebaluatuko den (astean behin, asteburuan, hilean behin...)
  - Eragozpena kexekin batera egiaztatu behar da?
  - Ezarri daitezkeen neurriak zehaztu behar dira (ikus hurrengo puntua)
  - Gai horiei buruzko gogoeta egin behar da eta udal ordenantzan jaso
- Izendapena eta indarraldia: izendapenak jendaurreko informazioaren izapidea eta alegazioak eska ditzake, eta iraunkortasuna finkoa eta berrikusgarria izan daiteke, harik eta izendapena eragin zuten baldintzak azkentzen diren arte. Aldi baterako indarraldia da, haren izendapena justifikatu zuten inguruabarrak iraun bitartean. Bere izendapenean ezarritako neurriei eta mugei jarraipena egitea eskatzen du; hala, eremu horien kalitate akustikoaren hobekuntza eta ezarritako neurrien eraginkortasuna baloratu ahalko dira.

Honako neurri hauek izan daitezke:

- Trakzio mekanikozko ibilgailu mota batzuek eta ziklomotorrek zirkulatu ezin duten edo ordutegi nahiz abiadura mugatuetan zirkulatu behar ez duten guneak edo bideak adieraztea.
- Kanpora igortzeko muga orokorrak baino murriztaileagoak ezartzea, eta jardueren titularrei neurri zuzentzaile osagarriak eskatuko zaizkie.
- Ezarri nahi diren jarduera berrietarako lehendik dauden jardueri dagokienez ezartzen den distantzien araubideari lotzea.
- Atari akustikoak jarri beharra, inguruaren isolamendua areagotzea, leiho begiak mugatzea eta aireztapen behartua eskatzea.
- Ordutegi araubidea mugatzea, indarrean dagoen araubidearekin bat etorritz.
- Mahaiak eta aulkiak dituen bide publikoa okupatzeko lizentzia ez baimentzea, edo ordutegia ez mugatzea, eta emandako lizentziak aldi baterako etetea.
- Trafikoa arautzeko berariazko planak ezartzea, hori egitea eskatzen den egoeretan.
- BAE (Babes Akustikoko Eremua) eta alboko eremuen arteko gozamenerako guneak ezartzea; hala, muga efektua saihesteko neurri osagarriak hartu ahalko dira.
- Ikuskizunen, establezimendu publikoen eta jolas jardueren araudiari lotutako lokalak irekitzeko, aldatzeko edo handitzeko lizentzia berriak emateko aukera etetea/debekatzea.



- tzea, baldin eta igorle akustikoak badituzte eta lehendik dagoen immisio indizearen balioak edota espedientean soinu maila handiaren sorburutzat jo diren beste era bateko jarduerak areagotzen badituzte.
- Ikus-entzunezko baliabideak funtzionatzeko debekua.
  - Musikarekin ingurua girotzeko debekua.
  - Etxebizitzetarako, ospitale, hezkuntza edo kulturako erabileretarako eraikinetarako lizentziak debekatzea.
  - Zabalkunde publikoa.
  - Akustika hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzak.
  - Hondar klausula: kutsadura akustikoaren maila saihesteko edo murrizteko egokitzat jotzen den beste edozein neurri.
- Ondorioak: jardueren ordutegia mugatzea, espazio publikoaren okupazioa gehiago kontrolatzea, jarduera lizentzia berriak emateko baldintzak ezartzea eta, kasu batzuetan, esku hartzeko protokolo espezifiko bat hedatzea eragin ohi dute; bitartekaritza edota kontzientziari ekintzak ere barne har ditzake.

# TERRAZAK

## TERRAZA BAKARRA

- Baimena (indarrean)
- Jarduera, terraza eta instalazio/desinstalazioaren ordutegia
- Altzarien kokapena eta mugaketa
- Soinua edo irudia erreproduzitzeko ekipoak erabiltzea, terrazekiko duten antolamenduaren arabera.
- Zaraten aurkako neurriak dituzten altzariak

- Terrazaren baimen zehatzaren dokumentazioa
- Kexen eta arrazoien zerrenda

## TERRAZEN ELKARGUNEA

- Banakako baldintzen egiaztapena
- Terrazen arteko distantzia
- Erabiltzaileen presentzia mugatutako gunetik kanpoko bide publikoan
- Jardueren mantentamenduaren egiaztapena, gunean, terrazak itxi ondoren

- Terrazaren baimen zehatzaren dokumentazioa
- Kexen eta arrazoien zerrenda
- Kontzientziario eta bitartekaritzako tresnen hedapena

**Kontuan hartzekoak**

**Babes-tresnak**



### Proposatutako araudia

- Ordutegia: 17/2019 DEKRETUA, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
- Udal-ordenantza, halakorik badago.

### Lokalean ikusgarri jartzeko dokumentazio-proposamena

- Mugaketa (planoa/krokisa)
- Ordutegiak
- Emateko baldintzak: baimenaren aldia eta audioa eta/edo irudia emititzeko ekipoen baldintzak



# GAZTEEN LOKALAK ETA TXOKOAK

## GAZTEEN LOKALAK

- Jardueraren tratamendua (lokalaren baldintzak egokitzea, barne-emisioa mugatzea, eta atea ixtea)
- Kanpoko jardueraren gaineko muga edo debekua
- Jarduera desberdinetarako erabilera-ordutegiak
- Soinua erreproduzitzeko ekipoen emisioaren mugaketa/ debekua

- Erabiltzaileen auto-erregulazioa eta kontzientziakzioa
- Kexen eta arrazoien zerrenda
- Gune ez sentikorretako kokapenaren sustapena

## TXOKOAK

- Jarduera gisa tratatzea (lokalaren baldintzak egokitzea, barruko emisioa mugatzea eta atea itxita egotea)
- Kanpoko jardueraren gaineko muga edo debekua
- Soinua erreproduzitzeko ekipoen baldintzak

- Erabiltzaileen autoerregulazioa eta kontzientziakzioa
- Kexen eta arrazoien zerrenda
- Erregulazioa: 171/1985 Dekretua, taberna/jatetxe moduan, eta 3/1998 Legea, ingurugiroa babestekoa

### Proposatutako araudia

- 17/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunaren eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena
- 171/1985 Dekretua, ekainaren 11koa, etxebizitzetarako hirilurretan jartzekoak diren Ekintzapide Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuekin erabili beharreko Teknikazko Arauak ontzat emanez
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa
- Udal-ordenantza, halakorik badago
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa

### Baimena emateko dokumentazio-proposamena

- Ordutegiak
- Baldintzak: baimenaren aida eta debekuak
- Kexen inbentarioa

**Kontuan hartzeakoak**

**Babes-tresnak**

# KANPOKO ZARATA GUNE PUBLIKOAN (egunez eta gauez)



## LOKALEI LOTUTA

- Lanketa integrala: zarata, zikinkeria, segurtasuna
- Herritarren segurtasunaren presentzia
- Lokalen erantzukizun partekatua (zarata, garbiketa, segurtasuna)
- Lokaleko baldintzen beteazpenaren jarraipena: ateak itxita eta kanpora soinuirik atera gabe (isolamendua).

## BESTELAKO JARDUERAK

- Lanketa integrala: zarata, zikinkeria, segurtasuna
- Orduategien beteazpena, baldin eta jarduera bat bada
- Herritarren segurtasunaren presentzia
- Esparru juridikoaren hedapena (saihestu daitezkeen zaratak saihestea, kalea ez zikintzea, bide publikoan alkohola ez edatea)
- Jarduera beste gune batzuetara lekualdatu ahal izateko aukera, presioagatik, kasu jakin batzuetan

Kontuan  
hartzeakoak

- Akustikoki Asetako Guneen (AAG) edo antzeko figuren sorrera
- Kontzientiazio-kanpainak lokalen inplikaziorako (ilarak eta abar)
- Bitartekaritza-prozesuen hedapena, beharrezkoa bada
- Kexen jarraipena eta erregistroa

- Akustikoki Asetako Guneen (AAG) edo antzeko figuren sorrera
- Erabiltzaileei isuna
- Erabiltzaileen kontzientiaziorako kanpainak
- Kexen jarraipena eta erregistroa

## Proposatutako araudia

- Udal-ordenantza, halakorik badago

## Jarraipena egiteko dokumentazio-proposamena

- Soinu-mailen, kexen eta kontroljardueren erregistroak.
- Aginte-taula baten definizioa, jarraipen-adierazleekin, jardueren eraginkortasuna zehazteko.

Babes-  
tresnak



# UDAL-OBRAK ETA -ZERBITZUAK

## OBRAK BIDE PUBLIKOAN

- Ordu-tegi eta baldintzen betearazpena (eragin altuko jarduerarik ez aldi berean, aldi baterako pantailak, moztu ohi diren jardueren kokapena, eta abar)
- Eskakizunen egokitzapena obraren eragin-mailaren eta eragozpen handieneko faseen arabera (jardueramota, inguruko hartzaileak, kokapen berean egoten den denbora)

- Baimenen kudeaketa, eragin-mailaren arabera
- Azterketa akustikoaren eskaera, obraren kokapenaren eta iraupenaren arabera (eragina egokituta)
- Ikuskapenak eta egiaztapen neurketak
- Kexen erregistroa eta jarraipena
- Zarataren sarrera obren bileretan

## UDAL- ZERBITZUAK

- Ibilbide eta ordutegien kudeaketa zerbitzu-motaren arabera eta eragin akustikoko ingurunearen baldintzak
- Ahalik eta praktika onenen erabilera
- Soinu-emisio txikiko makinak

- Diagnostiko akustikoak, neurri aringarriak zehazteko lehentasuneko guneak identifikatze aldera (ordutegien kudeaketa)
- Aldagai honen sarrera zerbitzuen kontratazio-agirietan
- Kexen erregistroa eta jarraipena

## Proposatutako araudia

- Udal-ordenantza, halakorik badago
- Obren edo zerbitzuen kontratazio-agiriak
- Makinak kanpoan erabiltzeari buruzko araudia

## Jarraipena egiteko dokumentazio-proposamena

- Azterketa akustikoak eta aplikatutako neurri zuzentzaileak.
- Kexen eta ikuskapenen emaitzen inbentarioa.

**Kontuan hartzeak**

**Babes-tresnak**

# EKITALDIAK ETA MEGAFONIA



## EKITALDIAK

- Ekitaldiaren soinu-mailaren aurreikuspena (soinuak zer diren: ekitaldian laguntzeko baliabidea edo ekitaldia egiteko arrazoia)
- Baldintzatzaileen definizioa (mugak eta ordutegiak), gune-motaren eta erabilera sentikorren presentziaren arabera
- Display edo mugatzailearen erabilerraren gaineko hautua
- Gunerako dosiaren kontzeptua kontuan hartzea (urtean zein izaerarako zenbat ekitaldi dauden)

## Kontuan hartzeak

## MEGAFONIA

- Megafoniaren erabilera, kirol- edo kultura-ekitaldietan laguntzeko
- Megafoniaren erabilerraren ordutegien kudeaketa
- Ekitaldiaren ospakizunarekin koordinatuta eta erreklamua gisa ematen zaion erabilerraren kontrola
- Musikaren emisioaren eta mezuen emisioaren muga
- Urrutiko emisiorako muga finkoaren aplikazioa

## Babes-tresnak

- Baldintzatzaileen egiaztapena soinu frogetan
- Kexen erregistroa eta jarraipena
- Display edo/eta mugatzailearen datuak zehapenak jartzeko
- Ekitaldi nabarmentarako soinu proiektuaren informazioa, eragin handia izan dezaketen eta jendetza biltzen duten lekuetan
- Datu-basearen sorrera, ekitaldien eta horien eraginean jarraipena errazteko
- Ekitaldien harmen akustikorako gaitasunaren azterketa hiriko hainbat kokalekutan

- Baldintzatzaileen egiaztapena megafonia frogetan, ekitaldiaren iraupenaren arabera
- Aldian-aldian errepikatzen diren ekitaldietarako kexen erregistroa eta jarraipena

## Proposatutako araudia

- Ordenantza, baldin badago, normalean baimen espezifikokoaren menpe
- Batzuetan udalplangintzan araututa

## Jarraipena egiteko dokumentazio-proposamena

- Mota bakoitzeko ekitaldien datu-basea, gune bakoitzean, urteko dosia ebaluatzeko
- Kexen eta ikuskapenen emaitzen inbentarioa



## JAI-JARDUERAK

### JAIETAKO EKITALDIAK

- Soinu-emisioaren baldintzatzaileak, jaien izaera esanguratsu eta apartekoaren arabera egokituta (EKITALDIEN fitxan aurkeztutakoaren aldean)
- Ekitaldien eta horien frogen ordutegien gaineko mugak
- Display edo mugatzailearen erabileraren gaineko hautua

- Baldintzatzaileen egiaztapena soinu-frogetan
- Kexen erregistroa eta jarraipena
- Display edo/eta mugatzailearen datuak, zehapenak ezartzeko
- Ekitaldien harmen akustikorako gaitasunaren azterketa, hiriko hainbat kokapenetan

### TXOSNAK ETA BARRAKAK

- Ekipoen muga, soinu-emisio jakin baten arabera
- Orduategien kudeaketa, soinuemisioko baldintzatzaileekin lotuta
- Haur erabiltzaileen babesazaintzea, barraken kasuan
- Mugatzailearen aplikazioa, kontrol-tresna gisa
- Megafonia bakarren erabilera, ahal den neurrian

- Baldintzatzaileen erabilera soinu-frogetan edo jarduera hasi baino lehen
- Orduategiak eta mugak kudeatzeko aukera, eguneko astearen arabera eta jaiaren esanguraren arabera
- Kexen erregistroa eta jarraipena
- In situ ikuskapenak, mugatzaileak manipulatzeko ez direla egiaztatzeko

### Proposatutako araudia

- Ekitaldien ordenantza, halakorik bada
- Batzuetan, baimen espezifikoaren menpe, jai-batzordeen bidez

### Jarraipena egiteko dokumentazio-proposamena

- Mota bakoitzeko ekitaldien datu-basea, gune bakoitzean, urteko dosia ebaluatzeko
- Kexen eta ikuskapenen emaitzen inbentarioa

**Kontuan hartzeak**

**Babes-tresnak**





**Bizkaia**

*foru aldundia*  
*diputación foral*